

ANTON GUZURRETXE

Augustin Zubikarai

Anton Guzurretxe

Txomin Agirre Saria, 1979

© AGUSTIN ZUBIKARAI
© BIZKAIKO AURRESKI KUTZA
España'ko Enparantza, 1
BILBO-1

I. S. B. N. 84-7406-040-0

D L.: BI-683-1979

Inprimatzaile: La Editorial Vizcaína, S. A.
Carretera Bilbao a Galdácano, 20
Bolueta — Bilbao - 4

Eskintza:

*Eleberrri (nobela) au ez dakit zeññeri eskiñi;
askori nai ta ezin daneri,
baiña bat aukeratzekotan, zuri,
biotzean zaitudan erritar orreri.*

Gogorra zan Anton.

Garratza.

Arpegi zurbil, luxenga...

Begi zorrotz urtenak, bekoki estu, belarri andi, zudur zulo zabal, okotz zapal.

Ulea, ule motza, baiña betea. Beltzerana.

Izketan, berbetan, sikua.

Borondatez, ixil zalea.

Izakeraz, latza.

Txalopan, lanean, danen esanetan, alegintsua, egin-korra.

Itxasoan, nai ta ausarditsu izan ez, bildur bakua.

Ta iñok ez ekian nuntarra zan.

Lenengotan, errira etorri barritan, Anton. Beste bari-rik.

Gero Anton «ostatu»; geroago Anton «Petra».

Deitura bat eta bestea, batera etozan: Petra'ren ostatuan bizi zalako.

Guzurretxe'ko Anton esaten eutsen azkenetan.

Ori izenik oiena.

Ez zan begitankor ez aizetsu,

baiña zabala, idegia be ez.

Ez eukan areriorik bere adiñekoen artean,

baiña lagun berezirik be ez.

Berean ebillen, bestien lotsa gordeta,

itxasertzeko erri baten arrantzaleak eta mariñelak oi daben bizibide ezagutuan.

Itxas egunetan, ogi bidean, arrantzan;

etxe egunetan, bestien antzera,

soka opillak azkatu, edo aparixuen batzuk gertu, edo sare zarrik anda konpontzalliei emoteko ikusi bearrik ez ba egoan

an ibiliko zan bera, jokoan, tokirik ba egoan pelotan; edo ta itxas aizeak artzen eta itxas urak ikusteko eguneroko oituran.

Bere tokirik maitiena «Guzurretxea» eban.

Itxas ondoko aterpe txikiak

Itxas ertzeko portu eta errietan,
itxasora emoten daben mendi edo bide muturretan,
ba dagoz aterpe txiki batzuk.

Lengo gizaldiko gerraetan errien aurka etozanak zaintzeko egin ziran.

Arrizko aterpeak. Arrizkoak, baiña indar bakuak.

Inguruetan, larradi edo mendi zokoetan eskutuan gertuta egozan kañoietako begiraleak egoten ziran eurentan.

Ez beti ernai.

Gaspar Jauregi «artzaiak» alako txabola baten inguruan egozan kañoiak azkatu, eta Santa Clara menditik berako pendizean aitzetaraño jaurti zituanian, eta an egozan polbora eta estopei su emonda laga zitunean... edo bildurrak kikilduta egozan edo bestela, an egozanak, asmuz eta jakitez, «Artzaia» ren lagun ziran.

Dana dala, ba dakie eurak gure itxas aurrean frantzetarrek eta ingelesak eukiten zituen zelatada edo ta murkadaren barri.

Edo ta itxas lapurrak eukiten zituen sarrerak, nai ta oneinak gabaz edo illunpeko ekintzaz izan.

Eta ikusita be, jakinda be, mutu.

Inguru oneik eta aterpe oneik, geroago, mutil txikien edo bizartu bako mutil uletsuen eskuta tokiak izaten ziran, ingelesian, txapetan, edo kartetan jokatzeko.

Baita aienak erre ta gizon berotasunak artzen aste-ko, be.

Aterpeak, geienetan, ke ta lurrunez beteta egoten ziran. Sartu orduko jantziak be ke-atsez lagateko eran.

Antxe batzen ziran lotarako errira etozan ijitoak, motxaileak, eta bertan laga be su-ondoak, trapu zarrak, lasto ondakiñak eta jateko onduak.

Zarrak eta mardulak nekez sartzen ziran euretan, euri zaparraden batek andik ebiltzala bidean artu ezik, edo ekaitz gogorretan bertaraño joan eta andik itxaso zabalera zirriztada luzeago bat egiteko asmoz joan ezik.

Zikin toki zirala ta ezeztu zituen asko.

Eta aterpe andiak

Erri barrurago egoten zan aterpe andia.

Gure lengoak, lengo itxastar zarrak, parke eta zumardiak baiño premiñazkoago ikusten eben eurentzako eta erriarentzako orrelako aterpe zabal andi bat, itxas aurrean.

Al zala, itxasotik kairako sarrera, edo urteera, ostopo barik ikusteko eran.

Ekaitz egunetan, egunaren ordu luzeetako batzuk bertan emoteko, itxasoari begira, itxasoaren aldakuntza, zirri-zarra, olatu-aldi eta aize brastadak bertatik oartuteko.

Eta egualdi obeagoetan, txalopak itxasoan ebiltzanean be, leorrean egozan gizonak, etxean geratutakoak, bertatik txalopen barrako sarrera ta urteerak zaindu al izateko.

Gure kaietako sarrerak gaurko begiz ikusi, edo ta oraingo molla barik, aitz eta ondar bakarrik egozala ikusi; gaurko txalopak begiztatu bertako sartu-urtenetan, edo ta erramutan ain zuzen be sarrera orretan arduratsu eta arretatsu egin bear ebezan uneak gogoratu, ur bidean be, kanalean be, ondo barik, egaletako orma zuzendari barik, zirri-zarra egunetan ur bidea nundik eioan be konturatu ezinda, patroiazen zurtasunaren kontura lagata... gaitz gaur ziurtasunez orduko arriskuakin konturatzea.

Arrantzan ebiltzala egualdia okertzen asten ba zan, eta baretu ez, gure barrak eriotzaren erpe luzeak ziran.

Ezin eskatu gizonei, gaurko txalopak iñoiz egoten diran lez, sarrera aurrean baretu arte eusteko.

Eten egingo ziran erramutan txalopei eutsi ezinda; bertanbera txalopai laga ezkeru, ondora tirabiraen baten; eta belak zabaldua, zoro antzera ibilteko be, aizeak kon-
turatu orduko eroango zitun aitzetara.

Ikustekoa da lengo gizaldian, Ondarroa'ko barran, esate baterako, zenbat txalopak tira-bira egin eben eta zenbat gizon itto ziran.

Jakin:

Gizaldia sartzen zan urtean, 1.800'eko Azillean, emeretz lagun itto ziran bertan, erriaren aurrean, guraso, emazte eta euren semetxuen aurrean, iñork ezer egin ezinda.

Amasei urte geroago beste zortzi, korrentak tatarrez erabili zitun, eta euretarren dei larriak entzun al izanar-
ren, txikotik ezin artu izan eben, berari eutsi eta bizia zaindu al izateko.

Erri guztia ondar egalean, gizonik indartsuenak, ge-
rrian txikotak lotuta besteekana urten, baiña eldu ezin. Itxasoak bere indarra erakutsi nai.

Beste lau andik urteetara, bakarrak lagata, batel txi-
kietako agure eta zarrak, euren itxasoari eskintzak laga-
ta.

Eta, itxasoa beti bardin dala gogoratzeko, gizaldi barria sartu ta batera, oraingo gure gizaldian be, «Itziar» txalupa andia gure barra aurrean, sartu ezinda.

Aizearen mende Motriku'n errezago sartu zalakoan, eta an be, ango sarreran be, emeretz gizonetatik amar it-
to.

Ori portu barruko gertaerak bakarrik gogoratuta, kaletako sartu-urtenetako okerrak bakarrik bururatuta,

iru-lau milla kanporago, itxas zabalean, erritik ikusteko eran galduak kontuan euki barik.

Noz-naiko gertaerak zaintzeko, egualdi txarretako ondamendiak zaintzeko, premiñazko zituen gure lengoak orrelako aterpeak.

Arta azpitik txaloparen bat agertu orduko, laster igarten eutsen «Guzurretxetik» nortzuk ziran:

An datoz Paulo-ta!, esaten eben, barruari nasaitasuna lakoa emon nairik;

edo Martin Txatxarra'rena da ori, bai, Paulona baiño luzetxoago da ori;

edo ta Polonio Akerra be ba dator. Arraiña be ba dakar orrek, naiku sartuta dator-eta.

Besteak be ez dira urrun izango!

Eta beste kontu, joko, egoera eta egitekoak laga ta an geratzen ziran, puntako aitza zelan igaroko begira, eta barrako sarrerako korrenta zelan mendetuko.

Antxe egongo ziran azken txalopa sartu arte.

Iñoiz tirabirarik egongo zan bildurra igarten ba eben, edo txaloparen bat olatuen mende geratuta egoala konturatu, laster jatxiko ziran andik eskalletan bera ondartzatza aldera, ta andik txikotak gertu, luzatu edo al ebanak al eban eran jokatu, etozanei laguntza eskintzeko.

Bein baiño geiagotan itxasotik etozanak zela-ala sartu ta aterpetik urtendako laguntzailleak itto eta galdu be egin ziran.

Guzurretxe

Onelako aterpe andi batek, Ondarroa'n, egoan toki edo lurraldetik baiño, bertan egoten ziranen ekanduetatik artuko eban izena: Guzurretxe.

Zeinek asmatu eta zetan oiñarrituta ain zabal geratuko zan izen edo deitura?

Bide barriaren gain egoan.

Iru-lau arri mailla igarota.

Aterpe sakona.

Luze geiago, zabal baiño, eta gorako argi andiko.

Inguru guztian, arrizko jezarleku luze ta jarraikoa, ate zulo edo bideak bakarrik etenda.

Atzean ate txiki bat, mendi aldera, eta an, gora ta gora joanda, sagardautegi bat. .

Aukerako zan gizonentzat. Origaitik egunaren ordu guztietan egoten zan norbait.

Andrazkoak be nai izan eben aterpe a, sare konponketarako toki egokia zalako, baiña gizonak ez eutsen biderik emon, eta lortu be egin eben zeregin ori an ez egi-tea, bestela eurak nun egon edo nun batu barik gelditzen ziralako.

Gazteak zain egoten ziran gizon mardulak bertatik aldeteko, pelotan jokatzeko azkatasuna eta tokia euki egien.

Jarrileku ta kantoi, pelotarako txuloak ziran. Origaitik bertako ezaupide eta jakiña bear zan jokoan arriskatzeko.

Askotan zarrak eurak izaten ziran an pelotan ikus-
teko garretan egozanak, eta kale aldeko orma gainetan
zutik jarri ta ordu asko atsegiñez igaroten zituen, itxas
ikuspidea galdu barik.

Bee latza eukan, ondar arri arlosakin egiña.

Beraz «Guzurretxe» aterpe, pelota toki,
sagardautegi-ate eta egualdi igarle be ba zan.

Ormak laiño likiñez bustita igarten ba ziran... iño!,
egualdiak ba ekarren aldakuntzaren bat.

Etxe egotetan, pelota zale zalako, an batzen zan An-
ton, zeñeri txanponen bat jokatu.

Jatorra bat jokatu.

Jatorra zan pelotan eta askotan biren aurka jokatu
bear izaten eban.

Ortik etorkion izena, «Guzurretxe» deitura, Anton
Guzurretxe.

Errian ez eukan gurasorik, ez seniderik. Ez urreko-
rik ez bestelakorik.

Bere ama zala askok pentsaten ebena, ostatuko Pe-
tra zan.

Andre a, beti be, bere errukiaren entzutez bizi zan.

Petra'neko ostatua

Erribera aldian,
kale egal edo kantoitzat geratzen zan etxe azpian,
ezelako izen edo ezaugarri barik.

Mai luze bi alderdi baten,
beste txiki bi aurrean,
eurak aiñako jarrileko edo banku luzeak;
barruan, atzean, sukaldea.
Sukaldearen albuan karkaba.
Karkaba, ke-bide edo tximini zulo.
Barru ta kanpo ketan, aize andien bat gertatu ezean;
argitzat, sarrerako ate txikiak eta bere ondoko metro in-
guruko leiotik artzen ebana egunez, eta kurtzailuena
gabetan.

Komuntzat, karkaban egoan zulo bat urentzako;
andiagotarako kalera urten eta al ebanak al ebana...

Egurrezko mai edo mostradore txiki bat;
bere gaiñeko ola, intxaur ola, eguneroko libxibaz igortzi-
ten, zulo eta berakada edo biurritz beteta, egurraren adar-
begiak korkoitz lez igarten zirala tartetan.

«Mostradore» egalean arasa zar, illun, zedenak jan-
dakoa, eta bertan, pattar botilla banakak,
aguardiente katalana,
etxean egindako ginda likorra.

Ardautzat, naparra. Zerga ez bardiñak zituelako,
eta tranparik ez egitearren, ez eben lagaten taberna baten
naparra eta errioxa batera eukiten.

Orrez gaiñera sagardau botilla batzuk.

Ura be bai, iturriko ura, baiña ez txurrutik, pedarre-
tan baiño, San Juan txurrutik egunero ekarria.

Erriko ostatua zan.

Antxe bizi zan goizaldetik gau erdira Petra.

Tximurrez beteta,
legramua baiño baltzago,
begiak gorri, erreta, keiaren kez,
buruan beti buruko zapi baltza ebala,
sekula iñok ezagutu ez ule utsik.

Alaz eta urrezko belarritako ederrak erabilten zitun
aldian, jai ta asteun, antxiñakoen batek Ameriketatik
ekarriak zirala eta aldian beintzat iñok ez eutsazala
ostuko-ta.

Ostatukoak

Ba eukazan Petrak eguneroko maikideak.

Erriko bost-sei mariñel, itxasoterik ez egoanetan, iru
txikiko botilla atara eta arratsalde guztia jokoan emoten
ebenak.

Ba ekien iñoiz ogi gaiñeko zerbait egiten be.

Eurak etxean egozala, ta etxean egozanetan taber-
natik ez ziran iñora urrunduten, txalupen bat arraiñagaz
sartu zala jakin orduko, edo ta Arrantzalien kofradiko
kanpaia entzun orduko, an joango zan bat mollara, eta
txapela bete antxoa kendu.

Orduan, arraiñagaz gertaten zan txalopeak, edozen-
bat laguneri emoten eutsen zapi bete arrain etxerako. Du-
ban. Oiturazko zan. Gaur batek, biar besteak, zelan gerta
ala emon.

Oraindik ez eben erabilten gizonak, geroago lez, mokoak kentzeko zapirik. Origaitik txapela kendu, jirau-letara ipini ta a bete emoten eben.

Antxos lez, sardiña, txitxarro edo berdela.

Arraiña duban, debalde, eta Petra'rena be, —su, gatz, koipe apurra, berakatsa ta dana—, beste baso erdi ardaue geiago ordaindutearen ordez, kittu.

Ori bai, egin, sukaldera joan eta gizonen batek egiten eban eurena, andreari biarrik emon barik.

Ba ekian Petra'k areik ez eutsela txoritxiki baten irabazirik emoten.

Baiña euretariko bat senide zalako,

eta geien be erbesteko ostatu eskalientzako lotsa sartzaille, edo bere laguntzaille ikusten zitulako, pozik lagaten eutsen tokia.

Orrez gaiñera, nai ta geienetan jan da jateko geratu, iñoiz arrain apurren bat be ba ekien beretzat lagaten.

Erbestetarrak

Ia egunero eukazan erbestetarrak.

Errira etozan saleroslerik geienak andik igaroten ziran.

Urteetako ostatulariak ziran.

Geienetan, bere «klienteak», oneik:

Euri arraiñak.

Orrelaxe deitzen eutsen errian Galizi aldetik etorten ziran txorrotzalliei. Euren espaneko pilarmonika lakoa-gaz doiñu ezaguna kaletan joten ebenean, entzun orduko, laster asten ziran andrak: Ai ene, emen datoz euri arraiñak!

Eta asteko lixiba edo garbitasunak egin barik ba eukezan, keixatu egiten ziran, areikin batean euriak etozala ziurtzat artzen ebelako.

Galiziarrek izaten ziran euri arraiñak.

Petra'k, olako doiñua entzutean, topin andiago bat ipinten eban, patata geiagoz, «karailluentzat».

Galiziarrek ziran, baita, «paragueroak», be.

Aterkin konpontzaille baiño, lapiko zarrei txaplata ipinten lan geiago billatzen ebenak.

Bateri «popa lapiko» deitzen eutsen, batetik panazko praka lodiak erabili arren, beti ebillelako txistenen bat dindilizka. Eta bestetik, zulo txiki bat eukala be, txoriandi lako txaplata bat ipiñi baiño, azpi barria ezartea naiago izaten ebalako.

Ba egoan bat andra zale itzala. Beti zirrika ibilteko oitura eukan. Baiña kendu eutsan Petra'k orretarako askura. Eskuan erabillan topin andi bat burutik bera sartu eutsalako, ur bero ta guzti.

Orretan Petra'k ez eukan olgetarik.

«Pipermiñak» be ango klienteak ziran.

Errioxako piper eta berakatz saltzailleak, ango aize lurdunez arpegi narru baltzdunak.

Mandazaiñen laguntzailleak be bai. Arabarrak oneik. Errioxa nai Naparroa'ra ardau osterak egiten zituena.

Iñoiz ekarri eutsen Petra'ri zato txiki bat ango ardau lodiz beteta.

Eta Petra'k, berak kontzientziko kargurik ez ebala nai-ta, eskutuan urik ardauari egiten eutsanik be ez ebala entzun nai-ta, gizonak an egozala danen aurrean botaten eutsan ura, urik barik lodiegi be ba zala danak esaten ebelako.

«Trapuzarrak» be etorten ziran. Santander aldetik, Vega de Pas ingurutik, eun eta oial saltzen ebiltzanak, eta trapu zarrak lepoan erabillen lastozko otzara zapalean batu eta erosten zituenak.

Eta tarteka, urtean birritan, «pita» edo tantza saltzaillea, murtzianua.

Ba eukazan jai andietarako ostatulariak be: barkilleruak, piruli saltzailleak eta pitxidunak.

Iñoiz lurrezko ontzi saltzailleak be agertzen ziran, euren mandoetan ainbat tresna ekarten zituela.

Petra'k ez eukan «ostatuan» lotarako tokirik. Gela luze baten, birentzako tokia eukan etxean. Berak «gabine-tea» deitzen eutsan lo gela orreri.

Arako begiz jota eukazan batzuk. Beste banakaen bat adiskide baten etxera bialtzen eban.

Eta besteak...

danetakoak egozan.

Txorrotzaille, «paragueru» eta abar, baserrietan korta egaletan lo egitera oituta egozan lez, Manu'neko kortara joaten ziran, edo erri sarrerako sapaiei batera.

Errukia eta «miseria»

Errukidun andrak, edo andra errukitsuak, ez ei dabe balio ostatu bat eukiteko.

Ta a be, Petra be, orrek galdu eban.

Apopilluak galdu eben.

«Paraguero» etako batek sekula ez eutsan ostaturik dirutan ordaindu.

Baserrien baten, balio ezebala-ta laga eragindako lapiko edo topiñen bat sartuko eutsan, berak ondo itxurata, eta egun askotako ostatua alako bategaz ordainduten eutsan.

Negartiak dira galziarrak eta berbetan alegintsu eta patxadatsuak.

Astea igaro eta erriko konponketak lazkitu ondoren, Petra'ri esaten ekian, ia garrazkeriz:

—Kontua.

—Ba dakizu.

—Ez dozu esan.

—Betikua.

—Karailu, betikua! Patatak merkeago dagoz orain.

—Ia, ekarri.

—Azak or dagoz basterretan, inok nai ez da.

—Ekarri, ekarri.

—Nik ekarri ta zuk kobratu?

—Orrelakorik ez dot oitu.

- Arraiña be zer?
- Ia, joan...
- Antxoa bota-botaka dabil.
- Ekarri ta ipini zeuk.
- Ardaua be, ba dakizu, naparra bakarrik. Napar baltz siku ori. Naiago dot nik errioxakua.
- Ortarako ura merkena.
- Eta iño! Oraingoan lenago baiño kaneko lodiagoak ekarri dozuz.
- Karuagoak.
- Baiña lodiago diran lez ardau gitxiago artzen dabe.
- Zeuk konpondutako lapiko eta kazularak lez.
- Ia Petra, urrengo baten etorteko be.
- Etorriko zara, bai, nik nai ezarren. Zeiñek nai osatuan zu lako gosekil bat?
- Aste guztian egon naz erri alu onetan eta ezer atarra ez.
- Bai jokorako, demoniena!
- Ba dakizu, joko denpora pasa da.
- Iñoren kontura.
- Ez zara joango etxetara andrak lotan dagozan orduetan.
- Ezetz? Pozik zu!
- Dana dala, joko ordu batzuk gaindutea da.

—Esan dot len be, iñoren kontura.

—Nungo iñoren kontura?

—Ia, atara kontuak.

Argia nirea.

—Esatekoa da ori?

—Kartak nireak.

—Koipez beteak.

—Dana dala, baiña nik ordainduta.

Garbitu bearra nirea.

Zer ordaintzen dozue?

—Ori eguneko ostatuan sartua da.

—Ixildu zaite.

Betikua ta kittu, barriketa barik.

—Euki be ez daukat eta...

—Ori gaiñera?

—Zelan eukiko dot ezer batzen ez dan erri onetan?

—Ez etorri orretara. Geratu or, beste erri aberatsetan. Neskak be ez dagoz orreitan nai lakoxiak?

—Bai baiña...

—Baiñak soluan. Ba ei dakizuez artzen zuek, bear ez moduan.

—Galegoak ez gara ijituak.

—Areik kitanuak, zuek karailuak.

—Ia, gure Santiago' lagunduko dautsu-ta.

—Zetan? Moroak ilten?

—Ixil zaite. Gure Santiago!

Eta «Paragueroa» galiziarrez kantaten asten da:

«De todo ten o relembro
nosa amada Compostela;
en pé firme sempre as torres,
garda o centro de sabencia,
xoias de arte, pensamentos,
e algo inmorrenne antre as pedras:
Cume de outa fe cristiana;
Ouh bendita cibdá eterna!»

—Zoaz, zoaz koplakin.

—Ia ba, emen nago ni borondate onakin.

Zenbat?

—Barriro? Beti beste.

—Lapikotan ordainduko dautsut.

—Zelako lapikotan?

—Ementxe daukat barri bat.

—Len be traste zarra obeto dago emen.

—Ara, gaur be, danontzako patatak egiteko, topin bi erabili bear izan dozuz.

—Bear aiña.

—Ez dakizu baten eginda sutan be merkeago urten-go dautsula?

—Asko dakizu.

—Eta koipetan, eta...

- Zetan geiago?
- Txorixorik ez dozu botaten da orretan ez beintzat.
- Eskatzen ausartzea be!
- Eta uretan be merkeago.
- Ura debalde daukagu.
- Ekarri bear.
- Orretarako ainka eta buru onak daukadaz.
- Baiña lan egin bear.
- Zuek egiten ez dozuena.
- Ai ene, lana gitxi ta ondo.
- Ta ondo irabazi. Zuek. Besteok izorratu.
- Ori pentsatea be, Petra.
- Kopla barik, ekatzuz ogei ta zortzi errial.
- Zenbat zemaiko dira orrek?
- Ez dakit. Eguneko lau errial.
- Ara, lapiko au edozeiñek ordainduko leuke berrogei.
- Joan, saldu ta ekarri niri ogeita zortzi.

.....

Eta ekin,
 eta ibili,
 eragin eta nastea sartu.

Azkenean be Petra'k, ostatu ordež, lapikoa artu eta beste sei errial ordaindu.

—Eta joan baketan. Zugaz ezin leike.

—Atzipetu nazu.

—Geiago ez etorri.

—Santiago'k daki ez naizela etorriko...

Baiña urrengoan be an batuko zirala Petra eta «Karailu» esan bearrik ez egoan.

Eta «Karailu'k» berea eginda, umorea ta pazientzia be ba eukazalako, etorri eta joanaldi guztietako kantu txiki bat gogoratzen eutsan, zirikalari, Petra'ri:

Na tua beleza inxenua
eu vexo certos encantos...»

Joan zaite, joan barrero lapikoko ura burutik bera uztutea nai ez ba dozu.

Andik geroago, Petra kontuak egiten asi, gogoratzen asi, ta...

Ez dausat kontuan sartu etorri zan egunean artu eban kuartillo ardaa.

Eta martizenean, lukainda egunean, egunekotik gain ordaintzekotan ipini neutsan odolostea.

Eta errial bat be kendu eustan norbaiteri atzerakuak emoteko bear ebala ta.

Eta laugarren bat be ba eukan ba...

Jesus!

Arima pielak be ez dauste laguntzen olakoetan.

Ia nik zer egin dodan oingotan be «paraguero» koipezto orregaz!

Tantza saltzaillea eukan ostatukorik jatorrena.

Arek ez eutsan ostaturik dirutan ordaintzen, agurtzeko egunean.

Baiña bein emengo egun bi irutan saltzen ebana ikusita gero, beste arrain sasoi arte ez eutsala geiago erosiko ba ekian lez, tantza txorta batzuk lagaten eutsazan Petra'ri, berak saltzeko, ta urrengo etorten zanean kontuak egin. Orduan kittutzen eban ostatua eta gañerokua artu.

Sekula ez eban jakin Petra'k tantzakin zer irabazten eban.

Danak banatzen zitun, «tantzera» edo emen esaten zan lez, «piterua» etorri ordurako.

Etxean ez yakon ezer geratzen.

Alaz eta batek atuntsu ondoren ordainduko eutsazala artuak, besteak urrengo partillan... Petra or geratzen zan ze artzeko ez ekiala eta tantza barik.

Merkatari ontzat eukan murtzianua, eta areri pozik emoten eutsan etxeko oe bat.

Errioxatarrak, mekagoen, eta dongillak, eta barrabil asko..., lau Izkiduna alboan lagata, baiña eskatua ordaintzen eben. Ez, areik be, asarre barik. Krisis gogorra egoala, tomatea beia jota ebillala, piperra txingorrek edo arriak zulatu ebala..., baiña eskatzen zana ordainduten eben, len esan lez.

Ori bai, Petra'ri urtero esaten eutsen karlisten gerratean ipinitako ordaiñak eukazala ta ori... bakea eginda gero, kartzelan sartzeko bidea zala.

Orrelaxe bildurtu nai izaten eben Petra.

Onek, barre eginda, berak be betiko belarriak eta belarritakuak eukazala, iñok ez eutsala emoten barririk, bera nekez eta lorrez etenda egoala, ta... berak joten eban aiña negar entzunda, beti lagaten eutsen bidean jausi eta erdi-maillatutako lataen bat, etxean zabaldu eta jateko ez eukala ezer-eta. Eta Petra'k propiña edo eskupeko ontzat artzen eban orrelako zerbait.

Azkenean konturatu zan alperrik ebillala, etxekalte ebillala, beste edonun an baiño geiago edo errezago atarako ebalá beretzako bear ebana...

Sinistutera elduarren, berean jarraitzen eban.

Anton eta Petra tratuan

Oraindik bizarrik bako mutilla zala eldu zan Anton errira.

Edozetara.

Gertaten yakon edozein lanetan ekiteko gertu.

Erri pobrea zan lez, ez egoan aukera andirik.

Itxasoa.

Dan besteko itxasoa, aitzaki eta muga barik.

Bildurra eutsan berak itxasoari.

Oiñak be gogorrean ipintea lako tokirik ez egoala, entzun izan eban sarri.

Baiña...

Etorri zan ezker, txalopatan danentzako tokia egoan lez, besterik ezean be arrantzaten zan arraiña jan orde eukita be, mendetu zan.

Orretarako geratu zan errian agertu zanean; sartu orduko alegindu zan tokiren bat billatzen.

Txalopa baten laster agindu eutsen erramua. Ain zuzen be bertako asko zar samarrak zirala eta indar barien premiña eukela ta pozik artu eben.

Arrantzaleak ez dabe eskatzen gaitasunaren barri-rik. Itxas otzara besotik oratuta eroaten jakitea naiku da.

Zerbait irabazten asi artean, txalopan bertan lo egi-ten asi zan.

Petra'ren ostatuan egoten ziran zarretako batek esan eban bein, itxura oneko mutilla zala, mutil ixil, langi- lle eta koplá gitxiko lez ezagutzen zala.

Petra'k naiago eban ostaturako egunero a lez errian egoan mutil bat, beste aldakor batzuk baiño.

Autu ori erabili eban gizon arein artean. Euretari-ko batek belarrira esan be bai Anton'eri, ikusi orduko, eta Anton ostatu zar aretan sartu zan, Petra'ren etxe-ko «gabinete» aren alboan egoan tarte baten kamaña la'ko ban ipiniko eutsala-ta.

Denporak igaro eta zorrak gaiñez eraginda, ostatu- a sarratu bearrean aurkitu zan Petra.

Negarrez ikusten eban egunetan Anton'ek bere etxe-koandrea.

Eta Petra zabaldu zan, nasaitu, nok entzun eukala eta errukiz entzun be, ikusi ebanean.

—Aita il zanetik lanean nabil.

- Bai langille zara.
- Karlistetan il zan aita.
- Nun?
- Gerran.
- Baiña, nun?
- Ez dakit ziur, nun.
- «Probintzian».
- Zein probintzitan?
- Guk «probintzia» Gipuzkoa'ri esaten dautsagu.
- Ziur zagoz?
- Etxera ez zan etorri, beiñik bein.
- Eukiko zendun laguntzaren bat.
- Bai zera.
- Karlistata, zan eta liberalak irabazi.
- Ameriketa'n ez orretara.
- Oba neban Ameriketako gerraen baten il ba litz, il-tekotan, emen baiño obe an.
- Eta frantzetarrekin be ez.
- Ez. Zelan dakizu ango gerren barri?
- Aidean entzunda.
- Nire aita be karlista ei zan.
- Noizko?
- Azkenengo jasoaldikoa.

- Irugarrenekua.
- Ez dakit.
- Bai, iru gerra egin zituen karlistak gure EuskalERRI onetan.
- Zenbat urtetan?
- Berrogei ta amairuren barruan.
- Ta?
- Ez dakit geiagorik.
- Amak jakingo dau.
- Ez dakit amaren barririk.
- Edo senideak.
- Naiago dot ez jakin.
- Ara, ni etxe onetan Anton naz.
- Anton eta...
- Geiago barik. Nai dozuna geitu. Mariñela, OSTATU, Petra, eta kalean esaten dabena be bardin: Anton Guzurretxe.
- Baiña ez nire arrasturik billatu.
- Edozer gertatuta be...
- Ni esku utsik etorri naz.
- Ez zendun txarkeriren bat egingo?
- Orrelakorik egin ba neu ez nitzan emendik agertuko. Eta batez be ez nitzan oSTATU batera etorriko.
- Orretara, niretzako Anton zara, Anton bakarrik.

—Obe.

—Eta ni zuretzat Petra. Ez naz ausartuten ostatuko etxekoandre naizenik esaten.

—Zegaitik ez?

—Ostatua laga bearko dot.

—Zegaitik?

—Zorrez bete nau.

—Orretara, barriro txalopara joango naz lotara.

—Ez. Emen daukazu oea.

Etxean be jaten emon nei zu lako bakar bateri.

Eta Anton poztu zan orrelako eskintza bat entzuten eta bera aurreratatu zan:

—Tratua egingo dogu?

—Ze tratu?

—Etxeko gora bera.

—Zelan?

—Ara, ni orain mariñel bat naiz.

—Bai.

—Bakarrik nago.

—Ba dakit.

—Ez dakit aurrerantzean zer irabazi neiken.

—Arrantzan txalopa batekuak danak bardin.

—Baiña ez dakit ordaintzeko aiña elduko naizen.

—Len be ordaintzen dozu.

—Nik etxearen eutsigarri izan nai dot, eta ez zor eragintzaille.

—Zer diñozu, Anton?

—Benetan.

Ia, egin eidazu eskabide bat.

—Nik?

—Bai.

—Ori nai ba dozu... Ara, oi dan arraiña etxera ekarri, eta soldata erdi ta pozik.

—Benetan?

—Ni bai. Orrela gu bizi eziñez aurkitzen ba gara, erriko beste gustiak be bardintsu agertuko dira.

—Ez dot uste asarre biderik emongo dautsudanik. Tratua tratua.

—Nik be mesede bat eskatuko dautsut: Zarrok ez doguz beti gure nerbixuak tentun baten eukiten, eta iñoiz...

—Zer? Aize parrastaden bat? Merezi ba dot, bear aiña.

—Iñoiz niretik urtenda, edo, eztakit zer esan be ba, zeuri min emoteko eran agertuko ba nitz...

—Besteak be eukiten ditue orrelakuak.

—Zuriegiz zagoz. Errukia artu daustazu.

—Ez.

—Sekula ez dogu ainbestean barbarik be egin.

—Igarten zendun txarto nebillala?

—Azkenengo arda zaragia neuk ordaindu neutsan, ba nekien bestela ez eutsula eroango mandazaiñak.

—Benetan?

—Esana lez.

—Orain zuri zorretan.

—Lengoak kittu.

—Ez!...

—Nik nai ba dot, zegaitik ez?

—Laster tabernaren errenta be ordaindu bearko dot.

—Egiña dago.

—Nok esan dau ori?

—Ori be igarri nebalako.

—Zelan kittutuko gara?

—Len esana, lengoak kittu. Eta ez geiago barbarik. Onelaxe geratu ziran Anton eta Petra.

Taberna lagaten

Petra'k laga eban taberna.

Besteren bateri aldatu barik, itxi.

Mintsu.

Ainbeste urte bertan, goizeko bostetatik gabeko amarretararte.

Bizi alargun lez.

Unerik latz eta gogorrenetan be, gizon baten laguntasun eta indar barik.

Ez zan asmotxa.

Ez eta lana errez eta arin ataraten oitua.

Berean, berekautan, bere bostean, bere ordu ta eraetan, bere taixu eta neurrietan.

Beretarra zan.

Berrogei urtetan lenengoko mai, aulki, tresna eta aukeraz egoan taberna.

Ta ezelako gaixo, utsune barik, bertan sartu eta berari lotuta bizi izan zan.

Goizean bostetan esnatu. Ziur.

Goizeko seiretan tabernan.

Ba eukazan arotz bi, lanean asteko berogarri zerbait bear izaten ebenak: Chinchon'go anixete kopatxu bana edaten joaten ziranak.

Eta gau zaindaria, «serenoa», goizeko seiretan bere lana amaitu eta etxera joan orduko, Petra'ren kontura, duban, pattarra edaten ebana.

Bear ba da onek ba eukan errazoi bat; Bera zan, alkar artu barik, oituraz edo berez, Petra'ren esnatzaillea.

Itxasorako deia, urak eta mare gora-berak zelan gertatu, ala jo edo egiten eben deilariak. Lenengo dei nautsia parroko ate zarrean mallu andiagaz jo ta gero kalez kale ibiliko ziran, maillu ariñagoekaz etxepe edo atadietako ate zarren bat jo ta deika:

Kose, jagi itxasorako Jaungoikuaren izenian!

Peru, ia gertu itxasorako, Jaungoikuaren izenian!

Goizeko ordubatak, biak, irurak... marea zelan gertatu. Bestela ezin urten al izango eben txalopak, ibaiko ur utsagaz bakarrik.

Eta mariñelak euskeraz egiten ba eben be, gau zaindariak, erriko zaindariak, erderaz jarduten eban:

Alabado sea Dios, ¡las cinco y nublado!
Alabado sea Dios, ¡las tres y estrellado!

Kantoi guztietan orduak emoteko agindua eukan, baiña erdietan lo konkorrean eskutuen baten lotan egoten zalako, ez eban bere zereginik sarri beteten.

Alkate barri bat konturatu zan.

Ez eutsan areri ainbeste ardurarik emoten, baiña erdaldun andiki batzun laguna zan lez, ortik jotzen eban adarrak. Gaiñera beti esaten ebillan emengo ume moquak kandelarik garbitzen ez ebela ikasiko, erderaz ikasi arte.

Bera izan zan zaindariari agindu eutsana goizeko ordubatetan asi eta bostetara ordurik deitu barik ez lagateko.

Sixto zaindariak garratz artu eban agindu ori. Ta bere puntxoari burdin zati barria ipini autsan, beko arrian ordua jotean zarata fiñago atarateko, ta... lo konkoretik atarateko or dok, esan, eta alkatearen leio aurrean egiten eban didarrik andi eta luzeena.

Ta! Ta! Ta!... beia jo ta.

Alabado sea Dios, ¡las tres y estrellado!...

Ordurik ez eutsan lagaten alkateari bere leio azpian deitu barik. Eta bere gogoia zana, esnatu eragin barik.

Norbaitek esan eutsan errotariarena. Zarata andi ta guzti be errotariak lo egiten dabela eguneroko zarata bar-diña danetan. Baiña aldakuntza txikien bat egin ezker, itxartu egiten zala.

Origaitik bera be ordutik ordura aldatzen saiatzen zan, batean ordu takadak atadiko arri landuan burdiñagaz jota, bestetan atea bera... ez bardintasuna billatu nairik.

Umore txarrez egoan egunen baten, kafre! deika urten eutsan alkateak leiora.

Sixto'k, barruko pozez, erantzun be bai: Kofrea izango da.

Eta alkateak amorruz: Kafrekin batzen dana kofre biurtzea ez da gaitz be-ta!

Konturatu zan alkatea, esan orduko, ain zuzen be bere familia zala errian kofre izen goiti edo deitura eukana. Eta kakaztuta geratu zala.

Baiña, «zibilizaziñoiko» dei a egiten jarraitzeagaitik, etxeak eukazan gela guztiak aldatu ba zitun be, nundik gitxiago entzun, bere aginduari eutsi nai izan eutsan.

Egunero deitzen eban zaindaria orduetako dei ori, goizeko bostetan, Petra'ren etxe azpian. Bigun eta leun.

Naiko izaten zan Petra itxartzeko, eta onek emoten eutsan eskubidea egunero pattarra artu ta... ba noa andreak ze egualdi daukan, esan eta joateko.

Sixto zaindaria izan zan Petra'k taberna sarratzea geien sentidu ebana. Amaiera on bat emoteko, maspitz edo orujo botilla bat etxerako kendu eutsan Petra'ri.

Jakiña, Petra'k bere bostean esan eban: Onek dauka

arpegiko narru lodia! Baiña zorrak errezago ordaintzeko bidea zala be pentsatu eban.

Kontuak atarata, amabostero orrelako botilla bat iruntsiten eutsan zaindariak, eta orregaz amaitzen zan katea.

Taberna laga ta egunetara be Petra naigabez eta erdi negarrez geratzen zan bere bezeroak kalean ikusten zitunean. Nora joan eta nun sartu eukiko ez ebela-ta.

Esan be egin eutsan Anton'eri, gertu egongo zala orrelako batzuei etxean jaten emoteko, eta oe bat edo beste egiteak emoten eban lana be oraindik erreza zala beretzat, eta andik zerbait atara al izan eta lagatea be...

Baiña Anton'ek ebagi eutsan.

—Tratua ez dogu egin?

—Bai.

—Ez da zure mesedegarri?

—Izango ez da ba!

—Orretara, lengo bidetik astekotan...

—Ez, bein-edo beingoz bakarrik, diñot.

—Bardin da.

—Berrogei urtek ten egiten dabe-ta...

—Ala ba da, lengo bidetik astekotan, nik be beste bideren bat artu bearko dot.

Gauzak lenengotik ondo erabagi ta kittu.

Petra'k ez eban jakin zer erantzun, eta ixildu zan.

Neska bat kalean

Andik laster zan.

Eleiz andiaren azpian,

Kantoipe izenagaz ezagutzen dan inguruan,
erribera eta nasa kalea igarota itxas alderago,
ondar egalean jasoten ebiltzan etxebarrien onduan,
an inãarduen langilliei lotsakor eta bildurti itaunka,
neska bat.

Oraindik eguna zabaltzeko.

Baltzez jantzita, goitik beraño,
zati biko jantzi luzeagaz.

Ez txukun, bai garbi;
ez barri, bai ondo zaindutako jantziekin.

Ule baltz luze, betien bete,
moño bitan batuta.

Arpegi zabal, biribil, agin eder, matrail urten,
sama zuri...

Umil, bildurti,
lotsakor, kezcati...

Ezker besotik dindilizka,
iru pikodon oialez egindako pardel baltza.

Bertan bere jantzi, pitxi ta oroitzak.

Petra eskatzen eban.

Petra Burgoa...

Galego sarratuan, ango nortasun osoz.

Eta gizonak:

—Au «euri arraiñen» odolekua da.

—Bai zera, molla barriak egitera etorteko diran portugaldarren baten etxeko geiago dirudi.

—Petra, Petra Barrakoa...

—Entzun? Barrakoa. Barra barria egitera datozenetakua.

Eta gizonak, neska ikusgarria zala ta luzatu aria.

Eta neskak, ulertu ezin eraginda, erdi salduta, kezketan asi eta estutu bere burua.

Burgoa'gaz kontu errezoirik ez eutsen emongo. Ez berialako baten.

Errian,, edozeiñek be, Petra Ostatu besterik ez ekialako. Eta gero Barrakoa esatean Burgoa'ren ordeztu be, erriaren beste egalera bialdu eben.

Ibili ta ibili, alegiñak egiñarren, neskak ezin iñundik agiririk emon.

Alako baten bere aita zorrotzaillea izan zala edo ta lapiko konpontzaillea.

erri ontara etorten zanean beti taberna baten egoten zala,

taberna ori, oker ez ba egoan, erriberan egiten zala nozbait entzuna eukala,

tabernako andreak Petra eukala izentzat...

ta konturatu ziran,
ta bialdu eben Petra'ren etxera.

Bazkaltzen egozan Petra eta Anton, etxeko sukaldean.

Atea zabaldu orduko, neskak:

—Petra?

—Bai.

—Petra Barrakoa?

—Ez, Burgoa.

—Egia, alaxe da.

Au da nasaitasuna!

—Zegaitik?

—Alako baten be. O Virxe da Franqueira!

—Zeuk esango dozu.

—Beraz zu zara Petra?

—Ta zu?

—Ni? Rosiña.

—Zein Rosiña?

—Rosiña Carreiroa.

—Ostatura etorriko ziñan? Kendu dogu.

—Ostatura ez, etxera.

—Nungo etxera?

—Onaxe. Geurera.

—Gure etxera? Zeiñenera?

Esango dautsut.

—Neska!

—Ez zendun ezagutzen Arturo Carreirola?

—Ez.

—Ezagutu bear.

—Leike, baiña ez naz konturatzen.

—Ene ba da! Arturo.

—Bai Arturo bat, txorrotzaillea. Ta lapiko konpon-tzaillea...

—Baiña Karrai-Olea zanik sekula ez neban jakin, esan be ez ebalako.

—Bera, ba, bera.

—Leike.

—Ostatuan egon da jakin bear.

—Premiñarik be jakiteko.

Ta?

—Ni aren alaba.

—Urte askotako.

—Eta zurea.

—E?

—Bai, ni zure alaba.

—Nirea?

—Bai, zure alaba.

—Ze sorginkeri da au?

—Baietz, zure alaba...

Ta ondoeza lakoa egin yakon Petra'ri.

Ittotasuna.

Mai gainean, ukondo artean burua artu, ta geratu zan.

Rosiña'k, urreratu, ta maitekeriz burua igortzi, laztandu,

—poztu zaite-ama—,

musuak emon,

—ez daukazu nigaz zetan lotsatu—,

bere arpegia Petra'renaz paretu,

—ama, pozik nago billatu zaitudanean!

Petra, burua makur, ixil, sinistu ezinda, negar eta negar.

Anton, ostera, berak sekula entzun ez eban etxeke alaba a an ikusteaz, zer esan eta zer pentsa ez ekiala.

—Eta zu,, onen semia?

—Ez... ni kalekua naiz.

Lenengo samiñak

Petra bere tontorretik urten eta itxartu zan.

Anton'eri begira jarri be bai,

zoli, mintsu eta beretik urtenda lez.

Baiña ezin eutsi, ezin iraun orrela begira.

Eta barriro negarrez asi.

Ez ekian Anton'ek zer egin.

Salduta eguan.

Petra'k ordurarte eskutuan eukan zerbait agertzen zan.

Mingarri etorkion jakitea.

Naiago izango eban ikustaldi a bera etxean ez egoa-
la egin izan ba litz.

Nai eta gero zerbait jakin.

Jatxi zan, Petra'ren aurrean jarri.

—Ba nua.

—Nora?

—Barriro txalupara.

—Nok esan dau ori?

—Gauzak zearo aldatu dira emen.

—Zer aldatu?

—Zer aldatu?

—Nik ez diñot ezer bizitzan gizonari edo andre bate-
ri gertatu leikezan gauzetaz.

—Ixil zaite Anton, ez sinistu ezer.

—Baretu zaitez, Petra.

—Dana da guzurra, dana guzurra.

—Ez diñot ezetzik be.

—Errez konturatuko zara.

—Edozer izanda be, ez da obe izango zuek biok kontu au zeuon artean garbitzea?

—Ez dala ezer. Zer garbitu?

—Nik ez daukat zetan jakin bear ba da biori mingarri eta... bear ba da lotsakor izango yatzuen gertaeren bat.

—Ez Anton, ez dago ezer. Sinistu!

Sinistu sekula onelako burutapenik be ez dodala euki. Zelan euki, orrelako baten sekula ez ba naiz jausi?

Egon, egon geldi, nasai, kezka barik, ardura barik. Laster ikusiko dogu. Sorginkerietan sinistu bearko dogu bestela.

Kontuak garbitzen

Negarrak gaindu zitun, alegin baten, Petra'k.

Eta beretik urten barik, bigun eta maitekor, ten-tun baten itz egitera beretu zan.

Berak esaten ekian, iñoiz gizonak tabernan asarre ebiltzanetan: Kontuz! Lenako Plakatxa'rena: Tentun eta zentzun.

Zeatz esateko, Plakatxa zarraren «erretolika» au ei zan:

Zentzunak tentuna,

tentunak zentzuna;
orreik ixiltzen dabe
gorroto dunduna.

Ala, neskari, aurrez aurre:

—Nundik zatoz?

—Compostela'tik.

—Oiñez?

—Erromes batzuk ekarri nabe.

—Onera?

—Itxasontzian Bilbo'ra.

—Norako?

—Abade batzuk eskatu eutsen, bilbotarrak zirala ja-
kinda, ni Bizkai alde ontara ekarteko.

—Abadeak zetan sartu ziran zugaz?

—Ni nebillelako esaten ama billatu bear nebala nire
bakerako. Ama billatu bear nebala nire osasunerako.

Kontu egin ni lako neska bakar batentzat amaren
itzala zer izan leiken.

—Ta abadeak zer ekien?

—Ezer ez areik.

—Zegaitik onera bialdu?

—Mesede egitearren.

—Zeiñeri?

—Nire, ta nire aitari, ta abade arei.

—Abadien mesedeak, opillak.

—Zer da ori?

—Ezer ez. Esaera bat.

—Nire aita...

Danak diñoe gizon on eta esanekoa zala, baiña zirikalari, edo akulari edo... Odol beroa beintzat.

—Leike.

—Santiago'n egon zan «botafumeiru»aren tengalari. Jakiña an ez eban ezer irabazten. Eguerdiko jana ospitalean, zeregin orren truke. Eta gabaz al ebana beste nuntaiten lortu bear.

—Bai, abadeak intzetzua emoten dabe, baiña il ondoren.

—Eta erdi janean bizi zan lez, zeregin bat ikasi eban: lapiko konpontzaille.

Txorrotzaillea deitzen eutsen, ta ez zan. Txirula jo bai, kale egaletan, baiña besterik ez.

—Ez esan. Ondo dakit.

Ta Bilbo'ra ekarri zaitue.

—Bai, itxas ontzi baten. Errromesen konturakoa zan. Santiago'ri beste promesa baten orde z nire osterak eurak ordaindu eben.

—Zenbat urte daukazuz?

—Jakin bear zenduke.

—Mesedez, itaunei erantzun, Ez daukat zetan jakin.

—Ogei ta bi.

—Urte ederrak

—Ederrak eta luzeak.

—Danak dira bardiñak.

—Ez naigabez beteak.

Len esana: aitag ez nindun ukatuten. Arlote samarra zan, baiña ez nindun ukatuten. Bera bakarrik ez zan jausi be ta orrelako naikerian.

—Beragaz bizi zara?

—Ez.

—Nun?

—Erri txiki baten. Santiago'ko torre ederrak garbi ikusten diran auzo erritxo baten.

—Ta aitag bialdu zaitu?

—Aita il zan.

—Arturo il zala?

—Benetan.

—Iñork ez dau esan.

—Bai, nire besoetan il zan.

—Ez zan oraindik zar.

—Irurogei urte, berak esaten eban lez, o oito de setembro, dia da Virxe da Franqueira.

—Gardotza'ko Amaren eguna emen.

—Eta zuk, zenbat?

—Bat geiago.

—Adin bardiñeko ziñen.

—Adiñak ez dauka ze ikusi egitadekin.

—Gixajoa!

—Egon zan emen aurten.

—Udabarrian.

—Bai, antxoa sasoiari.

—Antxoa jatera etorri nai izaten eban.

—Diru freskua egoten danean.

—Emen biarra billatzen ebala esaten ekian.

—Andrak etxeko pota zar guztiak barriztatu nai izaten dituenean. Zuloak, kirten barriak, txaplata geigarriak... Danetarako batzen da, sasoi aretan, dirua.

—Pozik etorten zan.

—Ori bere gauza zan.

—Bere alabaren ama ikusteak ilusiñoia egingo ez zaitzan.

—Gurean tabernako bezeroa zan eta kittu.

—Baiña, ama...

—Mesedez.

—Zegaitik ezaupidea luzatu?

—Nik tabernatik kanpora ez neban ezagutu.

—Orretara tabernako alaba neike.

Ia tentuna galdu eragin eutsan erantzun onek Petra'ri ta onek zorrotz:

—Luzeezi zoaz eta ixilik egon zaite.

...

—Zelan il zan, ez bearrez?

—Ez.

—Gaixoz?

—Bai.

—Denpora luzez ez nunbait.

—Ba dira ille bi.

—San Joanetan, orretara.

—Ba, inguru orretan. Santiagoak baiño iru aste lena-
go.

—Kolore itzaleko ba zan, baiña...

—Etxera joatean alboringoa aldian ebala eldu zan.

—Uda sarrerako sargoren baten.

—Leike.

Eta konturatu barik il zan.

—Auzokoak?

—Iñor ez zan ausartu osagilleari deitzen.

Inguruko andra batek ba ekian nire barri. Areri es-
ker ikusi neban.

Deitu ta joan nitzan.

Eriotzarik sekula ez neban ikusi ta ez neban pentsa-
ten ilgo zanik.

Eta bera, beste gauza guztiak aztuta,

nire kezka ikusten zan,

nire arduraz bakarrik,

eta niri eskutik oratu ta kontuak esaten asi zanean,

berak be ondo ezin esan eta nik be ondo ulertu ezin,
biok keixu, estu, nerbixuak geiago eginda...

alaxe il zan nire besoetan.

—Jaunak gorde dagiala.

—Betiko gorde dagiala.

Eta Petra, errietako andrarik geienak errezatera dauken erruki indarrez; itxasertzeko andrak berez dauken errezatzearen oituraz...

berekautan,

beste zer esanak bastertuta,

unetxo bat ixilik egotera eioalakuan,

otoitzean asi zan besteak erantzutera beartuz.

Eta zeruak errukitu zitun eta inpernuak bildurtu, eta garbitokian sartu eban Arturo, an uleak erre ta ugarrak zuritu ondoren eriotzako patroi guztien artean zerura jaso arte.

...

—Gizon ona zan.

—Gizon guztiak dira onak, besterik agertzen ez dan artean.

—Zegaitik diñozu ori?

—Alaxe dalako.

—A beintzat langillea zan.

—Galegoen pazientziaz.

—Ori bai.

—Plakatxa zarrarena barrero: Galegoen pazientzia, miserikordia.

—Santurik ez ei zan egongo zeruan Santiago'ren pazientzirik egon ez ba litz.

—Moroak ilten ondo estu ibili ei zan, ba!

—Zintzoa zala esaten dabe, nire aita, bere ordaiñetan.

—Bai, bereari ten eginda.

—Zelan?

—Gizonak sarri oi dabena: egin lan izerditan eta diruak jokoak ipini dantzan.

—Zorrik ez eban lagako.

—Lapiko zarrrik ez yakon falta bere aldeko tratuetan.

...

Gogo txarrez ikusten zan Anton, andra biren erdian, orrelako jardunean.

Barrero, joan egin bear zala esaten asi zan.

Berak ez eukala zetan iñoren konturik jakin.

Eta alkar arteko jarduna, luzatzen ebiltzalakoan egoan, ixillekoak bere aurrean agertzeko arretaz.

Jagi zan.

Petra'k, mesedezka eta erreguka, geldi eragin.

—Sinistu, Petra. Nik ez daukat gogorik, ez eskubiderik, zuek euki zeinkezan eskutukoak agertzen bildurretan ipinteko.

Egin nai aiña negar, egin nasai, barruak nasaitu arte, errezago baretuko zarie-ta.

Ni emakume izan ba nitz be...

—Mesedez, barriro, Anton. Nik ez daukat lotsakorik, niri dagokidanik ez beñik-bein.

Ziur egon zaite orretaz.

Eta naiago dot-eta, laga egidazu, arren, zure aurrean auzi au tentun bate argitzen.

Ez euki nire ardurarik. Nasai egon. Etxean zagoz...

Petra'ren nortasuna

—Nok esan dautsu zu nire alaba zareanik?

—Esan, garbi, zeatz esateko, iñok ez.

—Orrela dala?

—Baiña bai pentsatu eragiteko bestean.

Aitak beti esaten eustan:

Egun baten Bizkai aldera eroango zaitut.

—Noiz ori?

—Azken bost-sei urtetan, urtero.

—Eta ekarri ez.

—Zoritxarrez ez.

Onantza etorranetan, ni ikustera joaten zan, ille batzutarako urteroko osterara egin bear ebala-ta, bein ango

lurtxoak erabili ezker, an udararte zer egiñik ez egoalako.

Gogoan daukat zer esaten ekian:

—Aurten, berandu nabil, prisaka nua, baiña beste urteren baten...

—Beti urrengorako laga.

—Ba daukat gogo.

—Ez nik aiñakoa.

—Andra on bat erakutsiko dautsut.

—Andra onak, zorioenez, gizonak baiño geiago.

—Ibillaldi luze bat egingo dogu.

Nik neurean ekingo dausat. Eta zuk, bizibidea ortan ba zendu lez, olezko oiñetako batzuk eroan ezker, iñor be konturatu barik bete ziñei zeure ametsa.

—Bizkai aldera zegaitik?

—Dirua dago an.

—Jan kostuen truke.

—Eta... eta... maitasuna billatu ziñei bertan.

—Nik gizonen maitasuna baiño len, ama batena eza-gutu eta sentidu nai neuke.

—Batera billatu ziñeiz biak.

—Bizkaitarra al naiz?

—Ni araiño joaten naiz.

—Eta ama bizi al da?

—Igaz bizi zan.

—Ikusi zendun?

—Bai ta ez.

—Zelan ori?

—Ikusi bai, egon ez...

Ia, ia ibillera onetan zure autu au konpondu ez da be, konponketa bidean ipinten dodan.

...

Eta beti bardin biurtzen zan.

Beste urte baten eskabidean.

...

—Nik zure izena gogoratzen neban.

—Zetatik?

—Berak esaten ekialako:

Ni luzeen joaten naizen tokian,
ia Frantzia'ko urak eta mendiak ikusteko lurralde eta
itxasertz polit eta ondartsu baten, antxe egongo gara
egun batzutan.

Andre on bat erakutsiko dautsut.

—Eta ortik igarri ni naizela?

—Andre onek etxekotasun bereziz artuko zaitu, alabatxo baten antzera artuko zaitu.

Garratza dirudi izakeran, ardurabakoa lez, baiña
iñoiz eta ezetan ez zaitu lagako okerrean.

Orrela jarduten zan bera.

Eta nik igarten neban, andre orrek, alako etxekotasun jator bat eukala beretzat.

Erriko taberna dauka, geitzen eban.

Erri txikietako edozein taberna lakoa. Gizon utsentzat, gizonentzat bakarrik gertua.

Baiña zuri, ziur egon, etxea lagako dautsu.

Eta etxeko gabiñetea oak beteta dagozan garaian ba goaz be, billatuko dautsu oe bero bat.

—Eta ama?, itanduten neutsan nik.

—Andik baiño urrerago ez dozu beste iñun billatuko zure ama, berak erantzun.

Nire aitak galegoen pentsakera eta burubidea eukan,
galegoen odol ibiltaria erabillan,
eta beti morriñaz beteta igarten zan.

An egoanean emen ibilteko garretan,
ta emen gertaten zanetan ara biurtzeko kezketan.

—Ez dakit ori.

—Ondo dakit nik.

—Larrikeri andi barik ibilten zan emen.

—Gauzak neurritz artuta, ziurretik, ori ez dot ukatuko.

—Gurera jota, edozetara be gauza garbirik ez eutsun esan.

—Bidea emon bai.

—Bide ori zela artu izaten da.

—Berak nire ama zanaren borondatea edo makurpe-
na ikusi arte, ez eban ezer egin nai.

—Ta zure ustez, ni naz zure ama.

—Nire ustez bai.

—Barrero ez dozu esango olakorik.

—Barrero bardin diñot.

—Baiña nundik norako sinistez?

—Biotzaren sinistez.

—Berba egin daigun garbi. Ez asarratu.

—Ez neuke nai.

—Emakume zara.

—Bai.

—Ba dakizu ume bat egiteko zer bear dan?

—Berez jakiten da ori.

—Ba dakizu ume egiña dan andreari, nai ta ez, igar-
tea errez dala?

—Ala uste dot.

—Ez dogu geiago alperriko barbarik egingo.

Aukeratu zeuk nai dozun emagiñen bat.

Billatu ta ekarri, nai ba dozu, ortan jakiña dan gizo-
nen bat. Barberoa, odol ataratzallea, medikua, edozein.

Ikusi naguela, ta eurak esaten ba dabe, iñoiz umeen
bat egiña naizena, eta ainbestean ez esan da be, iñoiz ibi-
lia izan naizela bakarrik esango ba lebe be, berba emoten
dautsut: amatasunik ez dautsut ukatuko.

Leio ondoan egoan Anton kalera begira.

Erdi lotsatuta.

Bizitzan orrelako gertaerak zelan agertu ezin iruntsi-
ta.

Rosiña, mai ondoko aulkian, bera begira, nasaituz
aurrera etorkiozan uleak, tartetan, atzera bota nairik,
adore barik, bizitasun barik,
zerbait esaten asteko argitasun barik,
urteera bidezko bat ezin aukeratuta.

Bere artean:

Bizkaia... Ia Frantziako mendi eta urak ikusten dan
tokia...

Taberna, erriko taberna...

...etxea lagako dautsu...

...andik baiño urrerago ez dozu billatuko zure ama...

Guzurretan ete dabil Petra au?

«Ikusi nagiola... ikusi nagiola...»

Zemai bat izan lei, bildurtu eragitearren.

Arrokeri bat izan lei, bera garbi geratu naian.

Indarkeri bat izan lei, nik auzi au bertan bera laga
dagidan.

Gure don Kaio'na egia ez ete da? Kontuz arroekin,
erdira ekarri euren arrokeriak. Baiña kontuz apal eta
umillekin be, erdira jaso euren apalakeriak...

Bera ez da ukatzen.

«Ibili naizela bakarrik esango ba lebe be...»

iño! ainbesterik Maria Madalena berberak be ez ei eban esaten, «ibili naizela bakarrik esango ba lebe be... amatasunik ez dautsut ukatuko».

Ibili bakarrik!...

Virxe da Franqueira!

Kostaten da ba!

Ez da ba erreza!

Gogoratzen?

Igaz, zure egunean,
ama billatu arte beintzat, amaren barri jakin arterarte,
promesaz lotu nitzan, gizonik nigan ez ezagutzeko pro-
mesaz... ta jai bertan, zure eguneko jai bertan, illuntzeko
erromeri ostean, arimenak jo ta laster, konbentuko sa-
kristauak ia ia bere isopoagaz izorratu nindum.

Beste bikote bat billatu gendulako, txarto pentsatea
ez da izango zeregin bardiñean ebiltzala, lar osteko bedar-
tzan, eta zelatarien batzuk ziralakoan igeska asi ta ni
etxera, erbia baiño bizkorrago ta a, iñok ezagutu baiño
len, itsumustuan, bere serotetxera.

Itargi barria zalako eta illunegi egoalako... ba, sor-
ginkerian amaitu zan.

Bat batean:

—Eta andrea...

oraindik amatzat zaitudan andrea...

—Oraindik?

—Bai.

—Esanak esan da be?

—Zuk esandako esan orreitan indartuta, argitasun orrein billa asiko ba nitz...

—Jakiña, edozein neska etorrira ni ez naz jarriko gizonen azterketetan.

—Atzera?

—Atzerarik ez. Baiña zuk be aurrez agertu bearko zenduke benetan be Arturo'ren alaba zareala, eta ondo ziurtatu bere odola daroazula.

Kanpotik kanpai otsak.

Sei dangada jarraian.

Eleizakuak.

Beste iru, doiñu berean.

Eleizakoak eta azken igortza, oleaziñoia.

Petra, adi:

Ordu onetan eroateko baten bat ez dago manu.

—Kendu Anton. Ez da kaletik ezer igiten?

Zabaldu leioa. Norentzat dirala diño?

—Ez da iñor agiri.

Bai, an dator atsoen bat. Baiña ezagutu be ez da egi-ten. Ixilik dator, kandela eskuan dakarrela.

—Onuntz etorriko da orretara gure Jauna.

—Egon. Entzun. Txilin otsa gero ta urrerago dator. Bai, onuntz datorrela dirudi.

Laster agertu leike, ba dirudi keixu, arin datorrela.

Begira. Or aurrean, Barbara'nean sartu dira.

—Ai ene!

Joan bear nitzan da!

Nire aizta Barbara'ri daramotse Jauna!

Nun nabil, ni, esan be egin dauste-ta, txarto egoala?

Ta Petra, dana egoan bestean laga, ta aldatu be barrik, etxetik urten zan.

Alkarri begira

Anton leioan geratu zan.

Ez zan andik ñora aldatu, ta ez gogorik ez eukalako.

Andik ikusi eban Petra, kalean gora, bere aitzaren etxera joaten.

Eta konturatu zan, baita, bi irutan gora begiratzen ebalá, an ete egoan ziurtatu nairik lez.

Anton biurri egoan, ala geratu bearrean.

Rosiña aulkian.

Onek be ez ekian ez zer esan, ez zetan jardun, ez nora joan.

Lenengoz ikusten ziran.

Ez euken ezelako artu-emon ez alkarren barri txikienik be.

Ezagutu be alako gertaera bakan aretan.

Ez ekian Rosiña'k Anton Petra'ren zer zan.

Anton'ek be orduntxe esanagaitik ekian neska a zeren billa ebillan.

Ez zan bera neskakin atsegiñez eta al eban orduko egoten zale zana.

Origaitik begiratu be ez eban egiten sukalde barrura, bear ba da alkarri begira gertatu, eta zerbait esaten asi bearko ziralakoan.

Estul txikien bat be egin eban Rosiña'k mutillari barrura begiratu eragitearren.

Laster igarri eban Anton'ek zegaitik izango zan, baiña beretik ez zan aldatu.

Rosiña asi zan:

—Min emon dautsut?

—Ba!

—Ulertu nazu?

—Ez.

—Zelan ez?

—Ba ez.

—Baiña nire gertaera ezagutzen dozu.

—Esan lez ba da, pixkat.

—Eta nire jokabidea ulertu bear.

—Danok ez gara bardiñak.

—Zer esan nai orregaz?

—Danok ez doguzala gauzak bardin erabagi nai izaten.

—Zer esan nai orregaz? Txarto nabillela?

—Bizitzan zoro ez dala izan bear.

—Beti entzun izan dot maitasuna zoroa dala.

—Baiña ez zorakeria.

—Karailu, orretara ni zoro nabil?

—Zoroen bidean.

—Zegaitik?

—Zentzunik agertzen ez danetan, burua galduten ibiltzen dalako.

—Zitala zara.

—Ez.

—Akularia.

—Ez dot uste.

—Zoritxarrik ez dozu ezagutu nai.

—Nireak gainduten alegindu nitzan.

—Gizonak al dozuelako.

—Andrazkoak guk aiña.

—Bizitzak ez dauka zuentzat eskutukorik.

—Ba dirudi andrak kenduta ezetz.

—Andrekin burukomiñen bat euki dozu?

—Bakoitzak daki bere barri.

—Ezkongaia daukazu?

- Neska geiago dagoz errian gizonezkoak baiño.
- Ta zer?
- Bakoitzak daki zer.
- Galegoak esaten dakie mutxilloiak txirlen zai egoten dakiela.
- Guk euskaldunok esaten dogu, ostrak pitxien zain egoten dirala.
- Zelan? Ez dautsut ondo artu.
- Lapikoan indarrak bein egosita obe izaten dira, birritan eginda baiño.
- Gaitz da zuri egala billatzea.
- Orretara barrurik billatzen be ez asi.
- Nik ez dakit Petrarena zer zarean.
- Ezer ez.
- Seniden bat?
- Ez.
- Senitartekoen batena?
- Ezetz.
- Ortara, zetan zagoz emen?
- Itandu dautsut zegaitik ez zarean geratu zeure etxean?
- Ez zaite asarretu.
- Ez eragin.
- Ulertu nagizu.

- Gaitz.
- Amarik ba daukazu?
- Ama barik iñor ez da jaioten.
- Ezagutzen dozu?
- Ez.
- Ezagutu zendun?
- Bai.
- Ta?
- Aldendu zan.
- Il?
- Ez dakit.
- Ikusten dodanez, biok egoera batera gagoz.
- Ez.
- Biok ama barik.
- Zuk diñozun lez zuk ba daukazu ama.
- Sinistuta nago.
- Amen.

Aldebanatu naian

Etxeak ez eukan barruko aterik.

Uztarriak, markoak, bai.

Ta sukaldekoan ezik, beste bitarteak goitik bera etorran eun lodiz estalduten ziran, ate orde.

Sukalde zabala, tabernako ontzi, topin, lapiko, pedar eta abar alkarren gain bertan.

Arasa zar bi, zabala bata, idegia. Bestea ateduna.

Beko sua. Su aurrean etxeko kez gaztain kolorea artutako iru aulki. Zizaillu txiki bat alboan.

Suburdinak eta subarra, kedarrez beteak. Auspoa.

Egaletan, edozein tarte beteten, kurtzailluak, pedarrak eta pitxarrak, txiliña, kobrezko potiñak, kandelerak.

Dindilizka, opil burdiña. Bai eta taloparea be.

Tresna ugari.

Intsentsua be tartean, zatitxotan, usai txarrak kentzeko.

Sukaldearen atzean, Petra berberaren gela. Esateko, etxeko gela.

Zabal-une bat lagata, «gabiñetea», oe zabal andi bita komora bana alboetan.

Oeak, edozein etorrita be, gertu.

Baten, ostatua kendu zanetik, Anton'ek lo egiten eban.

Pozik joango zan ara.

Garretan egoan eta origaitik asi:

—Ez asarretu.

—Zegaitik?

—Nire oera nua.

- Nekatuta?
 - Erdi.
 - Ta beste erdi?
 - Gogaituta. Egia.
 - Ez naz zuretzat atsegin.
 - Ez dot pentsatu.
 - Igarten da.
 - Zer nai?
 - Neska zara ta neska lez ondo ikusten zaitut.
 - Eskerrikasko.
 - Amaren billa zabiltzan neska lez, zabiltzan lez...
 - Ez nabil ondo?
 - Komedi bat izan leike.
 - Sinisgogor! Nire trajedirik ez dabiltzu.
 - Eta egia ba da?
 - Ez ezpairik.
 - Petrarena egia ba litz?
 - Zin egiten dot nire alegiña be egizkoa dala.
- Ez dakit zegaitik alegindu biderik ez jarraitzen.
- Itxi egidazu berba egiten.
 - Nik diñodana ontzat artu lenago.
 - Erantzun lenengo.
- Galazitik aizeak ondo dabiz aurten?

—Zetan dator ori?

—Aitaren eriotz ondoren, nor geratu zan bere ondasunekin?

—Nire aitaren ondasunik andiena izerdia zan.

—Izerdia berez likiña izaten da. Ta otza.

—Bakartadean bizi zara arrezkero?

—Ametsetan! Amets illunetan!

Negar eta amets.

—Eta zeñeri esan zure negar muxingak?

—Izeko zar bateri. Ta abadeari.

—Auzoko abadeari?

—Santiago'ko katedraleko bateri.

—Ta sakristauari ezta eskiñi.

—Sakristaua ez da angoa, gure erritxuko konbentukoa baiño.

Ai ni, mantsin au! Zetan nabil ain gauza bakan eta burubakoei erantzuten?

—Zeuk agertu dozu sakristaua maite dozula.

—Erromeriko kontuak dira orreik.

—Erromerietan ez da dantzan egiten nai danagaz.

—Gizonak ez dozue esaten, ba, zatarrenagaz egiteko gertu egoten zarela?

—Lengora jota.

Zegaitik bialdu zaitue abadeak amaren billa? Sakristauagandik aldendutearren ezin lei izan?

—Zer pentsaten dozu, kaleko neska bat naizela?

—Danok gara kale zaleak.

—Baiña... ulertzen dozu, esan nai dodana da...

—Esan bear dana garbi esan eta kittu. Bat eta bat bi, emen gagozanon antzera. Irugarrenik ez da lotsatuko.

—Irugarrenean jo eban Kristo'k lurra.

—Nik uste dot, zuk be, irugarrenean, uts egin dozu-la.

Ni beintzat amaren billa ez nitzake ibiliko zure antzera, lenen billatzen dan emakumeari musuka eta loxintzetan.

—Mutil zarealako ta olakorik iruntsi ez dozulako.

—Mutillak be neskak aiñako buruaustek eukiten doguz.

—Parkatu, nire oera noa Petra etorri arte..

—Zure oea daukazu?

—Etxeak emoten dabena.

Nunbaiten etzan bear da.

—Nik ez dakit emengo barririk.

—Beti ez da gaua aulkian jezarrita igaroten.

Ba dira toki neketsuagoak.

—Ez dakizu beste oeren bat ba dagon?

—Berea.

—Amarena?

- Bai. Esan nai dot Petrarena. Eta nire ondokoa.
- Utsik dago zure ondokoa?
- Euskaldunak ez dogu oituten gela baten neska mutillak lo egitea.
- Zer dauka orrek, banatan egin ezkerro?
- Ez gagoz emen sukaldean aurrez aurre?
- Bai.
- Ta?
- Oiturak zeozegaitik sortuak izaten dira.
- Dana da zelan artu.
- Ala izan leike.
- Eta erantzi edo ez.
- Ez daukat probarik.
- Galegoak bizitzako barri asko dakigu. Gure ibilte amorruren ondorenak.
- Ez dakit ba.
- Ezpai barik.
- Zein ez da gaur ibiltari?
- Galegoen aiña ez beste iñor.
- Txirla ta bieirak zer egiten dabes.
- Ez naz konturatzen zetan datorren itaun ori.
- Galegoak txirla ta bieirekin lo egiten ei dabe. Ze-gaitik?
- Ur bedeinkatu ontzi biurtzen diralako gabetan.

- Ta odolak baretu.
- Gurari txarrak uxatu.
- Nok diño ori?
- Erromesak esaten dakie.
- Ori sinistu leiken euskaldunik ez da sortu.
- Nik diñodana au da:
Zelai baten alkarren alboan etzan leike.
- Ikusi bear zelan.
- Eta sabai baten alkarren urrean lo egin leike.
- Zelan ikusi bear.
- Galizi'n ez legoke erromesentzat tokirik orrela egin ezik.
Orrela dala, zegaitik ez etxe barruan?
- Etxean be egoten da.
- Zegaitik ez gela bardiñean?
- Dirudianez zuek Galizian, moroen txilaba lodiak oraindik zuri daukazuez.
- Esan nai dodana au da:
Zu ta ni ezagutu ez ba gara, gogorik ez ba dogu, asarre ba gara...
- Mesedez, orixegaitik, ez eidazu burukomiñik eka-
rri. Ez dakizu odolak su barik irakiten dabela?
- Ez laga berotzen.
- Errez esaten da.

—Surik ez dagon lekuan, kerik ez.

—Mesedez!

Egizu zuk lo... ez dakit nun, edonun.

—Ori. Esatea lez, geratu zaite or mai buruan.

—Nik neure lekuan egingo dot.

Gero arte. Nire gelara nua.

—Ori da esatea: Bakea nai dot eta zagoz ixilik. Beti-koa!

—Alaxe da.

—Gizonkeria da ori. Ori ez da ez kate ta ez karidade.

—Ez artu bear orrela.

—Oneri, gure errian, ondo nadin ta izorratu adi, esaten dautse.

—Galeguak ba dauke fama esne txarrekoena.

—Guk fama. Baiña agiri da nun dagon lana.

Atsedean bearrean...

Bere oe ganean etzan zan Anton.

Oeko estalgarriak erabili barik. Jantzi ta guzti, Petra etorri edo agertu arte.

Rosiña sukaldean.

Laster zan inguruetara begira.

Ango lapiko eta topiñen txaplatak, ango konponke-
ta askok, bere aitaren gogorapena ekarten eutsen.

Negar be bai, maite-miñez, orrelako oroitzakin.

Eta bere bostean, galegoz: Ai se todos fosen tan an-
xeliños coma ti. Boeno muller, boeno!

Eta ixil-mixiltsu kantaten asi zan, edozelako kantu
bat:

O Pedriño manxador
chegou a perder o unto,
levárono a Santa Comba
cun hábito de difunto...

Ixildu zan.

Anton'ek dana entzuten eban barrutik.

Ezin esan errukitzen ez zanik, edo egoera orrek zer
pentsatu emoten ez eutsanik.

Rosiña bildurra galtzen asi zan.

Zelatadaka ibili zan, batera begiratu, beste pitxien
bat ikusi, tresnaen bat eskutan erabili, sutako egurrari
bultz, indar geiago artzeko.

Bere aitak konponduak ziran lapiko txaplata batzuei
musuka be ibili zan.

Eta Petra'ren gelan zer egon ete eikean jakin miñak
suspertu eban.

Etsi eban zirikada ori lenengotan, baiña bein biztu-
ten dan sua, gero ta indar geiago joaten dan lez, bere begi-
tada eta ikusbide guztiak orretaxe eioazan.

Zelatada bat egin eban.

Ez zan ausartu sartzen.

Kurtzaillu argia artu ta ara begira ipini eban, sukaldeko arasa gaiñean.

Meza liburu lodi bat ikusi eban komoda zarraren gaiñean.

—Anton!

—Itxi eidazu baketan.

—Itaun bat.

—Arin.

—Liburuen bat ba daukazu?

—Irakurten ez dakit. Zuk be ez.

—Ez. Egia. Baiña ez daukazu?

—Zetarako?

—Ikusteko.

—Petra'k euki lei or.

—Sukaldean ez.

—Bere gelan.

—Ekarriko daustazu?

—Sekula ez naz sartu bere gelan.

—Gela andia da.

—Zelan dakizu?

—Argiagaz ikusten nago.

—Olakorik ez dozu egin bear.

Iñoren etxean zagoz.

—Nire amaren etxea noiztik da iñorena?

—Ez jarraitu.

Irakatsi ederra emon dautsu len.

—Liburua artzera nua.

—Ze ikusteko?

—Santiago gure patroia billatzen ba dot, berari begi-
ra errezuan jarduteko.

Ikusi makusi

Bildurrez, baiña Petra'ren gelan sartu zan Rosiña.

Aurrez leiotik kalera begiratu eban, iñor ikusten ete
zan edo ba (ete) etorren.

Gelan, bere gelan, bere etxe eta mundu zan gelan,
Petra'k berrogei urtetako bizitza gordeten eban, bere bizi
guztia an eukala ez esatearren.

Bere santu santak, errosario andi luzeak, pitxiak,
jantziak, oialak.

Jantzi ta eun-gaiak, izara eta abar, komoda irikie-
tan.

Gain gaiñetik begiratu zitun, azaletik, dardarati, bat
edo besteri begiratzen denporarik galdu barik.

Etxeetako tresna, gauza eta bear-izanak ziran, eder-
gailu bat edo beste tartean zala.

Komora gaiñean, egurrezko kurutze baten onduan,
eleiz liburu lodi bat.

Zan bestean eta beste ainbeste lodituta egoan barruan sartuta eta banatuta eukazan irudi edo estampa, bertso paper, zugatz orriekaz itxuratutako kurutze, kuttun, eskapulario eta antzerakoz.

Artzeko garra sentidu eban. Artu be bai eta beragaz sukaldera joan.

Ez eban ezelako aterik zabaldu, ez ate bako komodaen oialik jaso, zer egoan ikusteko be.

Ba egoan kutxatxu bat, egurrezko kutxa polit bat, baiña itxura baten giltzez itxi edo zerratua egoan.

Oraingoz naiku eban liburua.

Sukaldeko maia garbitu eban lenengo, ango koiperik ez igarteko be.

Lenengo, orririk aldatu barik, bakoitza bere tokian lagata, osotasun bateko begirakada egin eban, zer egon ete eikean zusman.

Edozein andre eleiz-zaleen oroitzak. Denporetako oiturak. Ilen oroigarriak.

Irudien artean an etorran Santiago be. Eta ikusiaz batera alako barruko poztasun bat artu eta berari musu emon eta otoitzean ekin eutsan.

Andik geroago, barriro asieratik atzera arakatzean, irudi edo estampa zar bat billatu eban.

Papera bera orituta egoan eta agiriko zan urte askotako irudia zala.

Botafumeiro andi bat Santiago`ren aurrean, alderdi baten. Eta atzean, beste geiagoko barik, izan bat: Arturo Carreirola.

Goitik berako arradak erdi gaixotu eban Rosiña.

Sinistuten gaitz, ametsa zalakoan.

Begiratu, begiratu... Ez ekian irakurten nekez baiño, letraka baiño.

Alaz eta ez egoan ezpairik. Arturo Carreirola. Izki nausi edo maiuskulakin eginda, bere aitak egiten eban lez.

Ori ziurra zan beintzat.

Aitak ez ekian idazten beste erara. Izenpetu be, firmatu be, izki andiekin ozta-ozta egiten eban, geiago ikas-teko beta ez gogorik euki ez ebalako.

Zegaitik gordetan eban Petra'k bere eguneroko otoi-tzetako liburuan, bear ba da urtien urtetan, bere aita zanaren izen da guzti, bere errialdeko, bere Galaxia'ko estampa a?

Rosiña poztu zan.

Arnas zabala zan ori bere asmoentzat.

Petra eta bere aitaren arteko artu-emonen agiri bate-gaz jaubetzen zan.

Eta geiago pentsatu barik, geiagoko ardura barik, Anton'en gelara joan zan.

Bete betean sartu.

Utsik egoan ocan belauniko jarri.

—Zetan zatoz?

—Ez bildurtu.

—Ez dot nai, ez dot nai onelakorik.

—Egon zaitetz nasai.

—Kanpora, mesedez.

—Gauzatu bat erakutsi bear dautsut.

—Lenengo kanpora.

Ta gero, iñoren gauzarik ez daukat zetan ikusi edo jakin.

—Petra`ren barruko gauzatu da. Bear ba da barru-barrukoa. Niretzat... argia! Zeruko argia!

—Zer?

—Begiratu.

—Edonun dagoz orrelako irudiak.

—Baiña ikusi. Irakurri atzean.

—Ez dakit irakurten.

—Nire aitaren izena.

—Zeiñek ipinita?

—Berak, ziur.

—Ta zer?

—Ez dautsu onek ezer agertzen?

Zegaitik gordeten dau Petra`k, nire aitaren izena?

—Zorren bat gogoratuteko, bear ba da.

—Ez. Eleizako liburuetan ez da zorrik gogoratuten.

Ara or agerkai bat.

Ara or nire aita eta Petra`k alkar arteko zerbait euki izan daben ezaugarria.

Ez dago ezpairik, Anton. Au ikusita ez zalantzarik euki. Argi dago dana.

—Ostatuko ezaugarria izan lei.

—Ez. Ez da ostatuko ezaugarria.

—Zegaitik ez? Etorreraren bateko oroitza.

—Ostatuan beste ainbat igaroko ziran. Ez? Ez zan nire aita bakarrik egongo.

Eta bestienik ez dator ezer.

—Zer dakizu zuk?

—Emen dago testigantza.

—Bakoitzak bere lurraldeko oroigarriak ostatuan lagatea, ez da beste munduko gauza.

—Ez.

—Murtzianuak tantzak lagaten eutsazala ba dakit. Eta zer! Eleiz liburuan gordeko zitun aren oroigarri lez? Bakoitza bere tokian eta kittu.

—Ez aitzakirik billatu. Ez ibili ingurutatik. Au argi dago. Ai onela ba litz beste gauza guztietan!

Pozik nago, Anton. Sinistu.

Uste bako gauzak

Gure antxiñakoak gure zarrak, lotsa eta begirapen andia eutsen gaixoen egonaldi garratzei.

Ingurutako zaratarik txikiena be uxatzen alegintzen ziran, batez be bein eleizako eta azken igortza artu ondoren egozan gaixoen etxe ingurutatik.

Azken orduetan gaixoak euki egian bake ta ixiltasunaren premiña, beragaz euki eikean berekotasun osoaren bearra, gauzarik oi eta deduzkoentzat ezagutzen zan.

Edozer eginbear ingurutan gertatuta be, atzeratu egingo zan gaixoaren estualdia igaro arte.

Gaixoari bakea, gaixoari kalterik eza, gure gurasoen eskintzarik onena zan.

Origaitik, gau aretan, itxasora txalopak urteteko deia kalez kale jo ebenean, ez eben jo Petra bizi zan kallean, antxe bixi zalako Barbara gaixoa.

Eta Anton gogoratu be ez zan egin, bere gertaera aregaz, itxasora joan bearrik egon eikeanik be.

Rosiña Anton'en oe ondoan jezarrita egoan. Ekin eta ekin, bere autuan.

Beretzat, burutapenik be ez eukan-eta, ez egoan beste konturik bere amaren gora-bera baiño.

Eta bein liburu aretan irudi ori billatu ebanetik, bere jardunaldi guztia ortatik erabillan.

Orrela egozala, bat-batean, aterik jo barik, sasoi aretan etxeak edozeiñentzat zabalik egon be egiten ziran-da, Mikol, txalopako mutillik gaztena eldu zan.

Etxeak giltzik ez eukan. Egurrezko kixket bat bakarrik, eta bera be zabalik egoan lez, etxean sartu eta bat batean, lenago iñoiz egin eban lez, gelara sartu zan.

Etenda lez geratu zan, berbarik ezin asmatuta, Anton'en gelan beste emakume a ikustean.

—Anton, e...
—Zer Mikol?
—Ez... ez...
—Zer ez?
—Ez nekien andrerik zeukanik.
—Eta ez daukat, Mikol.
—Eta... eta...
—Zer eta? Esan nasai.
—Ama... ama...
—Zer ama?
Esan, ez dagola ondo?
—Ama bi bi...
—Ama billatu dabela?
—A...
—Ez bildurtu, mutil. Zu ez zara olako.
Nun billatu dabe ama?
—Nun?
—Ta, zuk be ez daukazu amarik eta, zeñen ama?
—Ez. Ama...
—Nasai, artu arnasa, esan...
—Ama... bietan i... i... itxasora.
—Kontxo!
Itxasotea dago?

—Bai.

—Amabietan?

—Bai.

—Ta ze ordu da?

—Jo dabe.

—Amabiak jo?

—Ez, erdiak.

—Amabi ta erdiak?

—Ez, ama... amaika ta erdiak.

Eta beste barik, lotsakor, gauza andia ikusi ba leu lez, berak alako lotsabagakerien bat egin ba leu lez, Mikol zurbil eta larri urten zan kalera.

Anton sutu zan.

Ez ekian zer egin.

Zelan laga bakarrik Rosiña etxean, berak ez ekian Petra'k zer naiko eban eta?

Eta zelan laga itxasora joateari?

Rosiña'k ten egiten eutsan.

Ez eban nai berak be bakarrik geratu.

Anton'egan entzuten ekian mutilla billatu eban. Beintzat bere buruaustea ezagutzen ebana.

Ez ekian oraindik Petra'k zelako erabagia artuko eban. Nai ta berak, bere eritzian, eskubide guztiak artze-ko aukera euki, bildur zan Petra'k etxetik kanpora atara-ko ete eban.

Konturatu barik gaba eldu yakoen.

Ez ekian errian beste ostaturik ba ete egoan be.

Emakume bakarra zan.

Mendi bizitzara oitua. Mendiko bakartadeei bildurrik ez eutsana bere erritxoan.

Damutu zan lenengotik ortara jokutzen asia be. Konturatzen zan obeto egingo ebala egun bat edo bitan, ostatu lez, beste era batera bizi.

Baiña bere izatea alakoxea zan. Bete betekoa. Ezer eskutatzen ez ekiana. Idegiegia, neska izateko. Edozeiñek txarto pentsateko erakua. Baiña berak ez eukan lizunkeririk, bat batekorik beintzat. Ez eukan gorriñarik. Zintzoa zan eta zindoa.

Anton, Rosiña'ri ezer esan barik, kalera urten zan. Barbara'ren etxera.

Barbara bera be ikusi eban, azken arnas estu garratz eta zurru larritsudunetan.

Begiakin begiratu eutsan, eta gora begiratz, ba eioala agertu nai izan eutsan.

Bere esku otz, izerditsu eta mea estutu eutsan Anton'ek.

Petra'ri deitu eta agertu eutsan zer gertaten zan.

Arek be, ala gertatu bearraz asarrea agertu arren, ordu aretan iñora bialtzerik ez eban oniritxi.

Beste lagunik ez egoan lez, berak, Barbara'k, azken arnasa ikusi barik etxera joaterik be ez eukala ta bere gela eta gizonen gela bitartean egoan lekutxoan bertako oe txikia zabaldu eta antxe gelditu erazteko agindu eutsan.

Edozer izanda be bere aitzarena okerrago zala ta eroapen orregaz gelditu zan Petra.

Orrelaxe, agindu ori bete, oe txiki a nun egoan Rosi-ña'ri erakutsi eta bere itxas otzara artu eta kezka larrian eratsi zan Anton Trintxan bera kaira, ordurako txalopak, eta beria be, urtenda egongo ziralakoan.

Zurru-murruan

Mikol, txalopara eldu zanean, lenengotan ixilik egon zan.

Egun argiz izan ba litz urteera, bera be barruan joango zan. Alaz eta oraindik premiñak bete eta bear izanak osotu eta antzerako zeregiñetarako egoan.

Beste txalopak urten eta orduak aurrera igarrita, patroia be kezkatuten asi zan, eta gertuteko agindu be bai Mikol'eri, bestela itxasotea galduko ebela-ta.

Orandik be barrukoak itaunka asi yakozan:

—Ba dakizu ziur berak zer esan daben.

—Ba dator ala ez?

—Ba... andreagaz egoan-da.

—Anton andreagaz?

—Ezkondua da, ala?

—Ba, beti lez ateari bultz egin eta bere gelan sartu naz, eta andra bat egoan bere ondoan. Konturatu barik sartu naz.

—Petra izango zan.

—Izeko Petra?

Izeko Petra nor dan ez dakidalakoan?

—Eta nuntarra zan andrea, emengoa?

—Ez neban ezagutu.

—Zar ale gaztea?

—Nik zer dakit ba!

—Bizarrik ba eukan?

—Nun?

—Txo! Oraindik argitzeko?

Gauzak nora eioazan igarrita, Mitxel patrioiak sentzuz eta zur esan eban:

Mutillak, txikotik ez luzatu, gero be zimarroirik ez da faltako-ta.

Guk, beintzat, arenik ez dakigu ezer, eta ez dot uste oraiñarte ezer esateko biderik emon dabenik be,

eta au, oraindik... aienak erreten oraintsu asia da.

Ta kontuz!

Lenago be, iñoiz egon izan dira kakaztuta geratutakoak, guzurraren erruz.

Atzekuak ori esanarren, an iñarduen batzuk zurrumuruan.

Ez ebillan oker Anton bere pentsabidean.

Ain zuzen be bera ebillan txalopa geratzen zan kaian. Minutu bat atzerago eldu izan ba litz, itxasotea galdu egingo eban. Danak bere zain egozan.

Burua makur sartu zan.

Txalopan oiña ipini eta bere tostan (jarlekuan) jarri orduko, patrioiak: Ia mutillak, atzetik guaz eta alegin pixkat bestien aldera eldu arte.

Ondo asi ziran.

Rau, rau, rau... danak batean, neurri bardiñean.

Ixilik.

Ordurarte sekula berba biderik emon ez eban lez, ez ziran besteak ausartu Anton'eri ezer esaten.

Orrela eioazala, ia barra urteeran, Anton'eri estropuak urten eutsan ziritik, toletetik, eta erramuak uts egitean, besteen neurria galdu egin zan.

Erdiko tostan jarten zan beti Anton. A zan berea. Eta bere atzean, tanbuletean, Peru.

Gizon zazkarra zan a. Eroapen gitxikoa. Soiñez be baldarra eta zikiña.

Bere zatarkeriz, brasta-brasta esan eban:

—Bai illuntzean ondo ibili be, pultsoa galtzeko bestean. Esneak batzen? Nire antzera mutilzar ba zengoz...

Anton keixu egoan eta kiriotsu be bai, beragaitik orrelako zerbait gertatu bearraz.

Estropua bere tokian sartu orduko, zutik jarri, atzera begiratu eta Peru'ri, zital eta erreta: Zu-zeuk sekula ez dozu ezelako utsik euki?

Eta Peru'k: Zer euki nik, indarrak lodi dagozanean beratu eragiteko zure antzera andrerik be ez ba daukat?

Zorrotz sartu zan atzekoa, patrioia: Ia gizonak,

emen ez gabiltz legorrean, olgetan. Emen itxasoan goaz, eta itxasoan ez dot nai alkar arteko eztabaidarik.

Eta bere nortasun eta aginpidez ebagi eban, aizetzen laga ezkeru, bear ba da arin berotu eta igarri barik sutuko zan egoera larrien bat.

Betiko itxastarrak

Itxasoan ez zan ezer gertatu.

Eguna igaro eben.

Aize-olatu apur bat, bere indarrez belaren laguntza be ondo etorkioela, eta Santa Kataliña'tik urrundu barik eldu yakoen eguerdia.

Illuntzera baiño lenago etxeratu bear ebela ba ekien.

Ez ebillan arrain askorik. Zimarroi banakak. Eta asko agertuta bear ba da gaua igaroten an geratuko ba ziran be, ez eben orren premiñarik ikusi.

Seiñeruak deitu eutsen alkarri, eta sartzeko mare egokia kontuan eukita etxerako aldara egitea erabagi eben. Orrela erriko txalopa guztiak ia alkarren parean edo alkarren jarraian jarri ziran.

Olakoetan ba ekien txalopak bata bestearen ondoan jarri eta etxerako estropada asmatzen.

Txaloparik geienak ildakoen oroiz, arimen lotsaz, euren izena eroaten eben. Erderaz gaiñera, bear ba da erroleko legeen baten araberan.

Ala San Pedro y Animas, San Andres y Animas, Ntra. Sra. del Rosario y Animas eta antzerako izenak zitu en danak.

Baiña arrantzaleak eurak eta erriak, izen orreik ezin iruntsita, beste era batera ezagutzen zituen: ontziaren jaube zan senitarte edo familiko izenetik: Orrela Kurtzailu'nekua; Ubilla'nekua; eskribadukua.

Eta oraindik be, patroiak be ba euken entzute eta nortasuna, eta beste batzuk lemazain edo patroien izen edo deiturretatik aukeratzen eta ezagutzen zituen: Mitxel zarraren txalopa; Andres Toba'rena; Txanton Txitxarro'rena...

Anton ebillana, San Andres eta Animas zan. Jaubetasunez, familiz, «Kurtzailu» nekua. Bere zuzendari edo patroia izenez, Mitxel'ena.

Nai ta zarrenetako ia izan, patroia ona zalako, esaera zarra beteten zan bertan: Patroi onak erramulari kezkarik ez.

Bai eta beste esaera esan nai andiko au be: Erramulari onak popako txintxurra beti gogor.

Batak edo besteak, txalupa batekoak edo bestekoak, ia alkarregaz etxeruntz etorten ziran lez, joaldien bat egin nai izaten eben, euren ibilleran, eguneroko ekinbear orreri poztasun eta berezitasunen bat sartzeko be.

Askotan, ibili ordez;

bestetan, alkarri adarra jo edo aixaxaka ibiltearen truke;

edo sagardauegian danentzako sagardau trago banagaz galtzailleak ordaintzekotan.

-12 Egun aretan be, Mitxel eta Ganix patroiak, euren txalopakin, alkarren pare gertatu ziranean, Ganix'ek, zirikalarri, enbidoa bota eutsan Mitxel'eri:

—Lau pitxarra sagardau, danontzako, bost treñeruen bitartea kendu ezetz!

—Beti aurrez eskutik jokatuta?

—Amabi lagunen artean bosteun eta ogetamar urte batzen gara.

—Gurean amar geiago errez.

—Ia ba. Iru txalupa kendu ezetz.

—Guazen, guazen baketan, bakoitza bere tankeran.

—Atzerik erakutsi ezetz, treñeru erdi izan da be!

—Ganix!...

—Orixe, atzerik erakutsi ezetz.

—Giroa be ez dago gaur orretarako.

—Patroi makalak aitzaki ta esanalak, lenakoena.

—Ia! Birritan esaten ez ausartu gero.

—Birritan eta irutan be esantzat artu.

Ez eukan gogo andirik, baiña Mitxel gerrikoa lotu, txamarra kendu, bere erramuari begiratu... igarten zan jausiko zala.

—Bai ala ez?

—Ezetz esaten be aspertuta nago ni.

Aurretik atzerako erramulariei deika asi zan. Ez ba-koitzaren izenez edo deituraz, bakoitzaren jarrilekuak eukan deitura ezaugarritik baiño.

—Zer diño aurreak?

—Aurreak berea egingo dau. Aurreak ez dauka atzerarik.

—Eta kontrailak?

—Nik biazatuna atarata be neurea egingo dot.

—Eta kontraburuak?

—Onezkero, potto atara eragin arte... Bat geiago ez gara etengo.

—Eta espaldakuak?

—Ni gaitik nai dana. Euki be ba daukat orko bateri txil esan eragiteko gogua.

—Kontra espaldak?

—Bestien odolak daukadaz nik.

—Saldokiak?

—...

—Ixilik?

—Lekeitiarren berbakin zatoz zeu be ta!

—Zegaitik?

—Noiz deitzen dautse Ondarroa'n saldokia erdiko tostari?

—Dana dala. Ulertuko eban, nunbait. Baiña ala esan bear ba da...

Zer erdiko tostak? Gaiñera erdiko tosta, sagaltokia ez da ba?

—...

—Sorbaldak jaso?

—Orren bildurrik ez euki. Burukominak kentzeko be komeniko yako orreri estrinxada bat, ankakuak.

—Tanbuletak?

—Jo ta apurto, kontxo!

—Bernielak?

—Atzekuak agintzen dabena.

—Eta mastetak?

—Beste pitxarra bete gure alde nik, neuk ordainduta.

—Treintokikoak?

—Aparitarako gogua egiteko be ez da txarto etorri-
ko.

—Eta zuk, ankakoak?

—Ba dakizu niri bestiei irri egitea atsegin yatala.

—Zer da ori?

—Ba irabazteko gertu egoten nazala.

Erantzun orreik artu eta patroiak Ganix'en ontziari
deitu eutsan:

—Gertu?

—Zelan da?

—Portuko sarrera zeinek lenago artu.

—Portuan sartu ala sarrera artu?

—Oi dan lez, sarrera.

—Eta zer jokutzen da?

—Lau pitxarra sagardau ez dozu esan?

—Ez dago atzerarik.

Asi eta jo.

Eta beste barik, alkarren leian, alkar zaintzen,
jo ta jo, ekiñaldi bizian, patrioiak agindutako paladen
neurrian, ordu erdi baiño geiagoko estropada setatsuan.

Iñoiz olerkarien batek esana dan lez:

Ontza gutxien aldea dute
ontziak ontziarekin;
gizakiena berdindu dute
indarren aldearekin.
Patrioiak ez du gutxien eiten
neurritz keiñatzearekin,
eta, batipat, biotz eman ez
noiz-beingo oiur beroekin.

Alaxe izan be.

Lagun onak eukazan Mitxel'ek.

Baiña Ganix'ek aurrea artu eutsan. Aren didar eta
oiuak, aren agindu eta alegiñak!

Itxasertzetik barrurago eioalako, barruko aizeak
obeto laguntzen eutselako, aize olatu makalerako bere
txalopa biziago be ba zalako, berak artu eban, treiñeru bi
lentxuago, barrako sarrera.

Guzurretxe'en egozanak be igarri eben euren artean
ekarren estropada eta arin jetxi ziran be aldera.

Patrioi batentzat beste treiñeru batek atzea erakustea
zotin eragiten dabena da.

Mitxel'ek, alaz eta be, adiskidetasunez deitu eutsan
Ganix'eri eta biaramonean sagardaua edatekotan geratu
ziran... «aizeak burua artu baiño len».

Txalopatik urteeran, Mitxel'ek Anton'eri:

- Ba daukat zugaz berba egiteko gogua.
- Itxasoko gauza da?
- Ez eta bai.
- Nai danian.
- Berandu da ta... biar goizean?
- Nun?
- Ementxe, txalopa onduan obetoen, ez?

Utsunea

Etxera eldu zan Anton.

Kezkati. Dardaraka.

Zer entzungo edo ta zer ikusiko.

Milla pentsabide erabili zitun itxasoan.

Eta ez eban ezer billatu.

Berak urten ebanean lez egoan etxea.

Berak lagata lez oea. Zerbait naastuta igarten zan, baiña ez ete zan izango beragaz egon zan artean arrotua?

Bestea, oe txikia, berak Petra'ren aginduz Rosiña'ri eskiñi eutsana, egin barik. Itxuraz, zabaldu be barik.

Petra'ren gelara begiratu, ta iñor ez.

Komoda gaiñean, an egoan liburua.

Lenengotik euki eban gar pixkat barruko irudiak an ete egozan ikusteko. Eta antxe egozan, osorik, Santiago'ren orria eta Arturo'ren izena ekarren irudia.

Batetik nasaitu zan, eta bestetik kezka geitu.

Itxasoan zimarro bi arrantzatu zituen. Bost-edo seik jo, baiña bi barrurako. Besteak iges.

Saltzera ataraterik ez ebal merezi eta amabi lagun ziran lez, zimarro bakoitzagaz sei zati egin eta bakoitzari bana, agindu eban patroiak.

Eta lenago iñoiz egin eben lez, tostartekorik zarrena atzera begira ipini, eta patroiak bana-banaka zatiak artu, au zeiñentzat deitu, eta zarrak esaten ebanari emoten eutsan.

Orrela buztan zati biak azkenerako laga zitun, eta ain zuzen be zarrak bere eta patroiaren izenak azkentzat laga zitulako, «azken datorrena buztan» esaera gogoratu eta artu eban patroiak berea.

Anton'ek etxerako eroian zatia sukaldean laga eban, kaku batetik dindilizka, karkabatik sartu eikean katuren batek eroan edo zatitu ez egian.

Ezne otz pixkat edan, eta etxetik kalera urten zan, zer jakingo, gaba egin baiño len.

Kalean aspertzen asi zan, iñor bertatik igaroten ikusten ez ebalako.

Atso igar eta makur bat ikusi ebanean, beregana urreratu eta itandu:

—Bizi da?

—Zein?

—Barbara.

—Kanpairik ez da izan beintzat.

—Eriotzarik ez dabe iragarri, orretara.

—Gaur kanpaiak alper eguna euki dabe.

—Obe, ez?

—Obe... Ez dakit zer esan. Bein larogei urte ezkeru, kanpaiak danontzat jo bear leuke.

—Danontzat?

—Zegaitik ez? Gor ez ba da itsu, itsu ez ba da erren, zer daukagu emen pozgarri?

—Danak nai izaten dogu bizi.

—Zer lortzen dogu pobreak ainbestean bizita? Etxerako zorra ta lorra.

A zeru eder a dagola jakinda, emen bizi?

Arrituta geratu zan Anton gertaera orregaz.

Abadea ikusi eban Barbara'ren etxetik urteten. Ez zan ausartu beregana joaten zelan ete egoan itandutera. Umetan abadea lagun izaten da.

Gero, bizarrak urteteen, bitarte andia zabaltzen da abadearen eta mutillaren artean.

Ori igarten eban beragan.

Andik laster, etxe bertatik neska gazte batek urten eban. Ez eban ezagutzen.

Bidera urten eta asi yakon:

—Arratsaldeon, edo illuntzeon.

- Bardin da. Kaixo Anton?
- Ezagutzen nazu?
- Ezagutu ez, geure txalopan zabiz-eta?
- Niretzat...
- Arroegi zara neskei begiratzeko-ta!
- Ni?
- Emengoak baiño andiagoen bat nai?
- Nik?
- Ostatura erbesteko neska lirain bat ekarri dozula diño.
- Nik? Nik ekarri?
- Elgorriak danok joten gaitu-ta!
- Azpaldi igaro neban elgorria.
- Baiña ba dakizu, elgorria edo odolena berotasuna. Ori be legekua da ta...
- Mesedez, gauzatxo bat jakin nai neuke: Barbara bizi da oraindik, ez?
- Biziko dala be ba diño.
- Petra or dago?
- Petra? Ez dakizu ala?
- Zer jakin?
- Ordu erdi da itxasotik etorri naizela eta iñor ez dago etxean.
- Ez dakizu burutik berakoa emon eutsanik?

—Petra'ri? Nun?

—Nok zaindu ez eukalako, erriko gaixotegira eroan eben.

—Noiz izan da ori?

—Goizaldean.

—Gaur?

—Noiz ba?

—Egia, bart etxean egoan da.

—Ba dakizu gure amuma zarrak zer esaten ekian? Bein familian txiliña jo ezker, kanpaiak bere burua agertu nai izaten dabela ta orra.

Ez zan ausartu Anton Rosiña'gaitik ezer itanduten.

Eskerrak emon, barruraño sartu yakon bere irribarre ezitsua artu ta erriko gaixotegira joan zan.

Andren tokian gizezkoak sartzea galerezota egoala eta ez eutsen laga Petra'rik ikusten.

Bai, orde, itxaropen aizeak emon.

Nekearen ondoren zala, atsekabe batzuen lorratza zala, baiña ba etorrara. Argitzen asia zala. Ez ebela uste oraingoz beintzat ortik joango zanik.

Orregaz nasaitu egin zan Anton.

Eta esan be egin eutsen ostatuan egoan neskatilla, gau ta egun, obeto esanda, goizalde eta egun an egon zala bera zaintzen.

Gaixotegiaren kontura egozan serora zarrak pozik egozan beragaz. Berari esker, andrea zaindu eta garbitu al izan ebela.

Izan be gaixotegia, ospitala, ez zan gaixotegirako sortu; zarrentzako, ezelako laguntasunik ez euken zarrentzako atsedeen toki baiño.

Edo ta itxasertzean ainbat bidar, itxasoaren ondarendien ondorenez, kalean geratzen diran umezurtzen lenengo denporak zaindu eta zuzenduteko baiño.

Orrelako barriak jakinda, etxera joan zan.

Sukaldean sartu zan.

Laratzean, topin bat. Esnea.

Gose zan.

Egun neketsua euki eben, arrantzan lenengo ta gero egin eben estropada lakuan.

Bezperatik be atsedeenik artu barik egoan.

Su illa egoan.

Bezperako berdel zati bat billatu eban, arasan. Errea zan, ozpiñetan gordea.

Ondo etorkion.

Arrautzak be billatu zitun, eta bi iruntsi, berrialako baten, gordiñik.

Arto zati bat be ba egoan.

Laratzean dindilizka egoan topiñetik esnea edan eta artoa jan ta asetutzat geratu zan.

Ardaurik ez eban billatu. Bai orde z pattarra. Baiña ez zan orrelako zale eta gindadun pattarretik apurtxo bat edan eban.

Oean sartu orduko, etzan orduko, lo geratu zan.

Lo luzea euki eban Anton'ek.

Lo baketsu, nasai, atsedengarria.

Goizean esnatu, jagi, garbitu, sua egin eta esnea berotu ta irakinduta, gozaldu ondoren, ze barri ete egoan jakin nairik kalera urteteko zala, Rosiña agertu zan.

—Ba dakizu, ez?

—Zerbait.

—Ama obeto dago.

—Zeiñena?

—Gurea.

—Gurea?

—Nirea bai beiñik bein.

—Ez zure ta ez nire.

—Ez nago orretara.

—Ori be norberekeria da.

—Ez daukat ukatzeko.

—Denpora izango da testigu.

—Testigurik onena, Galazian esaten dakie, fedea.

—Edozelan dana sinistutea ez da fedea.

—Ori biraoa da.

—Txotxinkeriak.

Petra obeto dagola esan nai dozu?

- Ez zaite olako.
- Ekin zureari.
- Gure Santiago'k ekarri nau.
- Ekarri edo bialdu.
- Bardin da.

Arek emon dausta azken orduan ama ikusteko grazia.

- Graziak gatza bear dau.
- Karailu! Ez zaite irrika asi.
- Gatzak ekarten dau irria be ba!

—Ni, gabea, Santiago'ri eskerrak emoten egon naz, nire eskintzarik biozkorrenagaz amari laguntzeko zoria izan dodalako...

—Obe.

Berbarik egiten dau?

- Bart illuntzean asi zan berera etorten.
- Zuri zeuri egin dautsu?
- Lenengo irribarrea niretzat izan zan.
- Ezagutu bai?
- Lenengotik.
- Ta?
- Nun dago Anton? Ori izan zan lenengo berba.
- Gogoratu zan.
- Iru lau bidar be zure kezka agertzen eban.

—Ta esan zeuntsan nun nengoan?

—Itxasoan.

Ta berak:

—Zaindu egizu, zaindu ondo.

—Aleginduko naz.

—Iñora ez daitela joan. Etxean gelditzeko.

—Eta zu?

—Laster, laster osatuko naz eta antxe berba egingo dogu, geitu eban.

Guzurretxe'ko autuak

Etxetik urten eta portura joan zan Anton.

Oraindik ez zan ara agertu Mitxel'ik.

Txalopara begiratu, bananduta egozan erramuak tolestu, bela bat be bastertu aizeak erabilli ez egian... Ta Mitxel agertzen ez.

Andik Guzurretxe'ra.

Ba ebizan batzuk pelotan.

Begira egon zan.

Ez ebillan bere ezagun jatorrik. Gazteagoak ziran an iñarduenak.

Agure batzuk be an egozan. Zer egiñik ez eukenak:

Millan golodun gizona, bozioduna, Errian Millan Paputs.

Kose, txatxarra ta igarra, baiña edozeiñeri adarra joteko gose.

Andres, erdi gangar eta erdi kasket.

Salomon, izenez Erramon, baiña edozegaitik be errazoa atara bear izaten eban lez, edozer be ziur berak ekiala-ta, origaitik Salomon.

Jokoak ez eutsen tenik egiten eureri, ebiltzanak makalak ziralako.

—Gaur itxasoterik ez?

—Ez.

—Bare dago ba.

—Ala dirudi.

—Uda erdian onela lotuta...

—Atzo geratu giñan gaur ez urteteko.

—Ze galdu gitxi?

—Arraiñikiz ez dabil.

—Negurako «allimo» ona.

—Len be geiago izan dira neguak gose-neguak.

—Ez zenduen ezer begiztatu?

—Sei ikusi ta bi artu.

—Zimarroiak?

—Bai, zimarroi txikiak. Etxerako modukuak.

—Arrain txikia ugari ei dabil da.

—Ori gure kaltea.

—Ala esaten da.

—Arrain txikia dabillen artean, aren atzetik dabiltz andiak, olgetan lez, eta gure amuetako malutei mu egiten dautse.

—Estropadan etorri ziñen atzo.

—Denpora pasa.

—Ta treiñeru bigaitik jan egin eutsuen Ganix'ek.

—Bai. Bi aiña ez, baiña berak aurretik.

—Zer jokatu zenduen?

—Sagardaua.

—Kontxo! Gaur ba daukagu arratsaldea nun emon.

—A bera emon ez da gero!

—Ze ardura, geu gara ordaintzeko-ta?

—Zeuk be tenik egiteko gogorik ez ei zendun euki.

—Nik tenik ez nebala egin?

—Ala esan eban zuen tanbuletekuak.

—Peru'k?

—Gaiñera, andrea ekarri dozunetik, indarrak makal-tzen igarten ei yatzuz.

—Datorrela, ta berak bateko nik bi egiten ez ba dodaz, beretzat joko.

—Zetan?

—Nai dabenetan.

—Ori jokatuko dautsu.

—Zer jokatu arek?

—Nai dana.

—Mingaiñez.

Arena ba dakigu. Arentzat bardin da zein erramua uretan erabili, zein urari laga erramuagaz ibilten.

—Orretarako ez dago.

—Miiñean daukaz arek indarrak, miiñean.

—Naiago neuke emen ba lego.

—Zetarako? Gizonaren alak, euren tokian barik, beste nunbaiten darabillazala konturatzeko?

—Ez dautsu ori entzuten.

—Neuk esan dodala jakiteak, ni beintzat ez nau damutuko.

—Emen ibili zan a esaten, danak santutzat euki zaituela.

—Santuak domu santuruetan eta eurak be obeto azurrak gozo biurtuta jateko.

—Laga orreri.

Santutzat euki... baiña mamuan mamuan klausk egin ei dozu.

—Nik?

—Ala diño.

—Zegaitik eta zetan?

—Iñork ezer jakin barik andrea be ba zendulako.

—Andrea nik?

—Ostatuan ez zara beragaz bizi?

—Ni andreagaz bizi?

—Lengoan emen ei ebillan, goizeko ordutako kalean, baltzez jantzita, ostatuaren izena ezin gogoratuta. Obeto esanda, Petra'ren izena ezin esanda.

—Zein?

—Ez gabiltz ba esaten zure andrea?

—Nik ez ba daukat iñor!

—Andrea edo dana dalakua. Emea beintzat.

—Erri au zoratuta dabil.

—Okerrago, andre orde, alboratutakoen bat ba da, arrimatakoen bat ba da.

—Ori be esan eben.

—Baita esaten eben andre..., ulertzen dozue ez?, ba andre aretxek baiño gizon ozkillak aluago dirala.

—Zeuk ez esan edozer.

—Eta besteok bai?

—Ta, bein esaten asita...

Ia Millan, zuk dakizu zer esan eben be.

—Ni orretan, eskribadua lez, don Millan naz gero. Begiratu bestela nire paputsei. Belarri batetik sartzen dana gordeten dakidalako da au. Ez zuen antzera, batetik entzun orduko bestetik atara ta zabaltzen alegindu.

—Aizerik botaten ez daben gizonik ba dago, ala?

—Ori be ementxe entzun neban bein. Serorak, monjak, ez ei dabe aizerik botaten.

—Egia da ta!

- Areik zera...
- Areinak ez dira aizeak, neuk dakit ondo.
- Aizeak ez eta zer dira ba, Salomon?
- Zizpuruak.
- Ba, lengora jota... Esango dot?
- Zetan kopletan ibili?
- Bear ba da jakin be egingo zendun, onezkero.
- Ez dakit zer izan leiken.
- Zuek ikusita ittotasuna etorri ei yakon Petra'ri.
Orren ondoren, burutik berakoak emon.
- Bai, gaixotegian dago.
- Andrea, zure andrea, keixu ei egoan noiz berera etorriko zain.
- Leike.
- Esnatzen asi eta ikusi orduko, andik kentzeko-ta asi ei zan, begien aurretik kentzeko-ta, berak ez ebala nai iñogaitik inpernura joan-eta.
- Emen esan dabe ori?
- Bai.
- Zeiñek asmatuta?
- Kanpaiak berez ez dabe jotzen, ten egin ezik.
- Itxasoan esaten dana: Uretan bitsa ba dago, ez dago kalma zuri. Au da, zerbait egongo da.
- Uste dozue?
- Esaten danak balio ba dau...

Lotsatuta urten zan Anton Guzurretxe'tik.

Bere nortasuna galduta.

Gizon geldia zala, kirioz beteta.

Beretzat, ordurarte, Guzurretxea, lagun arteko toki izan zan; pelotan izerdi batzuk atara, alkar arteko zemai txikien bat erabagi, ta kittu,

Ez zan konturatu bere beste kontuekin.

Bear ba da berak be erabili zitun, an bertan, kalean erabilitako autuak.

Baiña berari ikutu arte, ez zan konturatu ango autuak, biribilduak, edo puztuak, edo egizkoak izaten zira-nik.

Eta ez zan bakarra, miña emon arte ikutu eragiten eutsana. Ez zan gauza eta kontu bakarra artegatu eta saminduten ebana.

Rosiña'gazko artu emonak...

Guzurrak danak.

Baiña bere izena aidean erabilten ebenak.

Olakoa ete zan Petra'rena?

Guzurretxe'tik gaixotegira joan zan.

Zaindariatako serora zar batek urten eutsan.

—Petra?

—Obeto dago.

—Egon neike?

—Beragaz? Oi! Gizonezkoak ezin sartu, baiña, andrazkoen gelan.

—Zegaitik ez?

—Agindua dago.

—Zeiñena?

—Erriko gizonena, edo abadiena, edo... Kofradiko maiordomuarena.

—Zegaitik?

—Ba dakizu, gela zabala, idegia dalako.

—Ta zer?

—Andrazkoak ez dira beti gizonak ikusteko eran agertzen, eta egon be egiten.

Au, gaixotegia deituarren, zarren egon-lekua da.

—Andre zar bateri, zer dautso gizon batek? Edo ta gizon bateri, zer dautso andre zar batek?

—Ai ene! Zar txotxinduak be egoten dira-ta...

—Iñor ba dago gaur?

—Ez. Ain zuzen be denporaldi onetan bi bakarrik dagoz. Eta ortuan dabiltz.

—Lanean?

—Bai zera. Zerbait egiten daben lakuan, ez-egiten.

—Orretara...

—Gaiñera, zu zer zara Petra'rena?

—Ezer be ez.

—Senitarteko be ez?

- Ez seme, ez senide.
- Orrela gaitzago.
- Baiña ni bakarrik bizi naz beragaz. Ni bakarrik.
- Beragaz bizi zarela ta bakarrik?
- Bai, bera ta ni bakarrik.
- Atzo egon zan bere alaba be.
- Alaba?
- Ezagutzen ez?
- Nok diño ori?
- Berak esaten eban.
- Erbestean bizi zala azpaldi, baiña alaba zala.
- Zuk zetaz daukazu Petra?
- Gu neskatilla zalakoan gengoan.
- Neskazarra.
- Jesus!
- Irurogetak urteko mutilla zer izaten da?
- Mutilla ba da, mutil zarra, jakiña.
- Ta neska?
- Neskak... neskak ez dira bardiñak.
- Dana dala. Nik Petra ikusi nai dot.
- Ezin.
- Ikusi nai eta ikusi bear dot.
- Baiña, gizon...

—Gizon nai mutil. Kartzelara eroaten ba nabe be, edozer egin da, be, ez daust ardurarik.

—Nik be ezin ezer egin.

—Nun dago gela?

—Jaungoikuagaitik!

—Jaungoikuagaitik beste gauza asko egin bear dira. Ikustaldi au lagatea lez.

Eta Anton sartu zan.

Serorea atzetik, bildurretan:

—Egon, egon... Iñok ez dagiala jakin. Danontzako okerra letorke.

—Datorrela mundua bera be!

—Egon pixkat, mesedez... Oea txukundu daidan be, egon, mesedez.

—Ortarako ba da...

—Bera be gertu daidan. Bat bateko ikustaldiak, gertaera barik, zotin eragin leikio. Mesedez!

Petra eta Anton bakarrik

Petra'k Anton ikusi ebanean, arrada lakoa igarri eban bere gorputzean.

Negarrez asi zan.

—Anton! Erdu biotza! Zelan konpondu zara?

—Ondo.

- Bai gero? Kezka orregaz nago.
Noiz jakin zendun?
—Bart, itxasotik etorrieran.
—Apaldu zendun?
—Esnea ta artoa. Ta arrautzak.
—Dirurik ba daukazu?
—Ez.
—Ba dakizu nireak nun gordeta daukadazan?
—Ez esan.
—Janariak erosteko premiña eukiko dozu.
—Norbaiteri eskatuko dautsat.
—Zetarako?
Ara...
—Ez esateko, mesedez!
Etxera zatozanean, ba dakit esango ez dozula.
—Ta osatuten ez ba naz?
—Nireak ez dira.
—Nire borondatea zuretzako da.
—Ta Rosiña?
—Nik ez daukat arekin ezer.
—Benetan?
—Zer benetan?
—Egia da zure alaba ez dana?

—Zetarako ukatuko dautsut, ain zuzen be eriotza ain urre daukadala?

—Bera ez dago orretan.

—Ez neban naiko esan?

—Petra, egia esan bear dogu. Eta ez mindu.

Oraintxe bertan esan dauste, nigaitik gaixotu ziñala.

—Nok esan dau ori?

—Rosiña etxera ekarri nebalako gaixota ziñala. Zuk ba dakizu nik ez dodala ekarri.

—Bai, Anton.

—Eta aregaz zerbait euki ondoren gaixotu ziñala.

—Etorri bearra, etorri bearra, Anton.

Ez bestelakorik buruan artu.

—Ez zendun ezer euki beragaz?

—Aiztaren etxera, Barbara'ren etxera joan eta ez nitzan nirera biurtu. Aizta odola jaurtiten ikustean, barruak artu, estutu eta an etorri yatan ittotasuna.

—Egia?

—Izango ez da ba? Nik ez daukat zure aurka ezer. Ziur egon.

—Eskerrak.

—Etxean egon zaitezala nai dot.

—Ta Rosiña?

—Bere bildur zara?

—Kaleko bildur naz.

- Ez jaramonik.
- Ba dakizu zelako erria dan gurea.
- Txarrik bakoa.
- Benetan?
- Brasta brasta edozer esan, eta gero parkatu jauna, sarri.
- Baiña iraiñak jo egiten dau, jo.
- Egia.
- Neska ori dala ta be...
- Ba dakizu zer uste dodan?
- Esan.
- Neska orren ama leike gure errian egotea.
- Benetan?
- Orren aita, gixarajua, berba labana zan.
- Galegoa.
- Ao gozoduna, ori bai.
- Ezkongaia zan?
- Alarguna, nire ustetan.
- Ikasia.
- Andre zalea zan beintzat.
- Eta orain Rosiña'gaz, zer?
- Laga egiozu etxean biziten?
- Ez zaitu minduten?
- Oituta nago orrelakoei laguntzen.

—Eta zer esango dabe?

—Ostatura etorritako neska bat dala.

—Baiña nire andrea, niri lotua eta orrelakuak esaten diardue.

—Anton, gauza bat esango dautsut eta kontuan euki: Zuk zeure kontzientziagaz lo egizu eta ez Rosiña'gaz.

—Esatea erreza da.

—Ez dakit zegaitik errukia artu dautsadan.

Zegaitik ez dautsagu egun batzutan gure etxean, ostatu zar lez, biziten lagako?

—Gero ta sinistuago joango da zurea dala. Etxean billatu lei bere aitaren oroitzen bat...

—Nasai, Anton.

—Esatea errez.

—Edozer ba da be, berak beste edozeiñeri laga eikean oroitzen bat izango da.

—Zoaz.

Oraindik nekatu egiten naz. Atsedena komeni yat.

—Ni konponduko naz eta zu be baketsu egon zaite.

—Serorea bildur da. Alegin egiteko, diño, ikustera etorten laga dautsula iñok jakin ez dagian.

—Berak laga ez, ni sartu.

Baiña nigandik ez dabe jakingo. Ziur egon.

—Etxean ba dakizu, nai dozuna. Ez dago zuretzat eskuturik. Bear dana artu.

—Laster arte.

Seroreak lagundu eutsan atera.

—Onetarako orrenbeste misterio?

—Agindua.

—Itxasoan be agindu asko dagoz, baiña ekaitza datorrenean, al dana egiten da.

Serorea pozik geratu zan gizon keriza a bere etxetik kendu edo bialdu ebanean.

Anton etxera joan zan sartu-urten bat egitera.

Ez eutsan esan Rosiña'ri gaixotegian egon zanik.

Onez esan eutsan, Petra gaixotegian egoan artean, alegin egin bearko ebela ondo konpontzen.

Rosiña'k erantzun, ori zala ain zuzen amaren naia.

—Zer bazkalduko dogu?

—Al dana.

—Dirurik ez daukat ezer erosteko.

—Nik be oraingotan ez daukat.

—Atuna ba dago.

—Zelan ipinten da?

—Erreta onena.

Eta bitartean ba nua kalera.

—Ni bakarrik lagata?

—Eta erre ezin ba da, egosi.

Gero arte.

Patroi zarragaz

Kaira eldu zan Anton, kai ingurura; estu eta keixu.

Esan be bai norbaitek:

On dagon goi-aldeari begiratuta, txalopa korrentak ete daroan bildurrez ez da joango ain larri.

An egoan Mitxel.

Patroirik zarrenetakoena zan.

Txaloparik geienak, patroia eta jaubea bat eukiten dabe. Origaitik nekez lagaten dabe lemia, etxeko semeren bat aurrera etorri ezik.

Berba gitxiko gizona.

Lotsa sartzen ekiana.

Begi argi, zorrotz, zabalak.

Arraiñaren usaiña edo arrastoa erraz eta luze artzen ebala, esaten ekien beragaitik.

Ba dagoz urrundik azterrena artzen daben arrain eiztariak: txintxoletak, kaielak eta abar.

Origaitik, berari be, gañeratzen eutsen batzuk orrelako deituraen bat: Mitxel txintxoleta.

—Berandu zabiltz.

—Batzuk baiño lenago ibilita gero.

—Igarri dot norbaitek txalopa barruan eskua erabili dabela.

—Lotzen.

—Pentsatu dot zu izango ziñala.

- Geldi egon orde.
- Biargiña zara.
- Norbere etxea zaintzea bidezko da.
- Asarre ziñen atzo.
- Laster bota eusten arpegira berandu nebillela.
- Ba dakit etxera neska bat ekarri dozula.
- Nik ez.
- Zeurea dala diñoe.
- Esatea libre da. Txarto esatea da pekatu.
- Ta mindu zara.
- Aragi bizia daukat orretan.
- Emon izan dot iñoiz esaten dana esan al izateko biderik?
- Urteotan iñok ez zaitu orretan ezagutu.
- Ori bat.
- Eta orain be ezin esan ganorabakotasunean zabil-tzanik.
- Ori bestea.
- Or egoan gurean be neska atsegiña.
- Bart ezagutu neban.
- Atzo arte ez?
- Ez eta ikusi be.
- Etxetarra da.
- Etxea, kaiola ez ba da, neskentzako abi jatorra da.

—Gurean ez dago kaiolarik.

—Obe.

—Pozik artuko leuke arek zu lako bat.

—Elgorria berandu datorkit, Mitxel.

—Baiña zirikatu leike.

—Ez naz ibiliko elgorridun umeak lez, gorri gorri jazten, ez?

—Zolia zara.

—Pelota: artu ta jaurti.

—Eta zutarrak?

—Nitarrak? Nortzuk?

—Zure etxeakoak.

—Ni onera etorri nitzanean, dana aztutekotan etorri nitzan eta ortarako geratu.

Mesedez, ez eragin tanboliñari.

—Eukiko dozu norbait.

—Neuk bakarrik dakit nire barri.

—Parkatu.

—Itxasoan al dana eskatu.

—Eskatu bai, ta ukatu?

—Dakidala nire egin bearrik ez dautsak iñori leporatu.

—Ala dala nai dot ziurtatu.

—Orkoa, itxasokoa, zuri dagokitzu.

- Patroiari lotsa bear dala ba dakizu.
- Baiña ortik kanpora niri dagokit zelan jokatu.
- Pozik egingo neban, ba, zugaz tratu.
- Berez etorriko da ortaz zer pentsatu.
- Bai, bizitzak ba dauka naiko kaku.
- Eta ez jakin, zetan amaitu.
- Urteak ba datoz eta azurrak gogortu.
- Agirian dagonik ezin eskutatu.

Batak esan eta besteak erantzun, gaitz galduko eben bata ta besteak bertsoaren puntua. Neurrian kakua.

Baiña Mitxel'ek beste zerbait erabillan edo beste zerbait nai eban.

Igarten yakon.

Ezin geldi egon.

Txalopan, tosta gaiñean jarri, ta beriala jagi.

Molla buruan txikotak lotzeko burdin zatian, anka ipini, ukondoa gaiñean, eskuaz okotzari eusten eta ibaiari begira egon; ta alaxe be ezin gorputzari txerarik emon.

Ezin toki baten edo egoera baten patxadan geratu.

Azkenean be asi zan:

- Anton, berba egin bear gendula esan neutsun.
- Nik etorriko nitzala erantzun.
- Zure neska orrek artegatu nau.
- Arrantzarik ez danean edozek artegatzen dau.

- Nuntarra da?
- Ez dakit.
- Galaxiarra?
- Ala dirudi.
- Gurasuak?
- Aita emen ibiltzen zana; ama emengoa.
- Zenbat urte daukaz?
- Ogetak. Bi edo.
- Ta bera ziur dago Arturo'n alaba dala?
- Baietz diño. Aitagaz etorteko zala, urteak igaro zituela orretan, beti luzatzen.
- Ta ama... bizi dala ta dago?
- Aita il zanean oraindik bizi ei zan.
- Eta aitak ez eutsan agertu nor zanik?
- Ala dirudi.
- Berak ez dauka iñor begiz jota?
- Bera Petra dalakoan dago.
- Nik be bizia jokatuko neuke Petra ezetz.
- Zegaitik?
- Petra'k, berrogei urtetan, egun bakar baten ez eban utsik egin bere tabernan.
- Ta zertan dator Petragana?
- Ostatuak indarra eukiten dau erbestean.
- Leike.

—Gu be, Santoña Ameriketara joaten gareanean, ba dakizu, ango dendaria eukiten dogu edozetan be bitarteko.

—Alaxe da.

—Orren aita be beti Petranean egoten zan eta...

Orain Petra gaixotegian dagola ba dakit.

—Obeto dua.

—Ta biok bakarrik bizi zarie.

—Bai.

—Jakiña, berba lekua izango da errian.

—Aoaren neurrian.

—Konponketa bat. Petra etxeratzen ez dan artean, naiko zenduke gurera etorri?

—Atzo, eskabide ori, on artzeko zan.

—Ta gaur?

—Gaur ez.

—Zegaitik gaur ez?

—Atzo ez nekien neskarik zenduenik. Gaur bai.

—Ta bera?

Ez litzake bera etorriko?

—Rosiña? «Amaren» etxetik aldendu?

—Ba daki edo jakin bear leuke onezkero ama ez dala.

—Esanak esan sinistuteko ez dauka.

- Euki dau orretzaz Petragaz jardunik?
—Besterik be ez.
—Ta?
—Zer esatea nai?
—Esan eta orretan ba dabil, sentzu andirik ez dauka.
—Biotza bero ta buruan serraitsa.
—Anton, mesede bat.
—Mesede barik, eskatu.
—Zegaitik ez dozu bialtzen gurera?
—Zetan?
—Ba dakizu, egoera au zerbait arintzera beintzat.
—Eta nai ez ba dau?
—Alegin beintzat.
—Nire kontu.

Iru aizta ziran...

Bidean,
iñor ikusi eta ezagutu barik eroian bidean,
ez jakin zegaitik,
Mitzel'en eskabide eta esaerak gogoratu ordez,
Anton bere erriko ipuin bat buruan sartu yakola kontu-
ratu zan.

Eta ezin uxatu ipuin aren gomutarik. Lelo bat lez erabillan:

Iru aizta ziran,
bi mutxurdin ta bat ezkondu;
ezkonduak nai ebanik ez eban lortu;
mutxurdiñak eroan eben aren pekatu...
Ipuin luzea zan.

Ari askodun mataza.

Azken ertza nekez billatzen yakon mataza.

Baiña billatzen yakon.

Èta Anton Petra'gaz gogoratu zan.

Eta gogoratu zan, baita, Barbara'gaz be.

Eta Mitxel'en emaztea, ez al zan besteen aizta?

Baiña, zer eukan ipuiñak, bere erriko ipuiñak, ain zuzen gertaera onegaz aritzeko?

Kaleko garrazkeriak

Ekin eta ekin bere ipuiñari,
orrelako pentsakeraz ia etxera eltzeko egoala,
kalean zein ikusten eban be konturatu barik,
bat batean, zart!, ukabilkada gogor eta bete bat artu eban arpegian, betondoan.

—Miiñean daukadazala indarrak? Miiñean bakarr-
ik? Or, beste bein esateko be!

—Zeu zara, alu ori?

Peru zan.

Peru, bere txalopako laguna.

Peru, egoskari, baldar, arroputz, zitala.

Guzurretxe'n egon zan.

Ango akulariak zirikatu eben.

Puztuta eta ugarituta esan eutsezan Anton'en esanak. Atzamarra zana besoa ipinita, berari be gangarkeri batzuk atara eragiteko asmotan.

Kaira joan zan, arro, burrukalari.

Guzurretxekoak ez eutsen garrantzirik emon, bere aize boladetakon bat zalakoan.

Anton eta Mitxel elkarregaz ikustean, bezperako bere zemaieri erabilten ebiltzalakuan, suzmo txarretan oraindik be geiago zitaldu zan.

Ez eukan adorerik Mitxel'en aurrean ezer egiteko. Txistik be ez, barbarik be ez.

Zai geratu zan.

Eurak ez oartuteko eran ibili zan ingurutan.

Aldebanatu ziranean, Anton'en atzetik asi zan.

Erriberako kalean eta nasa kalean, gizonak ibiltzen diranetan, ez zan ausartu ezetan asten.

Bakartaderago jarraitu eutsan.

Atzetik.

Eta ia etxera sartu baiño len, ango kalearen estuera eta bakartadez baliatuta, erara euki ebanean, orduntxe emon eutsan atzetik ukabilkada.

Anton'ek, bat batean atzera begiratu, oratu, gogorkeri batzun ondoren menderatu eta zirkiñik egin ezinda lotu ebanean, ormara eroan, an lepoa ormari eta aurrez aurrezka berari begira ipini, zartada batzuk emon, eta ez ekian geiago zer egin be.

Alegin eta indarkeriak egiten zitun Peru'k azkatze-ko. Baiña bere indar ta erdi eukan Anton'ek.

Alperrik biurriak egin, ez eban ezer lortzen.

Begi ondotik odola eriola agiri zan Anton. Bat bateko zartada arek bekaiña azkatu eutsalako.

Orrek itsututen eban, eta ezin eban luzaro begira jarraitu, esku bat, tarteka, odola igortzi eta alderatzeko bear ebaleko.

Andrazkoak asi ziran garrazika, gizonak nun ete egozan-ka.

Eurak geldit egoteko deituarren, gizonak ez ziran banatuten.

Azkenean be Anton'ek, asto pekorotzak ikusi zitun bere inguruan.

Peru'ri indarrez makurtu eragin eta jan erazi eutsazan.

Orren ondoren, «or zure indarrak eta bestera garbitzen ez yatzun lez, ia orain asto pekorotzakin zure mingain zital ori garbitzen ete dan», esan, eta laga eutsan.

Rosiña'k be kalera urten eban ango zaratara,

Anton odol nabarmen aretan ikustean, bildurtu zan, negarrez eta garraxika Peru'ri erailtzalle deitzen.

Peru'k baldarki: P..., or daukazu zure maitetxoa. Igortzi egiozu pupua.

Anton'ek ori entzun, andren artetik urten, eta itsu-
mustuan Peru'ri jarraitu nai izan eutsan.

Baiña a, lotsakor eta bildurti eta koldar, kantoian
zear eskutatu zan.

Gizonak be batu ziran.

An agertu zan Mitxel be.

Andrazkotako batek esan eutsen gertatua.

Eta etxean iñor ez eukala-ta, garbitasuna komeni
yakola-ta, kale aretako zikinkeriz edozer kutsutu eikeala-
ta, une baten bere etxera joateko eskatu eutsan Anton'eri.

Eta Rosiña'k be jarraitu egin eutsen.

Ukabilkaden ondoren

Iñok ez eban Anton'gaitik txarto esan.

Baiña erritarrak Peru ezagunago eben, etxekoago,
eurentarrago.

Erritarra zalako.

Anton baiño zarrago zalako.

Umezurtz asten ezagutu ebelako eta mutilzar gera-
tu.

Anton...

Iñok ez ekian oraindik nuntarra zan.

Iñok ez ekian garasorik ba ete eukan eta bera be ez
zan ori artzen alegintzen.

Iñok ez ekian ezkondua edo ezkongaiia zan.

Ezkongaia ba zan ez yakon ezagutzen erriko emakumientzako zaletasunik.

Ezkondua ba zan, ez eban emaztearentzat maitasunik.

Ostatuan bizitea, mariñel soil bat ostatuan bizitzea, andiki usaiña artu nai izatea zan askorentzat.

Egia au zan: Anton'ek, erdia emonda, bere soldataren erdia emonda, pozik eukala Petra. Eta bera be txairo bizi zala.

Rosiña?

Etxe bakoitzean eritzi bat.

Lenengo mar-marrak lagata, laster konturatu ziran, ezin eikeala Anton'en emazte izan.

Anton'ek urte batzuk eroiazan an.

Erri txikietan dana jakiten da, ta jakin zan Petra'gaz ze tratu egin eban be.

Petra bere aldezle on eta sutsu biurtu zan.

Gaixotegitik jakin zan Rosiña'ek ze buruauste ebillen be.

Eta zurru-murru lizunak asi ziranean, pertsonen izen ona aidean aizetzen asi ziranean, erriko abadeak deitu eutsan Mikol, txalopako mutillari, lotsa pixkat sartu eta garbi esatera zemaitu eban, zer ikusi eban ostatuan.

Abadea ez zan sartuko beste auzi eta goraberetan, baiña seigarrenean ez yakon txepetxik kalean igaroko. Eskutukoak or konpon.

Mutillak garbi esan eban ikusia.

Ostatuko gela andian, Anton oe gaiñean egoala, atsedeen egiten lez, jantzi ta guzti.

Rosiña beste oearen gaiñean, a be jantzi ta guzti, liburu bat ikusten.

Berak ikusia bakarrik agertu ebala, baiña gero «tranpako» itaunak egin eutsezala.

Abadeak itandu be egin eban neska a nor izan ete eikean. Eta jakin eban Anton'ek ez eukala, ostatuko tratutik kanpora, aren zer ikusirik.

Eta Petra'k be gaixotegira egin eutsan ikustaldian, zeatz agertu eutsan abadeari zeren billa ebillan.

Abadeak, erria bere mende eta bere esanetara eukiten oitua zan arek, jakin orduko, eleizan egin zan lenengo eleizkizunean, an batu ziranei zer-esan askoren aurka gogor egin eutsen.

Errira etorri zan neskatilla baten alde agertu bear zala, zoritxarrez.

Leike, esan eban, neska ori egi baten atzetik ibiltea. Eta egiaren billa dabillena, besterik ziurtatzen ez dan artean, bide zuzenean dabil.

Leike, jarraitu eban, neska ori erratuta ibiltea, baiña asmo zuzenez.

Dakienen bearra da bide zuzenean ipintea.

Ez daigun ipor pekatari egin. Orretan jokutzen dabinari, bera dala pekatari esan bear.

Eta ostatu baten, neska mutillak ostatuz gertatzea, bizi bideko legea dan lez, ez gaitezen guzurrez eta ipokresiz bularra joten asi.

Etxeren baten eskutukoagorik egon lei eta irri-barre guzurtia angoak agurtu.

Emakumeak ixiltzea orainarte inok lortu ez daben lez, abade arek be, zer-esan eta berbaro geiago ipintea baiño ez eban lortu.

Baiña ori be oiturazkotzat eukan, erritarren izate be-reziaren nortasuntzat.

Nai ta berari jauna, ederto jaunaka, eskuan mun emon eta zurikerizko koplak agertu, eleizatik urtenagaz batera asi ziran bertakoen barriketak.

—Entzun dozue?

—Gure alaben bat izan ba litz orrelako gertaeren baten, ez eban berba erdikarik egingo bere alde.

—Kanpotarrentzat dira emen zurikeri eta begirapen guztiak. Kanpotarrentzat.

—Etxeren baten eskutukoagoak egiten dirala? Esa-tea dauka, inor aotan laga barik.

—Bata ta bestea zein dira ba?

—Inok ba daki motxaillien seme-alabak ba dira be? Guzurretan badabiltz, zer?

—Arturo txorrotzalliaren alaba dala. Nok esanda dakigu orrela dala?

—Egi baten atzetik ibili leikezala ta ori bidezko eta zuzena dala...

Zetan gaixotu da, ba, Petra, bera ama dala ta emon dautsan naigabeagaz?

—Ori ez da Petra'ri eskutuko bizitza lizunean ibilia dala arpegira botatea?

—Nik lez matalazurreko eder bat emon izan ba leutse, ez eban lapiko konpontzalle arek azi askorik ereingo. Geurea errua, Santiago'ren irudiak emoten etorten diralata, etxe guztiak zabaltzen dautsaguzalako.

Orrela andrazkoak.

Guzurretxe'ko autuak entzuteko ziran.

—Oneik abadeok zer egingo dabe ba? Gu eskuan gaukez ta kanpotarrei be euren kapapera deitu nai.

—Etxeren baten eskutuko geiago egongo dirala? Jakiña, errua, danaren errua, andrak eurak dauke, txotxin-keri guztiak esanarte estututa egoten diralako.

—Gu geu be beti oillarraren kontuekin gabizelako da ori.

—Emen gauza bat da ziurra. Seigarrena dala bizi guztiaren asiera eta kittu. Len eta orain.

—Kontxo Salomon! Ori zelako filosofia da ba?

—Filosofirik onena gure aititak esaten ebana; Andra Mari eguneko oillo sopa.

—Seigarrena asiera dala esan dozu?

—Jakiña.

Jaungoikuak sei egunetan ez eban mundua egin, eta gero geratu?

Guk be bardin.

Andria ikusi, ezagutu, laztandu, igortzi, berotu ta izorratu... Sei ez dira orreik?

—Ba, ba!...

—Orixe da, ba, seigarrena. Seira eldu ta bizi barriari asiera emon. Munduagaz gertatu zana. Sei egunetan biarra egin, ta Adan'eri esan: Asi orain biziten. Baiña kontuz gero. Ondo ez ba zabiz, baten batek kristonak artu bearko ditu.

Emen be, zabartu eta lantzoi samarra danak... ba dakizue. Idizilla edo tollanak.

—Eta lantzoia barik akula bizia danak?

—Arek abadeari be ziria sartu. Arek seigarrenera eldu, atsedena artu eta barriro asi.

Esanalak esan, abadeak errian indarra eta lotsa eta bildurra erakusten eban lenengo bolada au be laster asi zan beratu eta ixiltzen.

Mitxel'en etxean

Mitxel'en etxea kai aurrean egoan.

Etxe aurrea, orma zar eta erdi jausiz inguratuta, txaloparen tresna gordeleku zan. Karkaba lako bat.

Arrain koipe zar usaiña, sendo, ia naskagarri, inguru guztian.

Barrurago, etxea.

Oin bakarra.

Eta dana idegia, Petra'renaren antzera.

Sukalde ta gelak, leio bakoak danak, illunak, giza-lotsariz, atetzat, izara bat eukela.

Etxe egal guztiak itxas tresnaz beteta: treotzara, trabol, otzara, mundil, kaku, sare, trasku, belaki...

Bizi be iru lagun bakarrik bizi ziran bertan: Senar emazteak, Mitxel eta Liberata, eta Ana, alabatzakua.

Berandu ezkondu ziran.

Lenago Mitxel beste ezkontza batetik alargundua zan.

Iru seme euki zitun ezkontza aretatik eta irurak batera itto, ain zuzen be aita bera patroiz zan txalopan, etxe-ko txalopan, udabarriko galerren batek gerri-gerrian elduta, antxoatan ebiltzala.

Egualdi sargorea egoan.

Baiña arrain ugari egoala, biaramonean jai be bazala ta etxean jai gorde bearko zala, arrain sasoiak zala ta egunik galtzan ez zala komeni eta abar,

itxasora joan ziran erriko txalopa guztiak.

Sareak botata eukezan, goizaldean jasoteko asmatan. Baiña goiz —lena igarri orduko, sareak batzeko denporarik be ez eutsen emon edo ez eben artu.

Belak eratsi zituen, aize boladak tatarrez eroan eta tirabirarik ez eragitearren.

Baiña kanako olatuak jagiten asi ziran. Zabartu zan egualdia bat batean. Itxasoa anditu. Olatu bat gain gainean eten yaken eta txalopa killaz gora ipini.

Ango deadar, garraxi, otoitza, eskintzak!

Txalopak berak azpian artu zitun batzuk eta arnasarik artzen be laga ez. Besteak igarian, baiña zeinek eutsian? Indargetuta etsi bear eta ondora.

Banakak salbatu ziran, agaei eusten, geratuta, edo erramuak alkartu eta euren gaiñean zela-ala iraun naiko alegiñetan.

Biaramonean, osorik geratu ziran txalopak, inguru areitara ostera egin ebenean, Mitxel'en semetako bi alkarri oratuta billatu zituen, ol zabal batek azalean zaintzen zitula, baiña batek besoa apurtuta eukan. Eta azkenetan, egozan. Ain zuzen be beste txalopara jasotean, alik ez eta il.

Irugarrenik ez eben billatu.

Mitxel bera, txalopeari oraintsu egin eutsen lemazaiñaren txabolatxuan ur gaiñean etzanda billatu eben. Eta berera ekartea lortu be bai.

Bere emazte zana, naigabez eta samiñez il zan andik lasterrera.

Gertaera onek erdi zoratu eragin eutsan Mitxel'eri.

Bakartadean be ez eban sinistuten itxasoak berari geiago egin eikeonik.

Eta barrero, zela ala txalopa barri bat egin, eta itxasora joaten asi zan.

Bera ez zan arduratuko, baiña gizontasuna be gal-tzen asi zala, soiñari be jaramonik ez egiten igarten eben, eta lagunak zuritu eben andrazko bat etxera eroatera.

Lagunak billatu eutsen bigarren emaztea, Berak ez ebala orren premiñarik, esaten eban. Bera ba zala oe zarra egin eta beretzako jatekoa egiteko beste, esaten ekian.

Baiña ostantzekuak be bear zirala, oraindik berrogetamar urtetan ebillala, bizi luzea eukala aurretik... eta zuritu eben.

Maitasunezko ezkontza ordez, alkar laguntzako tratu bat egokiago deitu eikean.

Umerik ez eben euki.

Origaitik, urte bi orduko, kajako ume bat etxeratu eben, goseak ez ebala ilgo eta zartzaroko premiñei begiratzeko.

Oraindik euskaldunak ez eben zapirik erabilten zurrak garbitzeko ta origaitik Anton'ek ez eukan bere zauria zelan estaldu, eta esku zabalagaz gainduta eroian.

Arpegia ez-e, eskua be odolez beteta eroian.

Ikaratu ziran etxeokak a ikustean.

Txalopan ez bearren bat gertatu ete zan pentsatu eben.

Eta Liberata'k etxean eukazan gantzukiak (unguentoak) ataraten asi zan.

Ura, ur garbia eskatzen eban Anton'ek. Aregaz nai-ko ebala. Garbitu, lotu eta ondo geratuko zala.

Ana'k, bere trebetasuna eta begirapen ona erakustearren, garbitu, betuleak artaziekin kontu eta arretaz ebagi, geldi-geldi bekaiñeko azala batu, odola geratu eragin eta izara zar baten ataltxo bat arrastadan ebagi ta lotu eutsan.

Aurrez isats bedarra be ipini eutsan, balsamo bedarra edo bedar bedeinkatua baiño orrelako zaurientzat obetzat eukala-ta. Zarandona bedarra be emon eutsan, gero, etxean, lengoagaz oberik igarten ez ba eban, gabean aldatu eta ipinteko.

Neskak ez eukan itxas arazoetako zaletasunik, eta origaitik negu garratzak igaroten zitunetxean, batez be

tretzak «enkarnatu» edo bete bear ziranetan, au da, amuetan amuzkia ipini ta egokitu bear ziranetan.

Orrelako gauzetarako zaletasun bizia eta berezko ezaupide ugaria eukan eta bein baiño geiagotan laguntza ederra eskiñi eutsen itxasotik zaurituta edo gaixo etoza-nei.

Laban eta bigun eta eztitsu agertu zan Ana.

Liberata, etxekoandrea, ixilik.

Rosiña, atzean, begirik galdu barik, nai ta ezetan sartu ez.

Orrelaxe egozala, mutil bat etorri zan.

Barbara estutzen asi zala, gero ta txartoago eioala eta berak Anton eskatzen ebala ta arin joateko.

Liberata'k esan eutsan ia Anton ala bera.

Anton, Anton, esan eutsela berari mutillak.

Au bere bekokiko zapia kentzen asi zan, aretara ikusten ba eban geiago estutu edo bildurtuko zala-ta.

Kalte geiagorik egin barik, ondo eukala, odola be geratzen asi yakola ta egoan lez bialdu eben.

Eta Rosiña'k be jarraitu eutsen.

Barrero gaixotegian

Oraingotan, gaixotegiko atean, serora zarra zai egoan.

Anton urreratu eta ezagutu orduko, arin sartzeko agindu eutsan. Eta Rosiña'ri, mesedez, atean geratzeko.

Erriko fisikoa, medikua, an egoan, eta zurbil ikusten zan. Abadea azken otoitzak egiteko jantzita.

Eskribadu lako bat be an egoan, paper bat eskuetan ebala.

Estu egoan Petra.

Sartuagaz batera, eskribaduak:

—Zure izena?

—Anton.

—Abizena?

—Nik neuk ba al dakit. Guzurretxe esaten dauste emen.

Eskridabuak fisikoari eta abadeari begiratu eutsen. Eta orreik, alaxe ezagutzen zala ta a ipinteko.

—Ezkondua?

—Asmorik bakua.

Eta beriala Petra'ri:

—Petra, berondatez egiten dozu nai dozuna?

—Bai.

—Ezagutzen dozu Anton Guzurretxe?

—Bai.

—Aurrean dagona zein da?

—Bera.

—Au da zure borondatezko oiñordekua?

—Bai.

—Eta beste iñor?

—Ez.

Estu ikusten zan Petra.

Gero ta arnas neketsuagoz.

Bero. Beroari eutsi ezinda, estalkiak be kendu nairik. Izerdi larritan.

Odolaren gora-berak irakiten euken.

Alaz eta eskua luzatu nai izan eutsan Anton'eri.

Eskua artu ta begira egon. Burura begira.

Anton'ek esan eutsan ez zala ezer. Ez keixateko. Topekada bat izan zala.

—Anton, mutil ona izan zara...

—Ba!

—Bai. Nireak zuretzat, Anton. Danak.

—Eta Rosiña?

—Ez.

—Ez da zure alaba?

—Deika daukadan Jaunaren aurrean diñot, ez...

—Benetan, ez?

—Ez...

Agur!

Eta Anton, negarrari eutsi ezinda, Petra'ri be begiratu ezinda, ez zan ausartuten berari eutsita eukan Petra'ren eskua alderatzen.

Fisikoak esan eutsan, alboratzeko, berak nasaigarri batzuk ipini bear eutsazalako.

Eta andik laster il zan.

Sekula ez eta musu bat emon eutsan, malkoz bustitako musu bat, bekokian, Anton'ek.

Rosiña'ren asarreak

Ate joten ebillan Rosiña.

Bizi egoan artean ez eutsen erantzuten.

Danak egozan gaixoaren inguruan.

Geroago, barriro orretan iñarduala, bestien baimena artuta, serora zarrak urten eban.

Zarataka, asarre bizian artu eban Rosiña'k, barruan konponketen bat egiten iñarduela-ta.

—Il da.

—Noiz?

—Oraintxe.

—Nik ikusi barik.

—Laster ikusi ziñei.

—Baiña bere azken agurrik artu barik.

—Eskribaduak esan leiketzu gertatu dana.

—Eskribaduak eta danak, danak bardin. Danok erritarrak.

—Zer dauka orrek zer ikusi?

—Danok nire aurka.

—Mesedez...

—Bai, danak familiaren izen bat zaindu nairik. Gu-zurrezko entzute eta on ikusi baten billa.

—Ez dot uste nik olakoetan.

—Ni nago emen izen barik.

Izen bako neska, ama bako alaba ni nago emen.

—Sartu, sartu barrura ta argitu. Jainkoak lagun daitsula. Ni gaixotegiko serora naz. Nit ez dakit zer dabil-tuen zuen artean. Nik ez dakit...

Sartu zan.

Bereala, negarrez, garraxika asi, zoratu bearrean.

Laga eutsen nasaitzen, baretzen.

Edozer esanda be aintzakotzat artu ez.

Entzun be edozer...

Abadeak kiñu egiten eutsen bestiei, ez erantzuteko, lagateko, jaramonik ez egiteko, bertan bera baretuko zala-ta.

—Ta zegaitik laga ez niri, bizi zan artean, zer esaten eban entzuten?

—Berak ez zaitulako eskatu.

—Alaba naz.

Guretzat ez.

—Ta zer esan dau?

—Bere azken naia agertu dau.

—Ta, zer?

—Nik, legea beteaz, egunak igaro arte ezin neike esan ezer.

Ondasunekin ez nabil. Ni ez nabil iñoren ondasunen billa. Nire alabatasuna nai dot agertu.

—Neska, parkatu, dan lez esanda, berak ez zaitu, gure aurrean beintzat, alabatzat ezagutu.

—Ezin lei.

—Garbi esan dau, fisiko, parroko eta ni eskribadu onen aurrean, eta oneik be testigu dirala...

—Ezin lei olakorik.

—Anton'ek itandu dauitsa birritan be, ea bere alaba zarean. Alegin egin dau Anton'ek ori agertzen.

—Eta berak, zer? Ez eban ukatuko. Autortu ez da be, ukatu ez eban egingo.

—Berak garbi esan dau: Deika daukadan Jaunaren aurrean diñot, ez.

—Ze eratan itandu dago gauza. Zelan itandu, ala erantzun.

—Neska, guk gauza bat ikusi dogu. Anton'ek ez da-bela beste kezka eta arretarik euki eta agertu, orixe baiño. Ta ez bein, geiagotan be maitasunez itundu dauitsala ori.

—Ezin, ezin baiña...

—Ta bein eta birritan be ukatu egin dabela.

—Legea eskatzen dot.

—Ze lege?

—Amatasun ezaupidea ezagutzeko nik euki neiken legearen laguntasuna.

—Berak barbarik egin ez ba leu...

—Baiña ezetzean il da. Ezpai edo duda bako ezetzean. Guk ezin geinke bere berbetatik gain jokatu.

—Ta ziur zarie neska lez il dala?

—Zer esan nai, orregaz?

—Ziur zagoze amatu barik, ama egin barik il dala?

—Neska, ta egin daigun kontu, iñoiz ama izan zala.

—Ori da diñodana.

—Legeak ez diño ortaz ezer.

—Nai ta ez esan bear.

—Egin kontu, ala dala: Ba daukazu oiñarririk esateko ain zuzen be zu zareala, zu, ala gerta ba litz, bere emaitza? Zu zareala ain zuzen be bere frutua?

Orrela fisikoak.

Neska, Rosiña, ixilik.

Eskribiduak geitu eban ez egoala legerik, bere esanaren aurka, orrelako azterketarik egiteko.

Abadeak be geitu eban, eleizak, ez bearretan ezik, eta legearen agerbiderako bakarrik ezik, illen gorputzei ikututerik ez ebalá begiko, ez ebalá bairmentzen.

Anton'ek, ordurarte ixilik egon ba zan be, besoetatik oratu eta argi esan eutsan:

—Rosiña: Sinistu. Sinistu benetan. Nik ez daukat zure aurka ezertxo be.

—Ba dakit.

—Berak, zerbait eukita be, ezaupiderik emon ez da be, ukatu ez ba leu...

nik ez neutsun ezetzik esango. Bear ba da nik be sinistu egingo neban.

Baiña len esaten eban lez, zuri neure aurrean esan eutsun lez, alaxe il be egin da. Bera ez dala zure ama, esaten.

Rosiña, kirioak eraginda, beretik urtenda, tentelke-riak esaten asi zan. Ukatzen eta madarikatzen, guzurretsiten eta angoak gizon usteltzat artzen.

Alaz eta Anton'eri ez entzunik ez eutsan egiten.

Eta azkenean be, zerbait baretu zanean, ezaupidera etorri zanean, musu bat emon eutsan Petra'ri, esanez:

Nire aitak guzurrik ez eban esaten. Ez eukan zetan ni atzipetu eta ametsez bete. Eta bere esanetan, il aurreko bere esanetan, zugandik ez dago urrun nire ama...

Anton'en alegiñak

Gaixotegitik etxera eioazala, eleizako kanpai astunak joten asi ziran.

Baterako bi, erredoble bi, ta gero, txandaka goikoa ta bekoa, unetxo baten, azkenean be baterako biekin amaitzeko.

Il kanpaiak erri guztitik entzuten diran il kanpai mintsuak, zotin eragiten dabe erri txikietan.

Kalera edo leiora urteten eben andrak lenengo, ta belarria erredoblien adi euki ondoren, gizona edo emakumea ete zan ziurtatzen ziranean, iru gizonentzat eta bi andrazkoentzat, beriala asten ziran gitxi gora-bera zein izan ete eikean argi agertzen.

Andrazkoa zala konturatu ziranean, geienen aotan Barbara'ren izena ebillan.

Baiña euren ondotik igaroeran Anton'ek argitzen eutsen: ez, Petra da, Petra ostatu.

Lenengotik joan zan Mitxel'en etxera. Aren emaztea, Liberata, Petra'en aizta zan. Aizta izanarren, ez eukan traturik, artu-emonik.

Illeta zelan eta noiz egin erabagi bearko zala esan ebanean, Liberata'k jardetsi eban: Ez, nik ez. Orainarte asarre bizi izan gara ta bere ondasunekin jaubetzeko adizkidetu naizela iñork pentsatu ez dagien be.

Gaiñera, ospitalean il da ta eleizak duban egiteko oitura dau.

Anton'ek erantzun, burutsu: Petra ez da gaixotegian il zegaz bizi ez eukalako, une baten nok zaindu euki ez dabelako baiño.

A ez da bear-izanean edo pobretasunean il. Aren gertaera ez da gaixotegi edo zarren etxean bertako bizilagun lez ilten diranen antzeko.

Baiña Liberata'k ez eban beretik urteten.

Andik Barbara'ren etxera joan zan.

Bera sartu orduko ba ekian Barbara'k barri ori. Ori-gaitik ez yakon ain gogor eta mintsu.

Gaiñera, goizalde aretan onera egiña zan eta ba eukan bere aldetik arpegia emon al izateko adoretasun berezi bat.

—Eta illeta? Eleizkizuna?

—Anton, zu ez zara ba bere etxean bizi?

—Bai, ta?

—Etxekoak egiten dituez orrelako gauzak.

—Nik ez dakit jakin be emengo oiturarik.

—Seroreari esan eta arek egingo dau dana.

—Zein da serorea?

—Esan bearra be.

—Arritu? Zein gizonek daki ori?

—Sakristauari esan, alkarren ondolik urrun ez dira ibiliko-ta, nai ta beti txakurra ta katua lez ibili.

—Ori egin lei.

—Agindu ta gero, zerbait lagako eban eta konponduko gara ordaindu bearrakin.

Laster konturatu zan Anton aizta biak Petra'ren ondasunekin gogoratuta egozala.

Eta ixildu egin zan.

—Joan da bere alaba zala ta ibili dan neska zoro eta kasketa?

—Atean dago.

—Laster joateko izango da, ez?

—Ez dakit zer egingo daben.

—Laga dautsa bere zorotasunari?

—Ez dakit zetan geratuko dan.

—Ez al dau pentsatuten emen gelditu ta guzur eta saltsakin, edo erruki aitzakiz etxea beretzat artzerik? Orrelakoak kasketak izaten dira baiña beretarrak ta!

—Petra'k garbi eta zeatz esan dau eskribaduaren aurrean, ez dala bere alaba.

—Nok daki ori?

—Neuk, ziur.

—Esan eragitea be. Orrela dala orretara beartu nai izatea be, lotsabakeri galanta da.

—Eskubideak zelan ikusi da ori.

—Ta azken naia egin dau?

—Eskribadua, parrokoa eta fisikoa bere oe inguruan ikusi dodaz. Bakoitzak bere zeregiña beteko ebala ta nago.

—Jaunari eskerrak, orrelako bat bururatu yakonean be. Bestela zelan konpondu nire aizta Liberata esku itxi ta berekoiagaz?

Eleizpean

Eleizkizuna egin zan.

Anton'ek ez eutsan laga Rosiña'ri ara joaten.

Okerrago izango zala, zer esana sortuko ebala, bear ba da gerorago be beretzat kaltegarri izango zala...

Eta Petra'ri, bere izenari, baketan lagaŕteko eskatu-ten eutsen. Illetan, bera aurrean egoala, ez zala komeni ezetariko ikusbide eta esanbiderik emoterik.

Anton'ek ez eukan Petra'ren ezpairik.

Ba ekian, lenengotan ukatuta be, egia izan ba litz, bere amatasuna ziurra izan ba litz, azkenetan ez zala ain zeatz eta ain argi ukatzera joango.

Petra'k zerbait jakin eikeala?

Leikena zan.

Bizi guztian ezagutu eban berak Arturo. Argi esaten eban berari be ederkaturen batzuk egin eutsazala.

A, Rosiña'ren esanetan, azken urtetan, azken bost-sei urtetan, Rosiña berberarentzako amatasun ezaupidea-ren billa ebillan. Nortasunez laga nai alaba.

Rosiña berak be, Petragandik bere ama urrun ez egoala esaten eban.

Ez zan, askok uste izan eikeen lez, ezaupide edo salakuntza agiria, ziurra.

Ezpaian, aidean ipini ta lagaten eban autortza orrek bere ziurtasuna be.

Illetaren aurretik, Ana joan yakon etxera, zauri edo urratuaren garbitasuna egitera.

Ez eukan orrelako itxaropenik Anton'ek. Konponduko zan bera, zela edo ala, eleizkizunerako itxura-

tsu agertzen. Edo bestela Rosiña berberak be pozik egingo eutsan orrelako garbiketa bat. Baiña orixe zan, ain zuzen, Ana'k billatzen ebana. Aitzaki bat.

Ana'k, sartu orduko, jakin erazi eutsan, aitaren borondatez, Petra'ren etxeko lez, berari lagaten eutsala eleizan senitartekoen artean lenen joatea.

Anton'ek be Ana'ren makaltasuna igarri eban. Eta eskatu eutsan ez ete eukan lagunen bat Rosiña'ri egun batzutan gela edo oea emongo eutsanik.

Beragaz an, ostatu izanikoan, biziten ba zan, erriak autu geiago erabiliko ebala; berari be azkatasuna kendu egiten eutsala beste bear izanetarako.

Billatuko ebala berak, Anton'ek, beretzat, etxeko garbitasuna egingo eutsan andre zarren bat, gauzak garbitu ta bera zelan geratuko ete zan erabagi arte. Baiña Rosiña'k sortu eikiozan esan-mesanak, guzurak izanarren be, al zala kendu nai zitula.

Ordu bete baiño len billatu eutsan etxea Rosiña'ri, bere txalupako mutil baten etxean, Ana'k.

Orixen nai eban berak be. Anton'eri ederkatura egin, bere gaitasuna agertu, bere on-iritzia zela ala erakutsi.

Anton'ek agindu be egin eutsan Rosiña'ri bere gain geratzen zala «ostatu» barri ori. Berak ordainduko ebala.

Lenengotan Rosiña'k ezezkoa emonarren, Anton'ek sinistu eragin eutsan toki batetik baiño bitatik obeto ikusi eikezala gauzak, eta gertatu eikiola berari be, asmuz eta jakitez jokatu ezkeren, zela ala garbitasunen bat atara edo betiko etsipen zindo bategaz geratzea.

Fede onez egiñak zirala alegin oneik ezagutu eban Rosiña'k. Orrelako eritzi eta pentsabideak berari be bizi-

tasun pixkat sortu eutsen eta egun batzuk etxe barri orretan igarotera makurtu zan.

Eleizkizuna, erri txikietan oi dan lez, ia erri guztia-
ren aurrean egin zan.

Illobiko eskintza edo ofrendan, Ana'k eroan zitun eskintzako ogiak, nai ta seniderik urrena bere ama izan eta oituraz areri egokitu orrelako zeregiña.

Mitxel, koñaturik urrena, bakarra ain zuzen be, Anton'en ondoren geratu zan, senideen aurreko jezarlekuko erreskadan.

Urteeran, kontu eta abar, zer esanen bateri bidea emotearren be, norbaitek itandu eutsan Anton'eri:

—Ta? Nun geratua da naste eta buruausteak sortu naian ibili dan neska zoro a?

—Etxean.

—Petra'ren etxean, ostatuan?

—Ez, beste nunbaiten.

—Baiña emen, errian?

—Zer ba?

—Eriotza au ikusita kanpora iges egin bear arek.

—Zegaitik?

—Zeiñek ukatu eriotza au bere txotxinkeriak ekarri dabenik?

—Orrela begiratuta ez legoke eriotzarik norbaiten errurik barik.

—Osasuna saltzen ez ebillan ba Petra oraintsurarte?

—Nik be ukabilkada artu arte bei-gane au osorik neban.

—Esan lei zuk Rosiña'ri eriotza onen errua kendu nai dautsazula.

—Sekula ez dot pentsatu bera izan eikeanik onen errudun.

—Zegaitik, ziur egon ez da, ibili da or autu-maututan, iñori odolak berotuten?

—Erreza da au ta bestea esatea, baiña aren egoera be...

—Bai, egoera, norberak bururatutako egoera zoroa.

—Ara, nik ez dakit bitartean zer dagon:

—Zera bitartean. Betikoa. Dirua atara naia.

—Au da, beintzat, ziurra. Neska orrek ez dabela ogetak urtetan amarik ezagutu, eta bere ama zana, bere amatzakua, inguru oneitakoa dala esan dautsela.

—Zeiñek esan?

—Berak diñonez, aita berberak.

—Ja! Alproja ederra!

Arturo ez zan ba aita?

—Ala dirudi.

—Ez zan ba bera arbola baten abia egiteko gizona.

—Nik ez neban ezagutu.

—Baiña esango eutsun Petra'k.

—Petra tabernari zintzoa izan zan eta bere zeregiña ondo beteten ekiana.

—Ori bai.

—Andre ixilla beiñik bein.

—Itxuraz.

—Itxuraz eta izatez.

Zeregin bakoitzak bere birtutea bear dau. Nik esan neikena au da: Nigaz ama lakoa izan zala.

Nik besterik ez dakit.

Eta ebagi eban Anton'ek jarduna.

Kontuak luzatzen

Rosiña etxe barrian sartu ta laster,
lenengo ezaupideak artu ta etxe baster eta inguruak ikus-
ten asi zanean, bat bateko irriztadak jo eban.

Ainbat santu santen irudi eta agiriak egozan bertan.

Orma guztiak orrelako irudiz estalduak.

Irudien artean, an egoan Santiago'rena be.

Begiratu eutsan, ta berari musuka iñardun.

Petra'ren liburuan billatu eban lako bardiña.

Orria irauli ta ara an be, atzean, bere aitaren izena.

Arrituta geratu zan.

—Zeiñek emon eutsuen au, Petra'k?

—Petra'k santuen irudiak emon?

Iñoiz etorri izan diran dantzariñak bai arek, euren iztertxuak erakusten, baiña santuak?

—Petra ostatukoa, diñot.

—Bai, bai, bera...

—Orrelakoa zan, e?

—Beti gizonekin ebillan eta...

—Baiña neskatilla zan.

—Bai, orretan laga areri.

Arek ez eukan olgetarik.

—Ezkongai egoan.

—Bai, bai. Bardin da. Iñor loxintzarik egiten asten ba yakon, eskuan eukanagaz blast, eta lotsa sartu.

—Ainbeste?

—Orain zerbait baltzituta egonarren, sasoi baten txanke ezpatea baiño zorrotzago ibiltzen zan tabernan.

—Zeiñek emon eutsuen, ba, irudi au?

—Zeiñek? Atzean dauka izena. Arturo...

Nire aita.

—Zure aita zan Arturo lapiko konpontzaillea?

—Bai.

—Arek eukan erretolikea!

—Zer da ori?

—Berbetako gozamena.

—Ori bai, ala diño.

—Ondo konpontzen zan a Petra'gaz.

—Berak be esaten eban ori.

—Zuen aitak ba... ba... ba dakizu gizonak zelako izaten diran, eta a lez bakarrik ibilita... kontu esateko gogo geiago. Areri eutsiko eutsan andrazkorik!

—Berba onekoa bai, a.

—Gozo ta labana, a.

—Bere izakera.

—Koipe utsa.

—Eta nire aitak orrelako irudiak ekarri eta zabaltzen zitun?

—Gaitz billatuko dozu orrelakorik ez daukan etxea.

Ixil geratu zan Rosiña.

Petra'ren aurkako agirietako bat, bertan bera etorran. Etxe guztiak ba euken...

—Potoen bat konpondu ta ordaindu ezkerero... an eukan arek bere Santiago. Berari be, batzuk, Arturo ordez Santitxo dei egiten eutsen.

Aren eskerrikaskoa jakiña zan: gure Santiago'k lagun daitsula poto geiago zulatzen, esaten ekian.

—Bizi ba litz naigabea eroango eban arek Petra il dala jakitean.

—Leike. Bestera izan ba litz, ez.

—Ezetz?

—Ba dakizu, tabernariak biotza gogortuta eukiten dabe. Salduta.

- Salduta?
- Esan nai dana, edozetara eginda.
- Nik, onezkero jakingo zendun, baiña Petra ori zala esango neban nire ama.
- A?
- Bai, Petra.
- Leike. Orrelakoak eskutukoak izaten dira ta leike, baiña gaitz a.
- Zegaitik gaitz?
- Ogei urte eukazanetik egun bat bakarra be ez ei eban tabernarik sarratu bere bizitza guztian.
- Euki eikean serbitzarien bat.
- Ez arek.
- Ziurra da ori?
- Kredua lakoxea.
- Eta tabernan ezin sortu?
- Iñok igarri barik?
- Beragandik urrun ez dabil, ba, nire ama.
- Ostatuan ibilten dira bestelako andrak be.
- Edo senitartean.
- Barbara be ezkongai dago.
- Bere aizta?
- Bai, oraintsu txarto egon dana.
- Ezkongai egonarren...

- Ori? Monjatzan egin ei zitun orrek ia urte bi.
- Ta etxera etorri.
- Emen dago beintzat.
- Nun egon zan?
- Mendaro'n edo... Bai, Mendaro'n.
- Urrun dago emendik?
- Zetarako? Ara joateko?
- Monjak ba dakiez jakiten onelako gauzak.
- Areik? Nundik? Barrukoak dira, koitadak.
- Eukiko dabe sakristau satorren bat...

Azken naia agertzen

Bost egun igaro orduko, eskribaduak bere etxera dei egin eutsen Barbara eta Liberata'ri.

Eta Anton'eri.

Liberata'k Mitxel bere senarra eroan nai izan eban, baiña arek Barbara ez ikustearren dirua emongo ebala, ta ez eutsan lagundu nai izan.

Barbara bera, osatzen asia zan. Eta oraindik makal, baiña kaleratzen asia zan eta bere lengusiña bategaz joan zan.

Eta Anton, sekula orrelako gauzetara ez zala joan eta lagun artean aitzakiak ipinten ibili ba zan be, gertu zan joatera.

Eskribaduak, sartu ta ondoren, euren ezaupideak artu eta banan banan itandu eutsen Petra ezagutzen ete eben. Eta ondoren, legeak agindu lez, arek bere aurrean, parrokoa eta fisikoa testigu zirala egindako azken naia jakin erazi eutsen:

«Nik,
Petra Burgoa,
ezkongai,
nire eriotza ba datorkidala konturatuta,
bizi onetatik beregana deika daukadan Jaunaren aurrean,
eskribadua bitarteko dala,
nire borondate, naimen eta gogoz,
inguruko ez iñungo lotutasun eta estuntza barik,
nire azken nai au egin eta agertu nai dot:

Barbara eta Liberata, nire aitzak ezagutzen dodaz.

Barbara bizi dan etxearen irutik bat nire jaubetasuneko da, gure gurasoak ezer egin barik joan ziranean, iru aitzok bardintsu geratu giñalako.

Bere orde z eun errial, nire alde zko me zek esan daguezan. Ori egin ondoren etxearen nire zatia beretzat. Ala egin ezik, zati ori eleizaren jaubetasunean geratu bedi.

Liberata bizi dan etxearen irutik bat, nirea da. Bere orde z eun errial erriko gaixotegiari. Emon ezik, zati ori gaixotegiarena izango da.

Batak eta besteak urte beteko epea dabe orretarako.

Anton Guzurretxe deituraz ezagutzen danarentzat, nigaz seme antzera portatu izan dalako, orain bizi naizen etxea, toki, tresna, diru eta jantzi guztiekin. Bakar bakarrik au kenduta: Kirruzko izara bi, komodan dagozan lau bardiñetik bi, eleizari eskiñi bear dautsoz, aldaretako izarak egiteko.

Eta bera ezkongai dala ilgo ba litz, erriarentzat geratu dedilla dana, nire aitzak orretan eskubiderik artu barik.

Bai eta adierazi nai dot gogoan dodazala Barbara eta Liberata`ri, orain ogetak urte, erritik urten ebenean, biurtzekotan aurreratu ta emondako diruak, baiña euki leiken ez ordaintzearen kezka baketzeko, parkatutzat emoten dautsedazala.

Azkenez, garbi agertu nai dot, pekatari izan ba naz be, sekula ez dodala seiñik euki.

Gure parrokoa eta erriko fisikoa dira nai onen ziñaldari (testigu)».

Ori irakurri ta beriala itaundu eban:

—Argi entzun dozue?

—Bai.

—Ulertu?

—Baita.

—Batera zagoze?

—Ori ez.

—Beragaz zer ikusirik ez daukan iñori laga leikioz iñoiz bestiok be gure izerdiz lagunduta egindako irabaziak?

—Ezer egin barik il ba litz... tarteko izango ziñen. Azken naia bitarteko dala, naia da lege.

—Abizenaren zeaztasun barik laga leike ezer?

—Zer ba?

—Anton Guzurretxe diño or. Ori ez da abizena.

—Kontuz. Anton Guzurretxe deituraz ezagutzen daniari... diño. Eta bere aurrean gengozan irurok ba genkien eta ba dakigu Anton Guzurretxe ori nor dan. Ezaupidea emon ezkerro, balio dau.

Besterik?

Geiagorik?

—Ez ekian firmatzen.

—Testigu biak akta lakoa egin eben nai onen ega-lean, bere atzamarra euren aurrean irarri ebalá adierazten.

—Balio dau orrek?

—Ezpai barik.

Besterik ezik, agur.

—Gugaz euki daben borondatea baiño Jaungoikoak obeagoa euki dagiala beragaz, esan eban Liberata'k, zital.

—Aizta zan baiña nire mezakaitik uleak erreko yakozala danon aurrean diñot, Barbara'k.

Anton mindu egin zan, aizta bien bekaizkeri eta barruko estutasunagaitik.

—Noiztik balio dau nai orrek?

—Il zanetik.

—Eskerrikasko.

Irurak, alkarri berbarik egin barik, bakoitza bere bitetik aldebanatu ziran.

Kalean, zain egoan Ana, Anton'eri agurka asi zan, baiña Liberata'k eskutik ten eta beragaz eroan eban.

Mendaro'n ez da dana gozo

Ibilteko aitzaki eta errukirik ez eukan Rosiña'k. Oituta egoan orretara.

Eta egunik galdu barik, bere pardeltxoa etxean lagata, berraro biurtzeko asmotan, Mendaro'ra joan zan.

Billatu eban ango augustindar monjaen konbentu txikia Garagartza auzoan.

Txiliña jo eban.

Eta ate zarra zabaldu ta barruko tornu narraza gilin-galanka, egur ots eta kate zarataz, biraka asi zan.

Katillu bat arto esne etorran tornuan.

Barrutik berbarik ez eta Rosiña'k ez ekian zer egin.

—Parkatu, esan eban norbaitek entzungo eutsalakuan, ni ez nator eskean.

—Esne beroa sekula ez dator ibiltarien kaltean.

—O! Uste bako arrera.

—Jaunari emon eskerra.

—Ez dakit ondo natorren.

—Apaltasuna da jatorren.

—Ondarrutarrik egon al zan emen iñoiz monja?

—Ia egunero datoz andik arraiña emonga.

—Ez, jakin nai dodana...

—Barrukoa ba da emen ixilpean gordeten da dana.

—Ara, nire aita Arturo zan. Arturo.

—Hermana, no me des pan duro. Ori zan bere lenen-
go eskabidea.

—Ba eukazan orrelako urteerak.

—Ez ziran makalak amaierak.

—Ta neska zalea ei zan.

—Guk tornutik barrura dakigu bakoitza nor dan.

—Ara, bere alaba naz ta ez dakit nor zan ama.

—Beartsu izan lei edo etxe andiko dama.

—Mesedez, olgetan lez zabiltz bertsoan.

—Olaxe egiten dogu barruan be salmotan.

—Nik ama billatu nai dot, nirea.

—Emen gaitz orrelako baten bidea.

—Mesedez, zenbat ondarrutar egon dira monja?

—Neguko gosetean etorri ta udan ospa.

—Ez al da etorri iñor maitasunik galduta?

—Ona datorrena beti dator mundua salduta.

—Aidean ipinten daustazuz kirioak.

—Oraintxe kantatu bear nik Kirieak.

Esnea artu dozu?

—Katillua or daukazu.

—Parkatu. Aurreko etxean sakristanak poztuko zai-
tu.

Eta tornea irauli zan gilin-galanka.

Eta monjatxoa eskutatu Agur Mari esanka.

Andre txoliña

—Sakristana zala esan ebanak, ukondotik be berba egiten eban. Ba eukan orrelako zerbaiten entzutea be.

—Ondarrutik zatoz?

—Bai.

—Eta ako Barbara?

—Ez dot ezagutzen.

—Eta Petra?

—Lengoan il zan.

—Tabernaria?

—Bai.

—Errosario bat eskiñiko dautsat. A zan neska, a. Amaikari lagundutako emakumea.

—Eta gizonei.

—Bai arek.

Eta Liberata?

—Ez dakit nor dan.

—Zu ez zara ondarrutarra.

—Ez dakit.

—Zeiñen alaba zara ba?

—Ori da jakin nai dodana.

—A la la!

Bai, Ondarru orretan odol beroko batzuk egon izan dira.

—Nun ez?

—Ori, alaxe da, nun ez?

—Ta emen aztarrenen bat billatu nai?

Konbentutik txiliña jo eben.

Petra saltaka joan zan.

Eta bereala biurtu.

—Oneik monja txoliñok!

Bat berbetan dagonean, beti kezketan. Kontuz ibilteko berbakin. Ta eurak? Kapillauak esaten daki txilin-txilin ordez, txolin-txolin ibiltzen dirala.

—Nire aita Arturo zan.

—Arturo txorrotzaillea?

—Bai.

—Ene ba da, zenbatena a!

—Andrea...

—Ba dakizu arek zer esaten daben?

—Daben, ez, eban, gaixoak.

—Alaxe. Ezkonduekin ibiltea zala pekatu. Bestela aragiak eskatzen ebana, ez zala bear ukatu.

—Ba dakit edonun be etxeko laster egiten zala.

—Emen ibiltzen zan tornuan, tartean tartean monjeekin algara bizian.

Zer zan bera, ezkondua ala alarguna?

—Nire aita. Txarra izan da be nire aita. Eta niretzat ona.

—Kontxo! Arturo`ren gauzak.

—Konbentu onetan ba dakie egoten, beste batzutan lez, amatuteko dagozan neskak?

—Emen egon izan dira iñoiz neskatillak, beteta, jakiña, errian iñok jakin ez dagian, edo ta familiko asarre, lotsa eta orrelako aitzakiekin.

—Ta umeak?

—Bai, umeak... inguruko baserrietan lagaten zituen. Norenak ziran jakin barik, oi dan lez.

Monjak berba eginda eukiten eben. Bi-iru neuk be eroan nitun bataiatzera, aita ta amaren ezaupide bako zirala-ta; emen, gurean agertu zirala-ta.

Jakiña, ezin ukatu emen jaio ba ziran emen agertu ziranik.

—Alaxe da.

—Petra batek ba ekian emengo barri.

—Emen egon zan bera?

—Arek ixillean ordaindu eutsen emengo egoera, bere ostatuan jausitako serbitzari batzuei.

—Serbitzariak.

—Bai, aitzaren bat be egon zan.

—Bere aitzak?

—Oker ez ba nago areik mutillak izan zituen.

Barrero txiliña, sakristaniari deika.

Larri biurtu zan, solora joan bear ebala ta agur egi-ten. Gaberarte, beintzat, barruan lan egin bearko ebala.

Ori ikusita, beste baterako bidea ba ekiala ta errira
biurtu zan, zerbait jakinda, baiña geiago jakin bearrean.

Kai egalean

Itxasorako deia jo eben.

**Gertu zan Anton. Itxas jantzi, otzara, jaki, tresna ta
guzti.**

**Etxetik urten eta kai bidean kantoi estu eta eskutu
baten geratu zan.**

Peru ikusi nai eban.

**A itxasorako asmotan igarten ba eban, bera ez zan
joango. Txalopa baten ezin eikien joan.**

Ez eutsan txarkeriz edo indarrez erantzun nai.

**Len Peru berberak egin eutsana egin eikean, gaba-
ren illun eta itzalean.**

**Ez eukan orretarako gogorik. Ez eban nai erri ba-
rruan bera baiño zar eta zorrangoak beratzen ibili.**

Bakoitza bere bidean eta bakean. Ori zan bere naia.

Aurretik igaroten laga eutsan.

Gero Mitxel patroiarengana urretatu zan.

Ez eban nai besteak konturatzerik.

Deitu eutsan:

—Mitxel.

—Zer.

—Ez nator.

—Gaixo?

—Ez.

—Etxeko zeregiñak?

—Ez ta.

—Zegaitik?

—Geiago ez nator txalopa onetara.

—Ez dozu orrelakorik egingo.

—Erabagita daukat.

Jakingo dozu gertatua. Bekokian daukat danen agiri.

—Bai, ez dago ori ondo.

—Peru ta ni ezin geinkez txalopa baten joan. Gitxiago a ta ni joaten garean lez bata bestearen atzean.

—Peru atarako dot.

—Ez, kaleko asarre bategaitik ezin lei gizonik txalopatik kanpora atara.

—Kalean kaleko ta itxasoan itxasoko.

—Baiña kalean eta itxasoan gizona bat da. Zeregiñen gaiñetik dago gizontasuna.

—Minduta lagaten nazu.

—Gizalegea da.

Nik, txalopa onetan nai beste edonun, itxas lanean

edo kalean, alegin bardiña egingo dot. Baiña gizonak bere nasaitasun bat bear dau.

—Ain zuzen be txalopa zaintza, lemia, zuri lagateko edo lagaten asteko asmotan aitzakiak billatzen nabil.

—Danok nai dogu agindu, baiña gaur ez nitzake zuen etxean be giroko izango.

—Zegaitik diñozu?

—Zure emazteak ezin nau ikusi.

—Lenengo egunetako berotasuna.

—Geroago be arek.

—Alabak begiko zaitu.

—A gaztea da.

—Oraiñarte betozkoz gendun etxean. Zu nundik ikusiko dabillala igarten dausat.

—Nik ez dausat amets biderik emon.

—Ori berezko izaten da.

—Nai dana, oraindik gauza asko jakiteko nago beste ezetan pentsatu baiño len.

—Zetaz?

—Nire bizi bidea dala-ta.

Ezin neike jarraitu, oraiñarte lez eroapenez eta mutu nire jatorriari buruz.

—Anton, nik ez zaitut txalopatik atarako. Egun batzutan, etxeko gora beren aitzakiz, gauza batzuk argitze-ko zareala-ta, Mikol gaztea eroango dot.

Nire pentsabidea ba dakizu.

—Mesedez, egun bi irutan ez erabagirik artu.

—Ondo joan.

Aurtzaroko errian

Ez zan, aurtzaroan eta geroago, erritik urrun bizi Anton.

Bergara gainean, Angiozar erriko mendietan sartuta, ango baserri zar eta txiki baten.

Andik urten ezkerro, ez zan Ondarru'tik iñora aldatu. Eta bere errira be ez zan sekula joan.

Ez ekian ango barririk. Alegiñik be ez eban egin ezer jakiteko.

Nai be ez eban iñor ezagutzerik.

Ia amazortzi urte ziran andik iñori ezer esan barik, iges egin ebala.

An bertan, Angiozar'en. basa mutil bat lez euken etxean, ikatza egitetik bizi bide kaxkarra ataraten eben senar-emazteak.

Beti ebiltzan alkarren aurka, alkarregaz burrukan.

Bizibide garratz eta gordiñagorik!

Edan egiten eben biak.

Eta orrelako egunetan, alkarri esaten eutsezanak, edonor be larritu eta iguindu egingo eben.

Origaitik Anton bakartadean azi zan. Erriagazko artu emon barik.

Berezko eziketa eukan, umetan abadeak erakutsi eutsan eskola apurra ta dotriña lagata.

Lanerako nekerik ez eukan lez, gau ta egun orretara oitu zalako, bere bizibidea mardultzen ezagutu eban.

Eta ez eban jakin gurasoekandik ezer.

Bidean eioala, baserritar bateri itandu eutsan zetan ete ziran lengo ikazgiñak. Basabide'ko ikazgiñak.

Gizona ez bearrez il zala eta andrea erdi zoro il zala bere bakartadean, goseak eta edanak artuta. Baserria be ez zala euren eta ezelako errazturik ez ebalan an billatuko, esan eutsan.

Anton'ek zein ete zan jakin naian, atara eutsan Zulueta'ko semia zala.

Eta gizon onek bere aldetik, ia nundik ezagutzen zintun ikazgin arek, eta lagun baten bidez euren entzutea eukala esan eta eten eban Anton'ek bere jarduna.

Besteak bai jarraitu esaten ba eukela areik mutiltxo bat be, baiña iñok ez ekiala aren barririk, angoak Ameriketara joana zalakoan egozala.

Abadearen etxera joan zan.

Abade zarra.

Ez zan bere denporetan egoana, nai ta aren gomuta andirik euki ez.

Agertu eutsan bere naia.

Bere jaiotz agiria nai eban, biar edo etzirako garbitasun edo nortasun bat edonun agertzeko be.

Angiozar'en ez zan billatzen bere agiririk, nai ta Basabide etxea angoa izan.

Ogei ta amairu-amalau urtetan ebillala...

Urtean sei zortzi jaiotza egōzan, eta ez zan gaitz jaio barrien bataioak erreskadan ikusten. Esandako urteak baiño lau atzerago ta beste lau aurrerago be ez zan irakurten bere agiririk. Anton bat bai, ba egoan, baña a bizi zala ta ba ekiala a nor zan, esaten eban abadeak.

Ikazgiñaren barri eskatu eutsan.

A bai, aren eriotza garbi egoan: Martin Arbide.

Eriotz negargarria izan zala, jakin erazi eutsan abadeak. Beti lez burdia ikatzez beteten iñarduala, eta itxuraz erdi edo geiago edanda, bizibidea be, geitu eban abadeak ederkatura egitearren, alakoxea zalako, idiak asper-tu edo zerbaitek zirikatuta, bat batean indarkeriz asi eta burdiak zapaldu eta odoluztuta biaramonean billatu ei eben.

Zertzelada guztiekin egoan agiria.

—Eta bere emaztea, nire ama?

—Senarraren agirian agertzen dan lez, Soga Iturri zan.

—Bai. Soga.

—Ni etorri aurretik azkenengo obiratzea da arena. Gogoan daukat zerbait, orduan esaten zana beintzat.

Burua zeatz galduta.

—Ba zenkien ezer?

—Lendik eukiten zitun aizealdiak.

—Itxuraz, a be, bere bakartadean, edanari emona zan.

Esan be egiten da, baiña guk abadeok ba dogu onetan lana, batez be bizibide garratzetako bakarti oneik zuzendu ta eurei laguntzen. Baiña orretarako be urteak bear dira, ta ezanpidea, ta gogoia lanerako.

Billatu eban agiria ta erakutsi.

Onek bai, onek ba diño zerbait bere semea... semea? Semea zara benetan?

—Zer ba?

—Emen semetzakoa diñola dirudi.

Egon ia...

Ta betaurrekoak aldatuta asi zan irakurten: alarguna... semetzako mutil bat... gaiñera ba diño ez dakiela errian nun dagon. Ameriketa'n ete dagon sinistea dagola, bere il-barririk be ez dala jakin...

—Ortaz, ni ez nitzala euren seme?

—Ziur zagoz eurak zirala gurasoak?

—Martin, bat, ikazgiña eta Soa edo Soga, ori eskribaduak dakie, ama. Ez da ba nastuteko izen ugaria be!

—Ez. Baiña liburuak be batera datoz.

Kontu egin, eurak beti emen bizi ziran eta, emen jaio ba ziña, eleiz onetan egongo zala bataio agiria be.

—Eta beste nunbaiten jaio ba nitz?

—Gaitz.

—Zelan gaitz?

—Gerrate aldien baten gertatu ezik, emendik ez dua iñor iñora seiñik egitera. Lotsari bakoa izan da beintzat.

Ain zuzen, Angiozar'en, ez dago beste iñor orrelakorik. Eta len esan dodan lez, au garbi dago, semetzakua diño emen.

—Ez neban sekula jakin.

—Gurasoak be olakorik ez dabe agertzen... ezkontzako paperak egiterakuan edo ta nai ta ezko premiñaren baterako izan ezik.

—Ez neban onelakorik uste.

—Ez zara lenana orretan. zoritxarrez.

—Nundik atara edo lortu neike orain nire barri?

—Zoaz...

Egon.

Zenbat urte esan dozu?

—Amairu-amalau inguru.

—Ogetak, jakiña.

—Agirian dodaz, ez?

—Gogoratzen lenengo jaunartzea emen egin zendu-na?

—Bai.

—Zazpi urtegaz?

—Ori ez dakit.

Abadeak jaunartzetako liburua atara eban. Bai, an egoan, beste zazpi izenen artean:

—Esan doguna. Danok datoz batera. Ikusi: Anton...

Basabide'ko Martin eta Soga'ren semetzakua. Eta S. M. O.—B.

—Zer da ori?

—Bai, au Santa Marina Oxirondo izango da. Bergara'n, jakiña. Leike zure agiria an egotea.

Angiozar'eko abadea urte askotan Astigarribia'n egona zan. Ezagutzen zitun motrikuar arrantzale batzuk, Anton'ek be ezagun zitunak.

Bai ondarrutar andrak be.

Arno bidetik Kalbarixo'ra jo ta Astigarribi'ra sartzten ziranak, ango san Andres ikustera. Eta gero Sasio-la'ko san Antonio. Errezatzaile errimiak areik, bere esanetan.

Eta abadea zala ta ixilik euki bear ebala, baiña ezagutzen zitula konbentuan monja egozalakoan, ango auzoetxe baten euren denporak bete eta erdibituarte egoten ziranak.

—Orrelakoen baten semea ete naz ba?

—Leikena, baiña gaitz. Mendaro aldekoa beintzat.

—Zegaitik?

—Zure bataioa Bergara'n dagolako, itxuraz.

—Ta ezin lei andik Bergara'ra eroan?

—Leikena da, baiña... ikusi, ikusi ta aztertu lenengo Bergara'ko paperak

Len baiño kezkatia

Oxirondo'n sartu ta Angiozar'eko abadeak bialdu ebalá esan, ango abadea beriala zan kontu kontari.

Alaia zan. Kontu esale. Urteetan sartua, baiña begi argi, irritsu.

Bateri goitik bera begiratu ta ba ei ekian bakoitzari zelan itz egin.

Ibiltari izana. Ia bertsoaririk geienak ezagutzen ei zitun eta asko joaten yakozan bertso zarrak gogoratu eziñez ebiltzanetan.

Anton'ek bere naia agertu orduko, asi zan:

Ara, nire pozik andienetako baten billa zatoz.

Gixajo oneik, sasikume diralakuan dabilzan koitá da oneik mundu zear argi ibilteko be bear daben nortasuna lortzen laguntzea da niretzat lanik pozgarrienetakoá.

Ezin geinkez beti illunpean ibili.

Jausi egiten dala bat bere naikerietan?

Zeinek ez daukaz tartetan odol beroak?

Odolak baiño koplak dauke erru geiágo. Koplak, labankeriak. Ta gizonak esaten dabena Kredoa baiño ariño sinistuten dan lez, ariñoago jausi be.

Kontua dator lenengo.

Jakiña, kontulariak gizonak dira.

Ez dakizuz bertsoak?

Berotasun gozo bat
zañetik zañera

nere gorputz guztian
maitea, sentitzen da:
gustoaren pasioz
sartzen zait ikara,
itzikan ere ezin
asmatu dedala.

Orren ondoren kurutzea.

Ama doloretakuak:

Ojala baldin banintz
munduan bakarrik,
onela bisita dana
disimulaturik.
Lan egiña urriki
ezta probetxurik,
ni emen gelditzen naiz
dena urraturik.

—Bertsolari jatorra zara.

—Ori, abadea naizelako, seigarrenean arduraz nabi-
plarik zitalenak?

Baiña, bestela?

Nun billatu ditue ba euskal bertsolariak euren ko-
plarik sitalenak?

Dana dala, aita ta ama jausita be, ez dira esaten dan
aiñako iñuzenteak. Ez esan niri orrelakorik.

Ondo dakie bai zer egin bear dan.

Ta ume koitaduak?

Nik, orrelako gauzakin autortzara datozanei esan
be egiten dauset: Nai dozuena egin; ibili nai dozuen lez.
Bakoitzak jakingo dau gero zelan ordaindu. Baiña ezer

ba dator, txarrikuma lez umerik ez laga zeñek artu edo batu.

Emon beintzat, datorrenari, aitatasuna edo amatasuna.

—Zure izenak?

—Anton Arbide Iturri, gurasuak nik pentsaten nebanez izan ba lira.

—Txarto esanda, txita orduan, oillo txita. Barriro be nik bertsotan argitu bear:

Bederatzi illabete
urbillen urrian,
justo kunplitu ziran
ogei ta bostean.
Oñaze ta dolore
aundien artean
txita bat atara zen
ez ustekabeen.

—Au da mundua, au.

Otso ta artzak txitak ataratzen.

Gogorra etorri bear!

Ia, ikus daigun.

Ogei ta amairu urte ta Anton...

—Bai.

—Nik be bai esan bear. Anton bakarrik.

Emengo Anton au zu ba zara, Mendaro'ko seroreak ekarri zinduzan bataiatzera.

Eta begiratu, zeuk ikusi zer diñon: Alegiñak egiña-

rren, ez neban lortu bere gurasoen izenik ataraterik. Ez aitarenik ez amarenik.

Orra, nik diñotsudana, libururutan dago.

—Sarri gertatzen zan au?

—Baten baiño geiagotan bai.

—Zegaitik Mendaro'ko seroreak ekarri?

—Orrelako andra askorentzat Mari Madalena lako-
xea izango zalako.

—Ta gero?

—Gero... Mendaro'ko monjak ibili bear karidadean
umea eskintzen.

Jantziakaitik ba dakizu edo jakin ziñei zer esaten
dan:

Monjak egin karidadean
ta neskak erabili banidadean.

Emen bertsoa aldatuta esan bear:

Neskak egin banidadean
ta monjak erabili karidadean.

—Ala ba zan, ni be orreitakoen bat izan nei.

—Ala dirudi.

—Kontseju bat: Zu nire gertaeran ba zengoz, zer
egin edo nora joko zenduke?

—Esaera zarrrik ba dakizu?

—Banaken bat.

—Ara au: Dakizun guztirik ez esan,

al zeinken danik be ez jan.

—Zer esan nai, orregaz?

—Ba kontuz eta sentzuz ibilteko, ta entzuten dan guztia iruntsi barik.

—Ori da, zur ibilteko, geldi-geldi ibilteko esatea lez.

—Ulertu dozu.

—Esatea lez: Azak baiño lenago sopak jateko.

—Eta guk abadeok esango gendukena:

Aitaren eginda asi lanean.

—Eskerrikasko.

—Mari ollasko.

Ta lepoa joten, kontu-kontari, bizi guztiko lagun izan ba lira lez, lagundu ta jarraitu eutsan abadeak atera.

Burukomiñetan

Iñor ikusi barik errira eldu ta etxean sartu zan Anton.

Gurasotzat eukazanen arduraz bizi zan azpaldi, ezer esan edo agertu ezarren.

Ia ogei urte ikusi ez zitula eta etxetik geiago ez biurtzeko asmotan urten ba zan be, barruko arra lakoa erabillan.

Petra`k etxea laga eutsala jakin ebanean, areik ze eratan ete egozan jakin eta ze erabagi komeniko ete ya-

kon ikasteko asmoz joan zan ara.

Buruzgaiñeko karga artuko ebala pentsatuta joan zan, baiña azkenean be gurasoak zirala ezagutu bear. Beragaz garratz izan ba ziran be, ez eban nai berak beragaitik iñok olakorik esaterik.

Eta bere guraso ez zana beragaz ain ondo agertzean, lotsatu lez egin zan berari orretara erantzun eta berak berenakin ezer ez egitegaz.

Ordurarte ez eban aukerarik euki. Beretzat ezagutzen eban.

Areik ikusita ze erabagi artu be jakingo eban. Origaitik adoretu zan joatera.

Baiña bidean billatu eban gizonak esana eta parrokoaren esanak jakitean, nasaitu lez egin zan, bere guraso ez-jakin, kaskar eta zoritxarreko areik bakea billatu ebelakoan eriotzan.

Gero, euren seme ez zala jakitean, nai ta abadearen etxean arduragabe agertzeko alegiña egin, barrua mintzen igarri eban.

Orain ez ekian bere benetako gurasoak, jakinda, bere inguruan ete ebiltzan be.

Ez ekian Rosiña'ren aita, esaten eben lako akularia izanda, aren seme eta Rosiña'ren neba ete zan be. Urteak eukezen bitarteko. Bi edo iru. Ainbestean jausiko ete zan, ba, gure gizona, orrelako egitadetan?

Eta Ana'k egiten eutsazan agur eta arrera biozko-rak berari be ikutu egin eutsen, nai ta Liberata asarre ikusi.

Alde on bat eukan: ba ekian Mitxel bere alde geratuko zala.

Bera zan, bera, bere buruagaz burukomiñak artzen oartu ta igarten ebana.

Rosiña ikusi nai izan eban.

Ezer jakin?

—Ez da errez.

—Zegaitik?

(Emen, itxuraz, orrelako zerbait gertaten zanean, igarri ta beriala neskak kanpora joaten ei ziran.

—Nora?

—Monjatzara esaten ei eben.

—Erriak igarri bear.

—Ez arin ba ebiltzan.

—Ta bestela?

—Bein erria konturatu ezkeru, lotsa galdua zan lez, areik euren umeak, nai ta aitatasunik lortu ez edo ezagutu ez, amatasunaz beintzat etxean geratzen ziran.

—Monja mistikak!

—Ez zan ain zuzen konbentu barrua izaten euren tokia, konbentu inguruan egoan etxeren bat baiño.

Arako gertaten ziranak, ez eben an egozan bitartean ikus-lagunik artu bear. Kartzela baten lez egoten ei ziran.

Etxeko entzute eta lotsa zaindu bear, ori zan arako errazoia.

Monjak ez ei eben jakin nai izaten senarraren izenik be. Alaz eta bein baiño geiagotan jakingo ebela diño emengoak.

Ara sartzen zana, umearen bizia salbatzeko asmoz joaten zalako lagaten ei eben monjak aukera ori.

Ondo pentsatuta ez zan gitxi.

Gaiñera, ba ekien, bein ara joatera ausartzen zanak, umea be nunbaiten eskutateko asmoa erooten ebala. Umerik ez eben konfiantzazko etxetako agindu edo eska-bideak eukiten zituen monjak. Bestetan, baserritar emakumiak ugariak ziran. Bateri edo biri bularra emon, bein artara jarri ezkeru, ez zan ainbesteko lan eurentzat.

Eta monjak esanda umeak Jaungoikoaren grazi ziralara, zer esanik ez.

Monjak eurak egiten eutsezan askotan zapi eta jantziak umearen lenengo urtetarako.

Etxeandietakoak, ordez, ia betiko zorra eta begirapena artu bear eurak ezin ebena eskintzean.

Rosiña etsita egoan.

Ez ekian berak Anton'en gertaerarik.

Onek esan be ez eutsan egin, bear ba da arek aleginetan jarraitzean, berari egokian zerbait jakin egian uste-tan.

—Jakin dozu zenbat neska monja egonak diran?

—Bost edo sei beintzat bizi ei dira.

Barbara eta Liberata, aizta biak egon ei ziran.

Nikasi. Au il zan. Mitxel'en lenengo emaztea izan zan. Iru seme euki zitun ta irurak bere txalopan itto.

—Ba dakit Liberata'gaz ezkondu zanean alargun eta ume barik ezkondu zala.

—Kontze be an egona da. Au luzaro. Sei urte inguru. Sei urtetan ez zan egongo ume bat ezin eginda.

—Bilbo'n edo beste nunbaiten egon eikean aiñatzen be, bere umea laga ondoren.

—Zelan gogoratu orrelako bategaz, gizona izan da?

—Olakoetan zenbat eta geiago pentsatu, kalterik ez dalako sortzen.

—Leikena da, bai.

Urrupiña bat be egon ei zan.

—Zein Urrupiña?

—Nasa kalia bizi dana.

—Zein dauka etxean?

—Iñor ez.

—Ta zeinagaz bizi da?

—Bakarrik, gizona perleziaz ilda alargun geratu zaretik.

—Au da komedia, ama izatera eldu ziran neska jausiak jakiteko, monja zeintzuk egon diran jakin bear. Beste iñun gertatzen da onelakorik?

Aize barriak Mendaro'n

Atun eder baten jaube egin zan Anton, Mendaro'ra joateko.

Jakinda egoan zer egin, an sartzeko, eta sakristaneari deitu bearrean, monjaen txiliña jo eban.

Oiturari jarraituz, torno zarrean, katillu bete arto esne bialdu eben. Anton'ek, ezer adierazi barik, bere atuna tornoan ipini.

—Mesedez, gaixoen bat naizela pentsatu dozue?

—Zegaitik?

—Arto esnea niri?

—Gure oitura da.

—Baiña gizona naz.

Ardau pixkat izan ba litz be!

Beriala asi zan tornua biurtzen.

Monjatxoaren ooo!... luze bat entzun zan, atuna ikustean. Jaunak ez gaitu aztuten!

Aren poza!

—Laster etorriko naz.

Eta Anton'ek igarri eban a joan zala eta berialako baten beste bi edo iru sartu ziralako berak ikusten ez eban tokian.

Tornua asi zan ibiltzen, eta basotxu bat ardau etorrian bertan.

—Kapillauarentzat geratu da ezer?

—Gurea sagardau zalea da.

—Nor zara zeu?

—Ni? Arrantzale bat.

—Uste genduan. Baserritarrak ez dabe ekarten atunik.

—Oraintsurarte pentsaten neban Anton Arbide Iturri nitzala.

—Ta orain?

—Anton bakarrik. Ez Arbide ta ez Iturri.

—Ulertzeko eran esan, mesedez.

—Nik ulertu ta irunsi be egiña daukat.

—Zer ba?

—Ogei ta amairu urtetara nua.

—Gure Kristo'k aiña.

—Ta?

—Amasei urte Angiozar'en bizi, ikazgin. An euki nitun gurasuak.

—Ta orain?

—Egia au da, aita ta amagandik aspertuta iges egin nebala. Ezin bizi.

—Zuzenegiak?

—Bai zera. Zoritxarrak jota bizi ziran. Beti alkarregaz burrukan. Aspertu nitzan eta eurekandik iges.

—Guraso errukarriak.

—Arrantzara jo neban. Arrezkero or nabil. Nire bizimodua konponduten igarri dot.

—Ez diño e ori arrantzale guztiak!

Nik an baserriko bakartadean baiño erosuago bizi naz.

—Ta gurasoak zer?

—Etxekoak ikustera joan nitzan lengo astean. Eurei, lengo dana konpondu naian, laguntasun bat emoteko us-tetan. Ta aita ta ama illak billatu.

—Zeruan daitezala.

—Ta beste gauza bat jakin: ez zirala nire aita ta amak. Seme ordez semetzakua nitzala.

—Ori bai mingarria lengoaren gain!

—Bai, mingarria eta kezkatia da oraingo nire egoera.

—Ta zenbat urte?

—Kristo'ren urteak.

—Ez egoan abadearen liburuetan nungo ziñanik?

—Zela ala billatu gendun Oxirondo'ko Santa Mari-na'n bataiatua nitzala, Mendaro'ko serora batek orretara eroanda.

—Mendaro'ko seroreak?

—Emen jaioa zara orrela dala.

Ogei ta amairu urte...

—Liberata'rena izango da, entzun zan ixil-mixillean.

—Liberata'rena il zan, besteak.

Arnasarik be artu nai ez da egoan Anton, azken ixilleko bi orreik entzutean eta monjak euren artean erabillan ixilleko kontu geiago jakin nairik.

—Ortik diñoē zuek, emengo monjak, zeuen izenean edo zeun bakean, monjatzako ziralakuan errietan sinistu eraginda, ba zenkiela ama egiteko egozan neskak ixillean eukiten.

—Konbentuan ez.

—Konbentuaren itzalpean.

—Konbentu zarrak tellatu zarra. Itzala be, edo itzalpea be, luzea.

—Egia esateko, zer egin bear da?

—Guzurrik esan ez.

—Ta zuek orain lez egia eskutatea guzurra da?

—Egiaren itzala.

—Egin daigun kontu.

—Kontuak arin esan, laster kantua dogu-ta.

—Egin kontu, zuen santak Barbara, Liberata, Urrupina, Kontze, Nikasi eta abar zirala.

—Letaña guztia dakizu, mutil edo gizon.

—Jakin eragin.

Orreitatik nor uste dozue izan leikela ni lako Kristo txiki bat sortu leikena?

—Antikristo`ren billa ez zara ibiliko?

—Ez, ni aita Jaungoikua edo Ama Sortzekuaren billa nabil.

—Espiritu santuak argi zaitzala.

—Ori da zuen erant zuna?

—Guk besterik ezin esan.

—Umearen bizia zaintzearren iñoiz amatuteko egozan neskak gorde izan ba dozuez, salbatzea lortu dozuen

umearen bizi berberak beartuten zaitue umeari bere gura-soa nor dan esatera.

—Zelan jakingo dogu ona etorri dan bat zein dan eta zein seme edo alaba dan?

—Ara. Arturo ezagutzen zenduen.

—Egin euskuzan konponketa batzuk.

—Konponketak eta geiago.

—Bai, ipuin zirigarriak esan.

—Aren alaba emen dabil.

—Ba dakigu.

—Ta? Ez dau merezi ogetak urtetako neskatil batek laguntzerik?

—Pozik.

—Orretara zetan argibide bat emon ez?

—Gauza bat dakigu ziur aren kontuan.

—Zer?

—Arek diñozan urtetan, emen ez dogula inor orretan ezautu.

—Ezin lei.

—Zetan guzurtatu? Ain zuzen ogetabost urte iga-roak dira gure Nausia, Ama Nausia jakiña, barriztu zan baten, kentzeko erabagi ori artu zala.

Arrezkero ez da emen olakorik.

—Barbara emen egon zan.

—Zein Barbara?

—Petra ostatukoaren aizta.

—Mutil, Barbara birritan be egona da emen. Baiña ez orrelako autukin. Kendu burutik ori. Barbara monja egon zan.

—Errian orrelako zerbait esaten da.

—Barbara gaixoa, gaixo zalako, osasunez makal ebillalako urten zan. Lau urte egin zitun egonaldi baten, ia bost bigarreanean. Baiña barruak ez eban artzen.

—Beraz ziurra da Rosiña emen ez zala sortu?

—Edonun esan leikena da.

—Eta ni?

—Ogei ta amairu urte... Leike. Sasoi aretan egon ziran bat edo bi.

—Nortzuk?

—Pekatua esaten da, pekataria ez.

—Ziria sartu ta atara ez.

—Guk gauza bat dakigu. Iñor egonda be, konbentuko lez ezetz.

—Ta orretarako emen billatu eta egokitzen zan etxean?

—Ai, ori... guk barrukoa jakiterik be ez dogu lortzen ta zelan kanpokoena jakin?

—Dana dala esan dodan letaña ziurra da, ez?

—Zelako letaña?

—Lengo izen zerrenda.

—Jesus! Madalena falta beintzat.

—Zein Madalena?

—Santa pekatariak esaten ez zara ibilli ba? Libera nos Domine.

—Zein Libera?

—Gizon, Libera nos Domine, Letañetakua. Libera nos Domine.

Kanpaia.

Ara, beriala goaz ain zuzen be letañak errezatzera.

Beste baten ba zatoz, atunik barik be, pozik artuko zaitugu. Eta arto esne ordeaz, ardaux pixkat nai ba dozu, kapillauak lez birritan jo txiliña.

Alkar ezagutzen

Rosiña'k egunetan eukan egon lekuko etxeokandrea, Liñe, Aretxamendi baserriko andrearen ezagun andi zan.

Eta an agoala, baserri aretako andrea, Marta, agertu zan.

Barbara gaixotu zanetik etorri barik egoala ta areri ikustaldia zor eutsala ta errira etorri zan.

Barbaranean erabili zituen kontuen artean, errira etorri zan neska gaztearen autua erabili eben. Arturo'ren alaba zala ta etorri ta inguruak aztertzen ebillarena.

Andre arek ba ekian zerbait.

Zerbait baiño geitxuago.

Ikusi nai izan eban Rosiña.

Etxean sartu zan.

Berbarik ez.

Alkarri begira jarri ziran.

—Arturo'ren alaba?

—Bai.

—Izena?

—Rosiña.

—Rosiña Marta.

—Alaxe da, nai ta lenengoa bakarrik erabili.

—Ogei ta bi urte.

—Bai...

Eta begiratu, begiratu luzaro.

—Sinistu nai ez ta sinistu bear.

—Zer?

Gero ta larriago, malkoz begiak busti, negarrez mara-mara asi, ta neska musuka jan bearrean:

—Neure Rosiña? Neure Rosiña!

Berera ezin etorrita igarten zan andrea. Uste bagako gertaera aregaz izututa, zer egin jakin ez da.

Rosiña berak be berekautan zelan, nundik, zegaitik ete zan arrera a.

—Nok esan dautsu nire ama zareanik?

—Biotzak. Nok esango eustan ba?

—Baiña zetatik?

—Zure aitak esan eustan igaz: datorren urtean zuzaz izango dozu Rosiña zure alaba.

—Ala esaten eustan niri be. Baiña urte bat joan eta bestea be joan...

—Eta ezaugarri au emon: Petra'gandik ez dago urrun zure ama, esango eutsula.

—Alaxe da. Egia.

—Esaten eustalako: Petra'ren ostatura ekarriko zinduzala.

Berak ba ekian ni Barbara'ren Lagun andi nitzala. Eta ona etorten zanetan Barbara'ren etxean lagaten eustan zure irudien bat. Aldian darabilt beti. Ikus.

—Nirea da, bai.

—Nire Rosiña! Eta zabaldu eidazu bularra.

—Zetarako?

—Santiago'ren domiña eukiko dozu, zidarrezko domiña. Azken urtean aitak emona.

Begiratu, ara nik be bardiña, berak, zure aitak, Arturo'k emona. Biok izen bardiña atzean: Rosiña.

Eta barrero besarkatzen asi.

Alkarri begiratu ta malkotan ezin ikusi.

Alkar igortzi ta samurtu, musuka jan bear.

Atea jo eben.

Marta, negarrez egoalako, lotsatuta, gela baten sartu zan.

Anton zan.

—Negarrez, Rosiña?

Mendaro'tik nator.

Ango monjak ziur dagoz zu an sortua ez zareana.

—Baiña Anton... Ama... ta negar eta negar, berbarik ezin asmatu, ittotasunez.

—Zuk iñoiz pentsatu zeinkean Barbara be ez da. Ziur dagoz. Barbara ez zan bide ortatik ibili. Ziur dagoz.

—Baiña ama...

—Ez zaite estutu. Billatuko dogu.

—Nun billatu? Ama ortxe dago.

—Nun?

—Gela orretan eskutatu da.

Arrigarri da au.

—Ama?

—Bai, ikaragarri da.

Ez dakit nor dan, baiña edozein ba da be, ama. Ziur, ziur.

Zoratzen nago.

Laga nagizu, mesedez... konturatu... Ezin zan egon be. Ikusiko zaitut, Anton.

Ta Anton, bera be erdi negarrez, kaleratu zan.

Liñe'k jarraitu eutsan deika:

—Anton! Anton!

—Egia da?

—Bai. Or dabiz batak ezaugarri bat eta besteak be-
rea agertu ta alkarri erakusten.

—Poztuten naz.

—Ba dakizu nor dan?

—Ez dot ikusi.

—Aretxamendiko Marta...

—Marta? Ezagutzen dot. Petragana etorten zan
iñoiz.

—Etxeko ziran.

Ara orain aukeran.

Etxe ona beintzat. Eta neska faltan dagona, ain zu-
zen.

Rosiña berarentzat be a zelako zoria!

Egia esateko bere egoera ez zan beste batzun aiñako
larria.

Aita ezagutzen eban.

Ama... ama zan aidean ebillana.

Amari, etxeko zarrak, ez eutsen ezetara be etxera
ezkon aurreko umerik eroaten lagaten. Deabru kume bat
etxera eroatea zan ori. Ilgo eben. Ain itsu ziran orrelako
egitadetan.

Eskutuan euki eben, baserri baten.

Gero, etxeko burukomiñen bildurrez, konponketa
bat egin eben.

Arturo'k Markiña aldean euken txabola baten laga-ko eutsen jaiobarria.

Edo laga eutsela iruditu eragin.

Beretzat pozik artuko ebala ta bere aitatasunez bataiatu eben.

Jaio zan etxeakoak euki eutsen iru urtetan, Galizi'ra eroan arte. Eskerrikaskoan euki be.

Marta'k, beti be gero konpontzekotan, umea eroaten laga eban.

Beti kezkatu eta naigabetan biziaren, oitu egin zan bizitza onetara.

Denporak igaroaz, gurasoei eriotza ariñago ekarriko eutsen bildurrez, berari egokion bizia, etxeo bizitza konpondu edo zuzendutea bastertuta eukan.

Arturo il zan.

Jakin eban, beste konpontzallen batek nunbaiten esanda.

Zuzenbide eta urteroko artu-emon edo ezaupide azalekoak galduta geratzen ziran beretzat.

Arturo berak ez eukan Marta'gaz ezkontzeko aizerik. Alabarena konpondu ta bakoitza berean eta alaba bitartean. Orrelako pentsakera edo filosofi lakoa eukan.

Rosiña'rentzat ez zan gaitz, bein ama ezagutu ez kero, jaiotzako agirian Arturo'ren aitatasunaren alboan amatasunaren ezaupidea geitzea.

Oraindik bizi ziran umea, jaiobarritan, etxean euki ebenak. Eta gero be iru urte arte azten arduratu ziranak.

Ez ziran ukatuko, aginduta euken, premiñarik ba zan, autortza zuzen eta bidezkoa egitera.

An egoan ezaugarri egokitzat izena bera be: Rosiña Marta.

Aretxamendi'n ama zarra bakarrik bizi zan. Il batzuk ziran aita il zala. Eta amak, ez entzun eta ez ikusi.

Marta'k bera zaintzen jarraituten eban.

Morroi zintzo eta jator batek eroaten eutsan etxe ta inguruko gorabera guztia, ondo ordainduta ta gerorako be aizeak artzeko itxaropenean.

Rosiña ta Marta gero ta pozago ebiltzan. Ezagutu ta nasaiago.

—Etxera etorriko zara?

—Etorriko ez naz ba?

—Ez ziñan etorriko ara biurtzeko asmotan.

—Nora?

—Galazi'ra edo...

—Nik ez daukat an iñor.

—Iñor iñor be ez?

—Ez.

—Eta... eta... gerorako naiko zaitunik be ez?

—Ez, ama. Lenengo nire ama ezagutu arte biotzak ez nau beste iñorengana eroan edo makurtu...

Guzurretxeko egiak

Anton'ek ezin kendu eban burutik monjen egonaldiko eguna eta bertan entzuna.

Bere bostean: Ederto jo dauste arpa. Lenako kanta zarrak, gabonetako kantak egia:

Izarrak urteten dau
odeiaren erditik,
bai ta semeak ere
amaren sabeletik.

Artzaintxuak alboka,
gure monjak arpa...

Letaña ta guzti jo dauste arpa. Adarra joteko, Madalena geitu gaiñera.

Libera, Libera... baiña beti Liberata, erdizka ba da be, autuan.

«Liberata izango da... Liberata'rena il zan» neuk entzun.

Burua nastauta ebillan.

Guzurretxera joan zan, burua pixkat alaitzera.

Pelota jokia ikusi, edo jokatu iñor ba egoan; kontuak esan, besterik ezean.

Ta ain zuzen be Mitxel, bakarrik, bertan.

Berari itxaroten?

Leikean.

Itxasora noiz joaten asi erabagiteko eukan.

Jakin eban Peru'k urten ebala lengo txalopatik. Beste bat billatu ebala.

Jakin eban, baita, Peru'k sekulakoak esaten zitula Mitxel patroigaitik.

Bere amagandik ekiazan arek konturen batzuk, baiña erdizka. Ain zuzen Mitxel'en lengo emaztea eta aren ama lagun andi ziran eta Mitxel bitarteko zala zerbait euki. Gero, erri txikietakoa, bolo-bolo esatekoak eta aixatzekoak.

Poztu lez egin zan Mitxel Anton an agertu zanean.

—Itxaroten nengoan.

—Ez dakit zela etorri naizen.

—Biozkada bat euki dot.

—Nik aizetu bearra.

—Ba dakizu Peru'k txalopatik urten ebara?

—Bai.

—Eta akerkeriz, trapu zarrak astintzen dabillala?

—Zerbait jakin dot.

—Beti esateko nenguan.

—Zer?

—Ba dakizu birritan ezkondua naizela.

—Bai.

—Ta iru seme euki nitula lenengo ezkontzatik.

—Irurak itto zirala be bai.

—A izan zan, a!

Baiña ez dakizu arein aurretik seme bat euki nebanik.

- Ez.
- Eta seme ori bizi danik.
- Ez-ta.
- Zuk baiño geiago daki Peru'k.
- A al da zure semea?
- Arek ba dauka ama, eta aita be ezagutu eban.
- Ortara, ia txarto pentsaten asita nengoan.
- Anton...
- Zu Angiozar'en bizia zara.
- Ona etorri aurretik. Baiña nok daki ori, iñori esan ez ba dausat?
- Ikazgiña izan ziñan an.
- Nire aita zan ikazgiña. Aita edo... ba dakizu.
- Burdi batek zapalduta il zan.
- Ala gertatu zala oraintsu jakin neban.
- Ba dakit Mendaro'n egon zareala.
- Zerbai jakin naian.
- Ta?
- Monja orreik latin be ba dakie.
- Itz labanak eta eskintza onak.
- Ez niretzat.
- Zegaitik?
- Nire jakin naietan ez dot ezer atara bertatik.

—Azeri zarren bat ibiliko zan andik.

Rosiña'k errezago billatu ei dau ama urreagotik.

—Ni Angiozar'en egon nitzana dakiana zeren erras-tuen billa joan ete zan ara?

—Nora dator ori?

—Zegaitik esan daustazu itto ziran iru semeak baiño lenago beste bat euki zendula?

Nik egirik ez dot ukata sekula.

—Ortaz...

Ni Angiozar'en bizi nitzan.

Ango aita ta ama ez ziran ez aita ta ez ama.

Iñok ez ekian an euren semea ez nitzala... ta zuk ba zenkien an bizi nitzala.

—Bai, eta Oxirondo'n bataiatu zinduezala.

—Mitzel...

—Zer?

—Pentsaten nagona egia ete da?

—Anton! Uste neban igarrita zengozala.

Malkoak urten eutsen Mitxel'eri.

Anton, bera begira, luzaro geratu zan oldozkor.

Ama-alabak baiño aita semeak sendoago eusten dautse biotzari minkor.

Eta orrela egozala, Peru agertu zan.

Begiratu eban. Konturatu zan beste iñor ez egoala eta besteak entzuteko eran, berekautan, argi esaten eban:

Lebatzaren semia zer da? Lebatz kumia.

Eta nik dakidan baten semia?

Kortzeleko aita ta ama mamuen semia ba da... Mamua.

Ez?

Alaxe ez da izango ba?

Mitxel'ek besotik oratu eutsan Anton'eri, ez jaramonik egiteko esan nairik, geldi egoteko adierazi nairik.

Eta sagardautegi aldera eroan eban.

Peru, gero ta deadar andiagotan, beti be bere burua-gaz ba ebilken lez:

Akerraren amak zelan egiten ete dau semea aker?

Peru eta Anton laster asiko ziran zirra-zartaka, burruka bizian, Mitxel egon ez ba litz.

Mitxel'ek ba ekian geiena beretzat zala.

Anton'ek, ordez, beretzat artzen eban bestearen ez-tena.

Salomon be agertu zan Millan'egaz. Oneik be akulari etozan, zirikalari.

—Trumoirik entzun dozu, Millan?

—Atzo be jo ei eban Akilla'n.

Mitxel'ek, igarrita, beste barik zital:

—Salomon, lenago be esan neutsun zulako barru estu ta txikikoei ba dakidala nik nun emon.

—Guazen emendik, Millan, erriko bandan.

—Ba dirudi batzuk lemia okertuta algaretean dabil-tzala.

Andiagorik ez zan entzun eta adar topekarik ez zan ikusi, gaztetxu batzuk agertu ziralako, pelotarako alkarri zemaika:

—Ogeitabira esan dogu.

—Ogeitamarrera.

—Makalaren aitzakiak dira orreik.

—Zein da emen makala?

—Zeuk ez pentsatu itxasoan lez patrioiak esan dabe-la ta ixilik egon bear dala.

Geuk be ba dakigu amaren semiak gareala!

Bidez bide

Arta bidetik zear asi ziran, andik urtetearren.

Iturri baten aurrean gelditu, ta Mitxel'ek, odolak be-rotu cutsezala ta ur pixkat edan eban.

Eta aurrera jarraitu bearrean, berak iñoren lotsarik ez eukala-ta, guazen barrero bertara, esan eutsan Mitxe-l'ek Anton'eri.

Onek, bakerik ez zala ezegaz ordaintzen, eta joate-kotan etxeruntz joatea obeto izango zala ta zuritu eban.

—Oraiñarte ni denporale batek ez nau bildurtu.

—Baiña denporaleak beti dauke euren arrisku.

—Arek niri lebatzaren semia zer dan erakutsi nai?

—Zu baiño zuzenago jo nau ni arek.

—Niri gizon ozkil batek irri?

—Jaungoikuari be ipini eutsen Inrri.

—Geuria da errua, ebagi ez dogulako egurrez.

—Zeuk eutsi zeustan besotik zerbaiten bildurrez.

—Bakea, bakea esaten da. Ez al da obe lenengotik jo ta keia?

—Ba dakizu esaera: Agureak burua luzia ta odola meia.

—Zu be bestien antzera zatoz?

—Mitxel, urteekin danok batera gatoz.

Guzurretxe aurrera eldu ziran.

Pelotan jarraitzen eben eta igarten zan joko estuen baten ebiltzala. Ia gizonik geienak an egozan, orma gainean.

Jokoaren garrez ez ziran konturatu angoak bidean nortzuk ebiltzan.

An sartu edo geratzeko gogorik ez eben agertu. Biak, alkarri ezer esan barik, kai aldera, ondar alderako bidean aurrera joan ziran.

Txalopa ostean

Kalea igaro eben.

Erriberatik zear iñor ez eben ikusi, edo eurak ez ziran konturatu andik iñor ebillanik.

Mare berakoa zan eta txalopak ondar gaiñean ikusten ziran. An egoan eurena be.

Ondartzara joan, txalopeari begiraldi bat egin eta alderdi baten, itxasora edo itxasoari begira jausten zan alderdian, txalopeari lepoa emonda geratu izan.

—Ta ama?

—Jakin nai?

—Bizi da?

—Bai.

—Zegaitik laga nindun?

—Nigaitik. Edo biokaitik. Ez zan berea errua. Nirea be ez osorik.

—Ba daki emendik nabillena?

—Berak ez.

—Benetan?

—Ez.

Zegaitik joan ziñan Mendaro'ra?

—Oxirondo'n ikusi nebalako Mendaro'ko serora batek eroan nindula an bataiatzera.

Eta noizbaiten entzuna neban, emengo neskak, lotzariz, an eskutaten zirala, errian beste nunbaitera joan zirala esanda, edo ta monjatzan an sartzen zirala.

Oker nebillen?

—Ez.

—Nire adiñean, nire jaiotzako urtetan, an egon eikezan bost izen neukazan.

—Zeintzuk?

—Barbara, Liberata, Urrupiña, Kontze, Nikasi... Besteren bat egon eikean, baiña nik orreik nekizan.

—Orreitatik zeñekin geratuko ziñake?

—Ba dakit Barbara ez dana.

—Zegaitik?

—Barbara birritan be egon zan an, baiña barruan, monjetan. Ta areik ez dabe nai barrurako sabel andirik.

—Bestea?

—Liberata ez da zure emaztea?

—Bigarrena.

—Bai, bigarren eskontzakoa.

—Baiña Ana ez da zuen alaba.

—Bigarren ezkontzatik ez dogu ondorenik euki. Ta bakartadea ta etxeko ixiltasuna alaitzeko ekarri gendun erbestetik.

Zori ona euki dogu beragaz. Neska ona gertatu. Asko jakin eta balio daben neska.

—Liberata'k euki eban seme bat. Ta il zan.

—Nundik dakizu?

—Ziur nago monjak orretan dagozala.

—Or dago azeri zarraren arrastua, Anton.

Ez zan il.

—Ezetz?

—Inguru onetan ez agertzearren, Bergara'ra bialdu gendun Mendaro'ko serora bat an bataiatzera.

Ba genkien serora orrek len be beste norbait era orretan liburuetan sartzea lortu ebala.

Ordurako ba ekian berak Angiozar'en ume baten premiña ikusten ebela etxe batera bakea ta alkartasuna eroateko asmoz.

Antxe bertan emon eutsen gure umetxo ori.

Gero, aztarren guztia galdu eragitearren, nik zabaldu neban ume a, egunetara, Angiozar'en il zala.

—Ta zegaitik laga ninduzuen?

—Bizitzako gauzak. Txikikeriak. Egunez be dana illun ikusten diran uneak.

—Batak eta besteak bardin?

—Liberata, zure ama, sabelean zinduzala, ukatu egiten zan nigaz ezkontzera.

—Ez ziñen ondo ezagutzen.

—Ez dakit. Bein ori egin ezkeru, betiko lotsa galduta geratzen dala ta...

Etxean be ez eutsen lagaten nigaz ibiltan.

Origaitik, iñok jakin edo igarri baiño len, osasunez makal egoala, tabernako aizeak kalte egiten eutsela, atsendena komeni yakola, Mendaro'ko parrokoak neska premiña eukala ta orrelako aitzakiakin eskutatu zan an.

Dana dala, gauzak ez ziran geratu, etorri ziñan, eta ba genkian nora eroan zinduezan.

Gero, ain kezkatik ikusten nebalako, ni izan nitzan berari eriotza ori sinistu eragin neutsana.

Orixe da egia.

Erri txiki dala, nire lenengo emaztea ta Liberata adiskide on ziran. Origaitik sarri ikusten giñan etxean. Arek sekula ez eban jakin gure maitekerien barririk.

—Ez dakit zelan artu, ez dakit zelan sinistu... Ez dakit zoratuta ez ete nabillen be.

Gogorra da au. Gogorra da bizitzako kezka eten eziña, onelako tengada baten estutu eragitea.

—Alde onetik artu egizu.

—Nai ta gaitz. Benetan, gaitz, eziña lez...

—Anton, egia da, azpaldi esan bear neutsun.

Zenbat bidar, itxasoan, zuri begira egon naizen... ta ezin jarraitu begiratzen, negarrez asiko ez ba nitzan.

Esan bear neutsun ittotasun au ezin kenduta, zu erramutan niri begira, ta ni leman zuri begira, ia aztu egi-ten yatan nun nebillan, batzutan txalopa guztiaren arriskuan.

—Ta orain?

—Ana'gaz berba egizu.

—Zegaitik aregaz? Begiko jausi arte euki dozu au esateko? Etxeratze bat egin nai?

—Ez Anton, ez pentsatu orrelakorik.

—Ba dakizu. Iñok ez dau esango ni, bide orretan, ezagutu nabenik.

—Ez zaite pentsabide orretan asi. Bear ba da lenago esan ba neutsa, egunotan euki dozuzan gora-berak bitarteko euki barik, sinistu be ez zendun egingo.

—Egia da ori be.

—Eta Angiozar'tik etorri ta...

—Nik, Angiozar'en ikazgiñan ez neban ikasi, baiña negar egiten bai.

—Sinisten dautsut.

—Angiozar'en ikasitakuaz, ikusiaren ordeztu ikasitakuaz, gero konturatu naz bizitzan zela jokatu bear dan.

Eta nik, nire etxea, maitasunean eta bakean oiñarritu nai dot, beste guztien gaiñean.

—Alaxe bear da.

—Zetarako nai dozu Ana'gaz berba egitea?

—Konturatu zaite... Emazteari baiño lenago esaten yakoez alabei gauza asko.

—Orregaz zer esan nai, zure emazteak, nire ama dala esaten dozunak, ez dakila ezer nitzaz?

—Ezagutzen zaitu... baiña arek ez daki berea zarea-nik. Berak sortua iltzat sinista eban arek.

—Eta Ana'k ba daki..., garbi daki.

—Bai.

—Eta Ana ez da zuen alaba.

—Ba dakizu.

(Ixilune astuna).

—Ezagutzen dot. Igarten dot zure erantzuna. Koldarti bat izan naizela.

Ez dausat ukatuko.

Ba dakit lenago esan bear neutsula.

—Beste era baten egongo nitzan.

—Parkatu...

Zeregin onetan zure jokabidea ontzat artuko dot. Zor dautsudan lotsaz artzen aleginduko naz.

Baiña gauza au agertu edo ez, azpalditik ba nerabilen beste asmo bat.

—Zer?

—Txalopa onen lemarako zaartuta nago.

—Barrukoak igarten dautsugu.

—Zuri nai dautsut laga lemia.

—Niri?

—Beste gorabera ori izan ez ba litz, urteak dira lagako neutsula.

Indar barria bear dau txalopa onek. Orain ogetak urte ni neuk euki neban indarra. Gaur zuk emon zeinkio.

—Gaitz.

—Baiña artuko dozu.

—Bizitzan aurrera begira jokatzeko zale naz.

—Ba nekien.

Anton, aita ta seme baiño, anai izan gaitezen geiago.
Ori da nire naia.

Eta ni nasaitu naizen lez, amari be argi egin leikio.
danon arteko maitasunak.

Bestea, gerokoa... zure azkatasunean dago.

–Bai, aita...

Gerokoa asi bear dodan bizi barriak erakutsiko dau.

Eta eskua emon eutsen alkarri, argi egoan itxasoa
malko artean laiñoz ikusten ebela.

MUN-ZER

Orrialdea

Anton	9
Itxas ondoko aterpe txikiak	10
Eta aterpe andiak	12
Guzurretxe	15
Petraneko ostatua	16
Ostatukoak	18
Erbestetarrak	19
Errukia eta miseria	22
Anton eta Petra tratuan	29
Taberna lagaten	35
Neska bat kalean	40
Lenengo samiñak	44
Kontuak garbitzen	46
Petra`ren nortasuna	54
Eleizakuak	59
Alkarri begira	62
Aldebanatu naian	66
Atsedean bearrean	73
Ikusi-makusi	76
Ustegabeko gauzak	80
Zurru-murruak	85
Betiko itxastarrak	88
Utsunea	94
Goizeko barriak	100
Guzurretxeko autuak	102
Gaixotegian	108

Petra eta Anton bakarrik	111
Patroi zarragaz	117
Iru aizta ziran	123
Garrazkeriak	124
Ukabilkaden ondoren	127
Mitxel'en etxean	132
Barrero gaixotegian	136
Rosiña'ren asarreak	139
Anton'en alegiñak	143
Eleizpean	146
Kontu barriak	151
Azken naia agertzen	155
Mendaro'n ez da dana gozo	159
Andre txoliña	161
Kai egalean	164
Aurtzaroko errian	167
Len baiño kezkatia go	173
Buruko miñetan	177
Aize barriak Mendaro'n	181
Alkar ezagutzen	188
Guzurretxeko egiak	195
Bidez bide	200
Txalupa ostean	201